

George Sand

Negu bat Mallorcan

**euskaratzaileak: Miren Arratibel
Aintzane Atela**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Miren Arratibel, Aintzane Atela.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1999

Jatorrizkoaren data: 1839

George Sand euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=39>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1523>

HITZAURREA

George Sand

George Sand, Aurore Dupin jaiotza izenez, Parisen jaio zen 1804an eta Nohanten hil, 1876an.

Haurtzaroa Nohanten igaro zuen, amonarenean, eta han igarotako urteetan sortu zitzaion gerora bere idazlanetan izadiarekiko eta paisajearekiko erakutsi zuen zaletasuna. 1817an Parisko komentu batean sartu zuen amonak, eta handik urte batzuetara atera zuen, ezkontzeko. 1822an ezkondu zen Casimir Dudevantekin, eta bi seme-alaba izan zituen. Hasieran bizitza zoriontsua izan zuten baina beren harremanak okerrera egin zuen eta handik bederatzi urtera banandu egin ziren. Parisen hartu zuen bizitoki eta literaturan murgildu zen burubelarri.

George Sandek hainbat maitale izan zituen, garai hartako pertsonaia ospetsuak gehienak, besteak beste Prosper Mérimée, Alfred de Musset eta Frédéric Chopin; Chopinen maitale zen, hain zuzen ere, obra hau idazteko gaia eman

zion bidaiaren garaian, 1838-1939 arteko neguan. Bere garairako emakume aurreratua izan zen, bizitzaren hainbat alorretan, eta ideia aurrerazaleak defenditu zituen, garai hartako moral zorrotzari aurre eginez. Ideia horiek eta bere bizimodu eta ohitura bitxiak zirela-eta hainbat eskandalu sortu zituen.

Literaturari dagokionez, lehenengo lanak prentsan eman zituen argitara, eta lehen eleberria, berriz, *Indiana*, 1832an argitaratu zuen, George Sand ezizenarekin. Eleberri horretan emazteak senarrarekiko zuen mendekotasuna eta hainbat gizarte hitzarmen salatu zituen. Iskanbila handia sortu zuen baina lan hark eman zion idazle ospea. Urte hartan bertan *Valentine* idatzi zuen eta garai hartan hasi zen *Revue des Deux Mondes* aldizkarian kolaborazioak idazten. 1833an *Lélia* eman zuen argitara. Horiez gainera aipagarriak ditu beste obra hauek: *Mauprat* (1837), *Spiridion* (1839), *La Petite Fadette* (1849), *Histoire de ma vie* (1854-1855), *Contes d'une grand mère* (1873).

Oro har, sentimentalismoa eta lirismoa dira nagusi George Sanden obretan, eta idazle erro-

mantikotzat hartua den arren, azpimarratu beharra dago erromantizismo frantsesak erabili ohi zuen ereduari ihes egin ziola sarritan, eta erromantikoen etsipen eta eszeptzismoaren ordeztuz Rousseauren optimismo filosofikoa gogorarazten duen sentimentalismo idealista erakutsi zuela askotan. Maitasuna agertzen zuen bizitzako oztopo guztiak gainditzeko bide gisa eta sarritan bizitzaren alderdi iluna ezkututzen ahalegintzen zen.

Oso idazle oparoa izan zen, eta zenbait adituk diote artista handia izan ez arren eleberrigile profesionala izan zela. Bere lanetan ideien erreperitorio bikaina gorde zuen, eta hainbat gairi buruzko iritzia eman zuen; maitasunaz, dibortzioaz, askatasun sozialaz, gizarte erakunde eta ohiturez eta gobernu motez hitz egin zuen besteak beste, gizartearen moralari eragiteko asmoz gehienetan. Pentsamolde modernoaren bilakaeran garrantzi handiko emakumea izan zen.

Negu batez Mallorcan

Eleberri hau 1838an Mallorcara egindako bisitaldian oinarritua da, esan bezala, baina ez zuen egonaldia amaitu eta berehala idatzi, atal-ka eman zuen argitara bidaia hartatik itzuli eta handik urtebetera. Balio historiko eta literario handiko eleberria da, eta egileak iraultza aurreko mundu klasikoaren eta iraultza ondoko mundu erromantikoaren artean bizi zen gatazka islatu zuen bete-betean. Mugimendu erromantikoaren eraginez, beste artista askok bezala George Sandek lorategi eta areto dotoreak utzi eta urrutiko izadi liluragarri eta basatia miresten du, Erdi Aroko izuak gogorarazten ditu eta kristautasun xume eta dogmetatik aldendua aldarrikatzen du. Mallorcarrei erakutsi nahi izan zien munduan aldaketa handiak gertatzen ari zirela eta bere esanari jaramon eginez gero gizarte modernoa osatuko zutela, beren oztopo intelektual eta moral guztiak gainditurik. Baina uhar-tean hiru hilabete igarota zeregin horretan huts egin zuen eta etsipenak hartuta alde egin zuen. Izan ere, Mallorcako gizartearen errealitatea beraienaren oso bestelakoa zen eta Sanden ohi-

tura aurrerazaleek mallorcar gizarte kontserbadorearekin aurrez aurre egin zuten topo. Eta horrez gainera, Mallorcako egonaldiari eta mallorcarren erlijiotasunari egotzi zion Chopin maitalea berak irakatsitako ebanjelio libertario-tik aldendu eta eliza katolikoaren ortodoxiaren mende jarri izana berriro. Chopinen jarrera horrek eragin zion, zenbait adituren ustez, mallorcarrei mendekua hartzeko grina George Sandi.

Liburuaren hasieran esaten duenez, bere asmoa ez zen Mallorcako egonaldiaren kontra eskaintzea, baizik eta irakurleari uharteari buruzko argibideak ematea bere egonaldiaren zenbait xehetasunetan oinarriturik, baina objektibotasunez betiere. Liburu hau irakurri ondoren, ordea, ez dirudi helburu hori bete zuenik.

Izan ere, eguraldi txarra zela batetik, eta Chopin maitalearen eritasuna zela bestetik, ezin izan zituen Mallorcako hainbat paraje ezagutu eta ezin izan zuen Mallorcaren gida moduko liburuia izan behar zuena osatu. Palman Bellver jau-regia besterik ezin izan zuen bisitatu, hirigunetik lau bat kilometrora; ez zen egon San Frantzisko-

ren komentuan ezta bertako klaustro gotikoan ere. Ez zituen ezagutu ez Soller, ez Deya, ez Pollensa, ezta Lluch monasterioa ere, eta are gutxiago Formentor lurmuturra. Ez zen joan uhartearen hegoaldera. Hala uler daitezke Georgek uharteari buruzko argibideak emateko izan zituen eragozpenak; Mallorcari buruz eskaintzen dituen deskripzio gehienak «bigarren eskukoak» dira, Tasturen eta Laurensen liburuetatik hartuak.

Bertan azaltzen dituen bizipenak garrantasunez beteak dira, eta Mallorcako egonaldia amaitu eta hurrengo urtean hasi zen arren egonaldi hartako gorabeherak atalka argitaratzen, saminez eta gorrotoz idatzia da. Liburua ulertzeko, beraz, oso baligarria da bidaia zergatik egin zuen eta zer hondamen ekarri zizkion azaltzea aurretik, hori baita egileak Mallorcako biztanleekiko azaltzen duen higuinaren benetako zergatia.

George Sandek Europa erdialdean igaro zuen 1836-1837ko negua, bere seme Mauriceren osasun arazoentzat klima egokiagoa izango zelakotan eskualde haietan. Hurrengo urtean, ordea, arazoak izan zituzten berriro bai semeak eta

baita amak ere. 1838ko urtarrilean idatzi zue-
nez: «Erreumak hartuta nago erabat, eta Mauri-
ce gaixorik dago». Handik egun batzuetara,
erreumak eskuineko besotik hasi eta belaunerai-
no hartuta zuela esan zuen. Eta horrez gainera
zioen «Mauricek askotan besoa minberatua edu-
kitzen du eta egunero izaten du buruko mina.
Asko sufritzen dut; semea hala ikusteak, nire eri-
tasunak berak baino min handiagoa ematen
dit».

Negua iritsi aurretik Italiara joateko asmoa
zuen Sandek. «Italiara itzuli behar dut» esan zion
Christine Buloz 1837ko urrian, eta 1838ko mar-
txoan, amets hura asmo sendo bihurtu zen:
«Maurice gaixoa hobeto doa, baina osasuna eta
gorputza hain ditu ahulak, ezen Italiara joatea
erabaki baitut klima arinago baten bila». Maia-
tzaren bukaeran, ordea, Mauriceren osasunak
okerrera egin zuen eta abuztuan erabaki zuen
negua igarotzera leku beroago batera eramango
zituela seme-alabak.

1838ko udan zehar harreman handia izan
zuen George Sandek Marlianitarrekin. Charlotte
Marlianiren senarra Espainiako kontsula zen, oso

personaia ospetsua, eta 1840an Mallorcako senatore izendatu zuten. Marlianitarrenean Sandek Francisco Frontera y la Serra espainiar musikaria ezagutu zuen; Mallorcan jaioa zen eta jaioterriaren izena hartu zuen goitizen, *Valldemosa* hain zuzen. Hark hitz egin zion Sandi uharteko lilurez. Marliani jaunak eta Mendizabalek —Chopinen eta Sanden laguna, Espainiako ministroen Kontseiluko presidente ohia— Mallorcari buruz egiten zituzten goratzarreek ere eragin handia izan zuten Georgerengan. Horrela, bada, hasierako asmoak aldatu eta ez zen Napolira joan, Mallorcara baizik. Marlianitarren adiskide baten bidez Sandek mugagabeko kreditua lortu zuen Palmako Canut et Mugnerot bankuan, eta esku eskura zuen, beraz, bere abentura aurrera eramateko behar zuen guztia.

Semearen onura bilatuz prestaturiko abentura zen itxura batean, aitzakia hori jarri zien Sandek behintzat bere lagunei eta irakurleei Mallorcako bidaiaren kontakizuna egin zuenean, baina izan zen Mallorcara abiatzera bultzatu zuen beste arrazoirik: Chopinenganako maitasuna, hain zuzen. Izan ere, Chopinek ordu arte San-

den maitasunaren jabe zen Mallefilleren lekua hartu zuelarik, istilu latzak izan zituzten Mallefillerekin (George eta maitale berria hiltzeko saioa ere egin omen zuen) eta arrisku hartatik ihesi jarri zuen Georgek abian bidaiaren egitasmoa. Mallorca hautatu zuen azkenik, pentsaturik herrialde hartan, hara iristea zaila zenez, Italian baino lasaiago biziko zirela.

Itxura batean Chopinek berak eskatu zion Georgeri berarekin eta seme-alabekin joaten uzteko, bidaia hark osasuna itzuliko ziolakoan. Hala ere, Chopinek ez zuen azken unea arte hartu erabakia eta Perpignanera iritsi zenean, ustekabe atsegina hartu zuen Georgek. «Maitea, maitea —idatzi zion Georgek Grzymalari urriaren 1ean— hau zoriona! Bera hemen da, eta sendo dagoela ematen du gainera!»

Georgerentzat ez zen, hortaz, gozamen bila prestaturiko bidaia bat, ez zen amodiozko ihesaldi bat, baina bazuen eritasunaren zoritxarrak eta marmarrak pozoituriko girotik urruntzeko aukera emango zion itxaropena. Astolphe de Custinek Sophie Gayri 1838ko urriaren 22an idatzitako eskutitz batek azaltzen du zertan zen giro itxura-

ti hura. «Chopin —idatzi zuen hark— Valentziara abiatuko da, Espainiara, alegia, beste mundura. Sinestezina Sand andereak zer egin dezakeen uda batean. Akituta utzi du eta arimarik gabeko gorputz bihurtu du. Pianoa jo du bere agurrean, eta esan beharrik ez dut nolako trebetasunaz. (...) Chopin haren atzetik doa Espainiara, bera abiatua da dagoeneko. (...) Ez du kemenik izan joatekoa zela esateko: berak klima onaren eta atsedenaren beharra aipatu dit bakarrik! Atsedena, Corinne gisa emakume banpiro bat darama-la!»

Bere asmoak ustel atera ziren, ordea. Chopin eta semea eri zituelarik, ezin izan zuen egonaldi hartaz nahi adina gozatu eta egonaldi antzu gisa azaldu zuen, nahiz eta Chopinek oso bestelako iritzia zuen. Chopin gaixo zegoen eta egia da hainbat zailtasun izan zituztela bai jatekoa lortzeko, bai ostatua lortzeko eta baita beren ohituraren arabera bizitzeko ere, baina Chopinen arabera lanerako giro aiposean bizi izan ziren, ingurune bikain batean, nahiz eta bere eritasunak ez zion inguruneaz nahi adina gozatzeko aukerarik eman; zailtasunak zailtasun, monaste-

rioko bakartasunean denboraldi atsegina bizi izan zuen beraz, bere adiskideei idatzitako gutunen arabera, eta horren erakusgarri izan daiteke hainbat musika lan idatzi izana (Sandek berak han amaitu zuen bere *Spiridion* lana). Chopinek monasterioko bizitza lasaia goretsi bezala George Sandek bizitza hori gutxiesten du.

Palman egon ziren lehenik, eta ezin esan daiteke han ongi etorri berorik egin zietenik, hainbat arrazoi direla medio. Batetik Chopin berekin bizitza onartezina iruditzen zitzaion (Sand emakume ezkondua zen), eta bestetik Sand Mendizabalen laguna zen eta ez zuen bere errepublikazaletasuna ezkutuan gorde. Ordurako Mallorcan ezaguna zen Sanden obra, baina egilea dama frantses ospetsu bat zela uste izan zuten eta atsekabe handia hartu zuten espainiar intelektualek emakume hura ikustean. Bestalde, ez zituzten Parisen zituzten erosotasun guztiak aurkitu, baina ulergarria da hori, garai hartan gerrako errefuxiatuez beteta baitzegoen hiria. Espainian gerra zegoen eta uhartean gudurik izan ez zen arren, setio egoeran zegoen uharte guztia eta horrek eragin latza izan zuen ekonomian.

Palmako egoera kaskarra zela eta, landara abiatu ziren handik. Han ere ez zuen bere gustuko giroa aurkitu Sandek, are egoera okerragoa aurkitu zuen hiriburuan baino. Lehen esan bezala, oso kontserbadoreak, erlijiosoak eta zorrotzak ziren mallorcarrak, eta joera horiek are nabarmenagoak ziren hiritik landara: nekazariak ezin onartu zuten beren artean emakume erretzaile bat, gizonez jantzia, bekatuan bizi zena. Egunez lo egiten zuen, gauak idazten ematen zituen, kafea edaten zuen... eta frantsesa gainera! Gogoan izan behar da garai hartako apaizek ziotenez frantsesak kupidagabe, moralgabe eta arerio militarrek zirela espainiarrentzat. Horrez gainera, Chopin gaixo zegoen eta herritarrek beren osasunerako arrisku gisa ikusten zuten, hetikak joa zegoela eta izurria zabalduko zuela uste baitzuten. Garai hartan Mallorcan bizi izan ziren beste atzerritar batzuen ustez ez ziren hain basatiak mallorcarrak eta Sand izan zen beraren eta uhartetarren artean hesia eraiki zuena, baina egia da, bestalde, ez zituela herritar atseginenak izan bizikide, eta eramanezina gertatu

zitzaiola herritarrek Chopin baztertzea eta eritasunaren mende igarotzea hilabete haiek.

Miren Arratibel
Aintzane Atela

George Sand eta Frederic Chopinek Mallorcara egindako bidaiaren kronologia laburra

1838

(Azaroak 1) Port Vendrestik abiatzen dira, ontziz, Bartzelonara.

(Azaroak 2) Iluntzean iristen dira Bartzelonara, eta hotel kaskar batean hartzen dute ostatu.

(Azaroak 3) Liceo antzokira joaten dira. Sand antzokiarekin liluratuta gelditzen da.

(Azaroak 4) Sandek bere liburuaren amaieran aipatzen duen *Méléagre* frantziar gerra ontzia bisitatu zuten Frantziako kontsula zutela lagun.

(Azaroak 7) Palmara abiatu ziren *El Mallorca* itsasontzian.

(Azaroak 8) Eguerdian iristen dira Palmara. Errefuxiatu politikoz beteta dago hiria eta beste ostaturik aurkitu ezinik, ostatu kaskar batean igarotzen dute gaua. George Sandek hiriko hain-

bat handikiri bisita egin zien: Flury, Cardonako markesa, Elena Chaussat de Canut.

(Azaroak 10-11) Sand antzokira joaten da, Canut andrearen eta kontsularen palko berera. Antzokiko begi guztiak berari begira daude. Charles Dembowskik idatzi zuenez, «egunkariak berriki esan dute Espainiarantz abiatua zela George Sand, jadanik ezaguna haren *Indiana* obra handiaren itzulpenari esker, eta halako batean, hara non ikusten duten Palmako damek atzerritar bitxi bat Frantziako kontsulari besotik helduta *Born* ibilbidean gora eta behera. Haren janzkerak, erabat espainiar tankerakoa, gorpuzkerak, hegoaldekoa itxuraz, eta atseginez erretzen ari zen zigarroak Hego Ameriketatik etorria zela pentsarazi zien, eta haren albotik igarotzean “Mexikarra izango da, seguru!” zioten guztiek ahapeka. Baina a zer nolako ustekabea hartu zuten *frantses erromantikoa* (hala deitzen zioten eleberri irakurleek) bera zela jakin zutenean! *Courrier de Dames*-en argitaratutako azken modaren arabera jantzita ikusiko zutela uste zuten, eta nahigabe handia hartu zuten

espainiar eder eta harro bat besterik ez zela jabetu zirenean».

Palmako gizartearekiko lehen harremanak eta lehen gaizki ulertuak. Zailtasunak ditu bizitokia alokatzeko. Ez du bere gustuko ezer ere aurkitzen eta bertakoak izaki atzeratuak direla irizten dio, ohezale amorratu batzuk besterik ez dira bere ustez. Eta ez dute aurrerapenaren beharrik ikusten gainera. Gauzak ez dira Frantzian bezalakoak.

(Azaroak 12-13) Ignacio Duran errefuxiatu politikoa ezagutzen du. Duran Valldemossako kartujan bizi da, baina handik alde egiteko asmoa du. Hiru areto ditu, altzari eta guzti, eta Sandek gela hura alokatzeko erabakia hartzen du.

(Azaroak 13) Kartujara abiatzen da bere seme-alabekin eta Chopinekin. Duranen gela alokatu eta hari altzariak erosi ondoren Valldemossatik Trinidadeko ermitara abiatzen dira, oinez, hartxintzarrezko bidean gora. Itzulerako bidea izugarria izan zen, haize zakarra baitzebilten, eta Chopin akiturik utzi zuen. Bertako biz-

tanleak izugarriak iruditu zitzaizkion Sandi, ezjakinak, zikinak eta higuingarriak.

(Azaroak 14) Gomez izeneko jaun batek Palmatik zortzi kilometrora (Establiments) etxe bat, altzariz hornitua, alokatu nahi zuela jakiten dute eta hara joatea erabakitzen dute. Abendu hasiera arte eguraldi ona egiten du eta George Sandek *Spiridion* idazten jarraitzen du (azaroaren 20an bidali zion laugarren atala argitaldariari).

(Azaroak 20-abenduak 3) Eguraldia ona den arren Chopinek sukarra du eta ez tul eta ez tul arida. Georgek deitu dituen hiru medikuek ez daki te eritasunari aurre nola egin, dieta berezia, sendagai bakarren bat eta kutsatzea galarazteko neurriak bakarrik agintzen dizkiote. Chopinek gerora idatzi zuen: «Nire aingeruaren zainketa infinitoek zuzpertz ninduten (...). Nigatik kezkatuta zebilen beti. Bera bakarrik zegoen ni zaintzeko, zeren a zer nolako medikuak hangoak! Ohea egiten zidan, gela txukuntzen zuen, eda-beak prestatzen zizkidan, dena uzten zuen nigatik».

Chopin Pleyel etxera eskatutako piano baten zain dago: «Musika amesten dut, baina ez dut musikarik egiten, hemen ez baitugu pianorik».

(Abenduak 6) Euria hasten du, etxea itokinez betetzen da, hotza dute eta han bizitzea ezinezkoa gertatzen zaie. Bestalde, Gomez jauna, bere etxean hetikak jotako eri bat duela jakinik, ahal bezain pronto bere etxea uzteko agintzen die, izurria zabaldu eta udan bere senideak kutsatuko direlakoan.

(Abenduak 10) Kontsulatuan hartzen dute aterpe bost egunez, eta Valldemossako kartujara itzultzen dira berriro. George eskas dabil diruz eta Canut bankariak 3.000 liberako mailegua ematen dio.

(Abenduak 15) Valldemossara iristen dira. Herriko bi emakume eta beren ondoko gelan bizi den Maria Antonia delako bat hartzen dituzte etxeko lanetan laguntzeko. Hiru laguntzaile eta Paristik eramandako zerbitzaria berekin izan arren, George etxeko lan asko egin behar dituelako kexu agertzen da (gela jaso, Chopinen ohea egin, sukaldea zaindu...). Eskolak ematen dizkie seme-alabei eta idazten jarraitzen du. Pleyeli

1.200 liberagatik erositako pianinoa Palmara iritsi eta egun batzuetara Palmarantz abiatzen da pianoaren bila Mauricerekin. Aduanak 700 libera eskatzen dizkio sarrera eskubide gisa eta azkenean esku hutsik itzultzen da Valldemossara. Euritan hartzen dute itzulerako bidea; euri jasa izugarria dela-eta bideak itxita gelditzen direnez, zalgurdia eta gurdizaina bidean ez aurrera ez atzera utzi eta oinez egiten dute azken zatia. Itzultzean negar batean aurkitzen dute Chopin, izpiritua heriotzaren beldurrak hartuta, idatzi berri duen preludioa han alokaturiko piano kas-kar batean jotzen.

(Abenduak 28) Sandek *Spiridion* obra amaitzen du. Argitaratzaileari idatzitako gutunean dio: «Idatziko dut bidaia honetaz geroago, herri honetan bizi naizen artean ezin dut inprimategira ezer bidali. Surtara botako nindukete».

1839

Jendearekiko harremanek okerrera egiten dute. Mallorcarrak ez dira atseginak berarekin eta Sandek mendekua hartzen du horregatik.

(Urtarrilak 17) Azkenik, pianoaren sarrera eskubide gisa 300 libera ordaindu eta Chopinek pianoa eskuratzen du; hogeitau egunerako besterik ez da izango baina.

(Urtarrilak 22) Atertu du. Chopinek bere *Pre-ludioak* amaitu eta Parisa bidali ditu. Osasunez gaizki jarraitzen du.

(Otsaila 11) Valldemossatik Flury kontsularen etxera aldatzen dira, bere pianoarekin. Chopinek odol jario izugarria du. Pianoa saldu nahi dute garesti aterako baitzaie Parisa eramatea, baina inork ez du piano hura nahi, hetikak jotako gaixo batena izan delako. Azkenik, Chaussat de Canut andreak erosten die.

(Otsailak 13) Arratsaldeko hiruretan itsasoratzen dira *El Mallorquin* ontzian Bartzelonara bidean. Ontziak zerriak damaratza eta ez dute oso bidaia atsegina egiten. Chopinen eztula eta odol jarioa ez dira baretzen. Bartzelonara hilaren 14an iristen dira, eta ontzitik jaisteko ere astirik hartu gabe Chopin *Le Méléagre* brick frantsesera eramanez dezaten agintzen du Sandek, hango medikuek senda dezaten eria. Bartzelonan iga-

rotzen dute gaua, eta Chopinen odol jarioa eten egiten da azkenik.

(Otsailak 22) Marseillarako bidea hartzen dute *Le Phenicien* ontzian. Marseillara 24an iristen dira eta han gelditzen dira maiatzaren 23 arte, sendagileak Chopini atsedean hartzeko agindu baitio.

(Ekainak 1) Nohantera iristen dira.

1841

(Urtarrila-martxoa) *Revue des deux Mondes* aldizkarian argitaratzen da, atalka, *Negu batez Mallorcan* obraren lehen bertsioa.

(Maiatza) José María Quadradok George Sanden kontrako idatzi bat argitaratzen du *La Palma* astekarian. Honela amaitzen da artikulu hori: «Idazle guztietan lotsagabeena da George Sand, eta madama Dudevant, emakume guztietan lizunena».

Oharra

Liburu honek nire adiskide François Rollinat-
idatzitako eskaintza-gutun batean du data, eta
IV. kapituluaren hasieran agertzen diren gogoe-
tak ditu oinarri; ez dut, beraz, gogoeta horiek
errepikatu beste irtenbiderik: «Zergatik bidaiatu,
horren beharrik ez badugu?». Europa hegoalde-
ko beste puntu batetik igarotako latitude bereta-
tik itzuli naizelarik, behinola Mallorcatik itzuleran
eman nuen erantzun bera eman diot gaur ere
neure buruari: «Kontua ez baita bidaiatzea, abia-
tzea baizik: ba ote da ahaztu beharreko oinaze-
ren bat ez duen inor, edo askatu beharreko uzta-
rriren bati lotuta ez dagoen inor?».

Nohant, 1855eko abuztuaren 25ean
George Sand

Bidaiari ohi baten gutuna lagun sedentario bati

Ezinbestean sedentario zaren horrek, nire François maiteak, irudipena izango duzu ezen ez baitut, independentziaren harrokeria eta mania apetatsua dela medio, itsasoak eta mendiak, aintzirak eta bailarak zeharkatzea baino plazer sutsuagorik ezagutu neure bizitzan. Ondikotz, sutondoaren ertzean egin izan ditut bidaia eder eta gozoenak, oinak nituela errauts epeletan sarturik eta ukondoak amonaren besaulkiaren beso saretuen gainean jarrita. Zalantzarik ez dut horiek bezain bidaia atseginak eta mila aldiz poetikoagoak egingo zenituela zeuk ere: horregatik gomendatu nahi dizut gehiegi ez deitoratzeko tropikoan ez igaro izana zure denbora, zure zoritxarra, zure izerdiak, eta ez eduki izana oinak lurburuko zabaldi elurtuetan izoztuta, eta ez jasan izana ez itsasoko erauntsi izugarriak, ez bidelapurren erasoak, ez eta gauero zure irudimenean, txinalak erantzi gabe eta zure etxekaren azpikoan zigarro erredura ez den beste

kalterik gabe, aurkitzen dituzun arrisku horiek, nekaldi horiek.

Espazio errearen eta mugimendu fisikoaren mugarekin adiskide zaitez, hemen igortzen dizut Frantziatik kanpora egin dudana azken bidaiaren kontakizuna; izan ere, ziur nago inbidia baino gehiago errukia izango didazula, eta ohartuko zarela liluraldi batzuk eta zoritxarrari lapurturiko ordu batzuk garestiegi ordaindu behar izan ditudala.

Orain dela urte bete idatzitako kontakizun honegatik berehala jaso dut kritika zorrotza, izugarri barregarria, Mallorcako biztanleen eskutik. Zoritxarrez, nire kontakizunaren atzetik argitara emateko luzeegia da idatzi hori, baina haren doinuak eta nire kontrako gaitzespen arinek garbi erakutsiko lukete mallorcarrek atzerritarrarekiko duten abegi onari, gustuari eta adeitasunari buruz esaten dudana egia dela. Froga argigarri nahiko bitxia litzateke: baina nork irakur lezake oso-osorik? Eta gainera, harrokeriaren eta inozkeriaren seinale bada norberari egiten zaizkion gorespenak argitara ematea, ez al litzateke are

harrokeria eta inozokeria handiagoa, gaur egun, norberari egiten zaizkion irainen kexu agertzea?

Ez dizut, beraz, halakorik jasanaraziko, eta nahikoa izango dut zuri jakinaraztea, mallorcar ergel horiei buruz zor dizkizudan xehetasunen osagarri, nire kontakizuna irakurri ondoren Palmako legegizon bikainenek —berrogei bat, esan didatenez— bilera egin zutela irabaziari dioten maitasunaz eta zerri hazkuntzari dioten zaletasunaz barre egin duen *idazle moralgabe* honen kontrako idatzia osatzeko, irudimen handiz. Kasu horretan lauk baino zorrotasun handiagorik ez zutela izan esan behar da, *beste hark zioen bezala*.

Baina utz dezagun baketan jende zintzo hori, nire kontra hain sutsu diharduen jende hori; izan dute baretzeko astirik eta ahaztu egin behar nituzke dagoeneko haien jokabidea, hitzak eta idazkera. Herri eder hartako uhartetarretatik bospaseirekin bakarrik gogoratzen naiz jadanik, beren harrera abegitsuarekin eta manera atseginekin beti kalte-ordain gisa eta zorionaren mesede gisa nire oroimenean iraungo duten bospasei lagunekin baino ez. Aipatu ez baditut, nire esker

onaz haien izena ohoratzeko eta goratzeko duin ikusten ez naizelako da; baina ziur nago (eta kontakizunean ere esana dut, ustez) ez direla, nitaz gordeko duten adiskidetasunezko oroitzapenari esker, nire iseka lotsagabeen helburu ikusiko eta ez dutela zalantzan jarriko haiekiko dudan sentimena.

Ez dizut Bartzelonari buruz ezer ere esan, baina egun gogorrak bizi izan genituen han Mallorcara abiatu aurretik. Port Vendrestik Bartzelonara eguraldi onarekin eta lurrun ontzi bikain batean joatea, bidaldi zoragarria da. Kataluniako kostaldean aurkitu genuen berriro Nîmesen azaroan arnastu baina Perpinyàn galdu genuen udaberriko giroa; udako beroa zegoen Mallorcan. Bartzelonan, itsas brisa fresko batek epeltzen zuen eguzki distiratsua eta garbitzen zuen odaiertz zabala, urrutiko gailur orain beltz eta soilek orain elurrez zuriek mugatua. Mendian ibilaldi bat egin genuen, baina gu eraman gintuzten mando andaluziarrei nahi adina olo jaten utzi zitzaienten, ezustekoren bat izanez gero berehala eraman gintzaten hiri gotortuko harresietara.

Badakizu garai horretan (1838) asaldariek talde ibiltarietan zeharkatzen zutela herrialdea alderik alde, bideak moztuz, hiriak eta herriak hartuz, etxerik txikienak ere zergapean ezarriz hiritik legoa erdi arteko aisia etxeak bizileku hartuz, eta harkaitz zulo guztietatik ustekabean atereaz bidaiariari poltsa ala bizia eskatzeko.

Hala ere, ausartu ginen itsasbazterretik legoa batzuetara joaten eta ez genuen Bartzelonara bidean behera zetozen kanpamendu kristinoak besterik aurkitu. Espainiako gudaroste bikainek haiek zirela esan ziguten; izan ere, planta oneko gizonak ziren eta ez zeuden oso zarpail jantzita, guduzelaitik datorren jendea izateko; baina gizon eta zaldi, hain zeuden argal denak, hain zuten aurpegia zurbil eta zimel batzuek eta besteek hain burua makur eta alboak azal huts, ezen begiratu hutsean antzematen baitzitzairen gosearen gaitza.

Are ikuspegi goibelagoa zen herri txikienetan eta txabola txiroenen atean eraikitako gotorlekua: harri lehorreko harresi txiki bat, dorre almenaduna, turroia bezain lodia eta handia, ate bakoitzaren aurrean, edo kanoi zuloekiko horma

txikiak sabai bakoitzaren inguruan; horrek guztiak erakusten zuen lur emankor haietako biztanle bakar bat ere ez zela seguru bizi. Toki askotan gotorleku hondatu txiki horiek eraso eta defentsa gertatu berrien aztarnak zituzten.

Bartzelonako gotorleku bikain izugarrietatik igaro ondoren, ez dakit zenbat ate, zubi altxagarrri, ataka eta harresi ingaro ondoren, ezer ez zegoen gerran ari zen hiri batean geundela erakusten zuenik. Kanoiekiko harresi hirukoitz baten atzean, eta Espainiako gainerako lurretatik lapurretak eta gerra zibilak bereizitako lurralde hartan gazteak gora eta behera ibiltzen dira *ramblan*, gure ibilbideen antzera zuhaitzez eta etxez jositako etorbidean: emakumeek, eder, airos eta lerden, mantillaren tolesak eta haize-maileen mugimendua zituztela kezka bakarra; gizonak, beren zigarroei adi, barrez, berriketan, andreei soslaiez begiraturaz, italiar operaz gozatzten eta harresien beste aldera gertatzen zena- ren beldur zirenik erakutsi gabe. Baina ilundu orduko, opera amaitu ondoren, gitarrak urrundu ondoren, hiria *serenoen* joan-eto- rri arretatsua- ren esku gelditu ondoren, ez ziren entzuten, itsa-

soaren zurrumurru beti berdinean, beilarien oihu beldurgarriak eta sugar are beldurgarriagoak besterik, orain banaka, orain hainbat lekutatik batera, orain jarraia, orain etena, batzuetan oso urrun, besteetan oso hurbil, eta beti goizaren lehenengo orduak etorri arte. Orduan dena isil-isilik gelditzen zen berriro ordu betez edo bi orduz, eta burgesek lo sakona egiten zutela ematen zuen portua iratzarri eta itsasgizonak hara-hona hasten ziren bitartean.

Aisialdirako eta paseorako orduetan gaueko zarata bitxi beldurgarri haiek zer ote ziren galde-tuz gero, irribarrez erantzuten zizuten hori ez zitzaiola inori axola eta ez zela zentzuzkoa horretaz galde egitea.

LEHENENGO ATALA

I. kapitulua

Bi turista ingelesek aurkitu zuten, orain dela, nik uste, berrogeita hamar bat urte, Chamounix-ko ibarra, Mer-de-Glaceren sarrerako haitz puska batean grabatuta dagoen idazkunak erakusten duenez.

Asmo handinahi samarra, beharbada, bailara txiki horren egongune geografikoa kontuan hartuta, baina zilegia ere bai, neurri batean; izan ere, turista haiek —ez dut haien izena gogoratzten— erakutsi zizkieten, lehenengo, Byronek *Manfred* drama miresgarria asmatu zueneko toki erromantiko haiek poetei eta margolariei.

Oro har, esan daiteke, modaren ikuspegitik begiratuta, ertien munduak eta artistek ez zutela Suitza azken mendea arte aurkitu. Jean-Jacques Rousseau da poesia alpetarraren benetako Cristobal Colon, eta berori da erromantizismoaren aitalehena gure hizkuntzan, Chateaubriand jaunak adierazi duen bezala.

Neure izena hilezkor bihurtzeko Jean-Jacquesek zituen titulu berberen jabe ez banaiz ere, eta

eduki nitzakeenen bila jarrita, jabetu naiz, agian, nik ere Chamounixko ibarreko bi ingeles haiek bezalaxe lor nezakeela ospea eta erdietsi neza-keela Mallorca uhartea aurkitu izanaren ohorea. Baina mundua hain bihurtu da zorrotza, non gaur egun ez nukeen nahikoa Baleareetako har-kaitz batean neure izena idaztea. Nire bidaiaren deskripzio zehatza eskatuko lidakete, edo, gutxienez, haren kontakizun poetikoa egitea, nire hitzekin bidaia horren grina pizteko turistei; eta lurralde hartan ez nuelarik izpiritua halako estasi egoera batean, uko egin diot nire aurki-kuntzaren ospeari, eta ez dut haren lekukotasu-nik utzi ez granitoan ez paperean.

Orduko pena eta nahigabeen eraginpean ida-tzi izan banu ezin izango nintzatekeen aurkikun-tza honetaz harro egon; izan ere, ez zela hain-besterako esango baitzidaten denek nire hitzak irakurri ondoren. Hala ere, bazen hainbesterako, eta orain ausartzen naiz hori esatera; munduko leku eder eta ezezagunenetakoa baita Mallorca marrazkilarientzat. Edertasuna besterik ezin deskriba daitekeen hartan, literaturazko adieraz-pena hain da urria eta eskasa, ezen ez nuen lan

hori neure gain hartzea amestu ere egin. Marrazkilariaren lapitza eta zizela behar dira bidaiari porrokatuei izadiaren handitasun eta edertasuna erakusteko.

Beraz, nire oroitzapenak lozorrotik esnatu baditut, goiz hauetako batean nire mahai gainean liburu eder bat aurkitu dudalako izan da:

Souvenir d'un Voyage d'art à l'île de Majorque, J.-B. Laurensena.

Benetan pozgarria izan zen niretzat Mallorca aurkitzea berriro: hango palmondoak, hango aloek, hango monumentu arabiarak eta hango jantzi greziarrak. Leku guztiak ezagutu nituen hark ematen zien kolore poetikoaren bidez, eta berriro etorri zitzaizkidan gogora ordurako iraungiak uste nituen zirrara guztiak. Ez zegoen hondakinik, ez sasitzarik, nigan oroitzapen mundu bat —gaur esaten den bezala— esnatuko ez zuenik; eta neure bidaia kontatzeko kemenik bildu ez banuen ere, Laurensen bidaiaren berri emateko indarra izan nuen, gutxienez. Artista argia zen Laurens, saiatua, bizkorra eta artatsua lanean, eta hari itzuli behar zaio nik neure buruari egoz-

ten nion Mallorca uhartea aurkitu izanaren ohorea.

Gure bi ingelesek Montanvertera egin zuten ibilaldia baino askoz ere txalogarriagoa da Laurenek Mediterraneoaren bihotzera egin zuen bidaia hura, batzuetan biztanleek bezain harrera txarra egiten baitu han itsasoak. Hala ere, baldin eta europar zibilizazioak aduanak eta gendarmeak desagerrarazi izan balitu, nazioen uste txar eta ezinikusien erakusgarri baitira horiek; baldin eta, gure herritik paraje horietara lurruntzuz zuzenean joateko biderik balego, Mallorcan kalte handia egingo lioke Suitzari, egun gutxitan iristeko modua izango bailitzateke, eta hain edertasun eztiak eta hain handitasun bitxi eta gorenak aurkituko lirateke han, non gai berriez hornituko litzatekeen margolaritza.

Gaurko egunean, artista gorputzez sendoei eta bihotzez suharrei beste inori ezin diot egin, zintzoki behintzat, bidaia horretarako gonbita. Zalantzarik gabe, etorriko da eguna, bidaiazale finak, eta are emakume ederrak ere, Palmara joan ahal izango direna Genebara joateko baino neke eta akidura gehiagorik gabe.

Laurenssek, luzaroan Taylorrek Frantziako monumentu zaharrei buruz egindako lan artistikoari loturik ibili ondoren, Balearietara joatea erabaki zuen iaz, bere indarren eskutik utzita. Uharte haietaz hain informazio gutxi zuen, ezen Balearietako itsasbazterra ukitzean bihotz ikara handia sentitu zuela aitortu baitzuen; hala ere, itsasbazter hark atsekabe handia emango zion, bere urrezko ametsei erantzunez beharbada. Baina, han bilatu nahi zuen hura aurkituko zuen eta esperantza guztiak beteko zituen bertan, zeren, berriro diot, Mallorca da margolaritzaren Eldorado. Han guztia da pintatzeko modukoa: pintatzeko modukoa nekazariaren etxaldea, zeinak arabiar estiloa gorde duen eraikin txikietan, pintagarria zarpailez jantzitako haurra, garaitzaila bere *narrastasun berealdikoan*, Henri Heinek Veronako barazki azokako emakumeei buruz esan zuen bezala. Paisajea, landareetan Afrika-koa baino joriagoa, baina, bestela, hangoa baino zabalagoa, lasaiagoa eta soilagoa da oro har. Helvetia berdea da Kalabriako zerupean, Ekialdearen handitasun eta isiltasunarekin.

Suitzan, pinturak batzuetan behar bezala ezin islatu dituen halako kolore mugikortasun eta, nolabait esateko, mugimendu jarraitasun bat ematen diote paisajeari bazter guztiak bustitzen dituen uharrak eta etengabe igarotzen diren hodeiek. Naturak artistari iseka egiten diola dirudi. Mallorcan, aldiz, haren zain dagoela eta deika ari zaiola ematen du. Landareek forma harro eta bitxiak dituzte han, baina ez dute Suitzako paisajearen lerroak sarritan desagerrarazi ohi duen luxu ordenagabe hori. Harkaitzaren tontorra, bere muga ondo zehaztuak islatzen dituena zero distiratsuan; palmondoa, bere gisa makurtzen dena amildegietara, haize apeta-tsua haren adats dotorea nahasi gabe; eta bide bazterreko kaktus txikiena; guztia dago han ikusmenaren atseginerako handikeriaz bezala jarria.

Ezer baino lehen, Balear nagusiaren deskripzio laburra egingo dugu, geografia hiztegi bateko artikulu arrunt baten antzera. Eta hori ez da uste bezain lan erraza, batez ere argibideak herrialdean bertan eskuratu nahi direnean. Hainbestearino dira espainiarrak zuhurak eta uhar-

tetarrak mesfidatiak, ezen atzerritarrak ezin baitio galderarik hutsalena ere egin inori, ajente politikotzat har dezaten nahi ez badu behintzat. Laurens gizajoa bera ere, gustatu zitzaion gaztelu hondatu baten *krokisa* egiteagatik preso eramanean zuen gobernadore aierukorrek, eta bere gotorlekuaren planoak egin izana leporatu zion. Hala, gure bidaiariak, bere albuma Mallorcako estatu espetxeetatik kanpo osatu behar zuela erabakita, ondo begiratu zuen bere burua mendiko bideez bakarrik galdetzetik, eta hondakinetako harriak beste dokumenturik aztertzetik. Mallorcan lau hilabete egin ondoren neuk ere ez nukeen hark baino gehiago aurreratuko, baldin eta paraje haiei buruz iritsi zaizkigun xehetasun apurrak aztertu ez banitu. Baina hemen sortu zaizkit berriro zalantzak; izan ere, lan haiek, lan zaharkituak dagoeneko, ez datoz bat, eta bidaiariak ohi duten bezala, elkar ukatzen eta gutxies-ten dute, halako eran non, ezinbestekoa den zenbait akats zuzentzea, beste akats batzuk egiteko arriskuan. Hona hemen, dena dela, nire geografia hiztegiko artikulua; eta, hasteko, esan dezadan, ni ere bidaiaria naizen aldetik, aurrez

idatzitako beste guztiak baino askoz hobea dela nire hau.

II. kapitulua

Uharteari *Balearis major* esan zion Laurens jaunak, erromatarrek bezala; mallorcar historia-larien errege Juan Dameto doktoreak, berriz, antzina *Clumba* edo *Columba* izan zela zioen; eta gaur egun Mallorca esaten zaio orde z hiriburuari, berriz, ez zaio inoiz Mallorca deitu, gure geografo askok esan duten bezala, Palma baizik.

Balear uhartediko uharte handiena eta emankorrena da Mallorca, Mediterraneoak arroa inbaditu bide zion kontinente baten aztarna, eta, zalantzarik gabe inoiz Espainia eta Afrika lotu zituenez, bataren eta bestearen klima eta uzta ditu. Bartzelonatik hego-ekialdera dago, 25 legoatara; Afrikako kostaldetik hurbileneko puntua 45 legoatara du, eta Toulongo golkoa 95-100 legoatara, nik uste. 1.234 milia koadroko area du, uhartearen inguru guztiak 143 milia ditu, eta gehieneko zabalera 54koa eta txikiena 28koa. 136.000 biztanle zituen 1787an, eta 160.000 inguru gaur egun. Palmako hiriak, berriz, 36.000

biztanle ditu gaur egun, eta 32.000 zituen garai hartan.

Tenperatura gorabehera handiak izaten dira, argialdiaren arabera. Uda kiskalgarria da lautada osoan; baina ipar-ekialdetik hego-mendebalera mendilerro batek (norabide horrek ematen du aditzera Afrikako eta Espainiako lurraldeekiko duen ahaidetasuna; herrialde horietako hurbileneko puntuek makurdura hori bera dute, eta uharteko angelu irtenenei dagozkie) eragin handia du neguko tenperaturan. Hala, Miguel de Vargasek dio, 1784ko negu beltzean, Palmako golkoan, Réamur termometroa behin bakarrik jaitsi zela 6 gradu zero azpitik, urtarrileko egun batean; 16 gradura igo zela beste egun batzuetan, eta gehienetan, 11 gradu izan zituztela. Tenperatura hori da, gutxi gorabehera, negu arrunt batean Valldemossako mendialdean izan genuena, eta mendialde horrek du uharte guztiko inguru hotzenetakoa den ospea. Gau gogorretan, bi arra elur genuela, 6 edo 7 gradutan egoten zen termometroa. Goizeko zortzietan 9 edo 10 gradutara igotzen zen tenperatura, eta 12 edo 14 iristen zituen eguerdian. Gehienetan,

hirurak aldera, orduan ezkututzen baitzitzaigun eguzkia inguruko mendi gailurren atzean, termometroa 9 gradutara jaisten zen bat-batean, eta are 8 gradutara ere tarteka.

Ipar haizeak indar handiz jotzen du han askotan, eta Frantzian sekula ezagutu ez dugun moduan aritzen du euria neguan, erruz eta etengabe, urte batzuetan. Oro har, klima osasungarria eta gozoa da uhartearen hegoaldean, Afrikara makurtzen den aldean; erdialdeko mendilerroak eta iparraldeko kostaldeko labar gaitzek babesten dute alderdi hura iparraldeko ekaitz bortitzetatik. Uhartearen plano orokorra ipar-mendebaletik hego-ekialdera okerturiko gainalde bat da; itsasketa ia ezinezkoa da iparraldean, kostaldea labartsua eta izugarria delako, *escarpada y horrorosa, sin abrigo ni resguardo* (Miguel de Vargas), eta erraza eta segurua da, aldiz, eguerdialdean.

Haize erauntsi eta laztasun horiek gorabehera, Mallorca, arrazoiz Urrezko Uhartearen deitua antzina, izugarri emankorra da, eta kalitatez bikainak dira bertako gaiak. Garia hain da garbia eta ederra, non hango biztanleek esportatu egi-

ten duten, eta Bartzelonan gari hura soilik erabil-
tzen dute *pan de Mallorca* deritzon opil mota bat
—zuria eta fina— egiteko. Mallorcarrek gari
zakar eta merkeagoa ekartzen dute Galiziatik
eta Bizkaitik, beraiek elikatzeko; horregatik, ogi
nazkagarria jaten da garia bikain eta oparo haz-
ten den herrialdean. Nik ez dakit, dena den,
espekulazio horrekin onura handirik ateratzen
ote duten.

Erdialdeko gure probintzietan —nekazaritza
han dago atzeratuen—, laborarien ohiturak
haien burugogortasunaren eta ezjakintasunaren
seinale dira soilik. Are gehiago Mallorcan, non
arreta handia jartzen badute ere, nekazaritza
hastapenetan den oraindik. Lurra han adinako
patxadaz eta egonarriz lantzen dutenik ez dut
inon ikusi. Makina arruntenak ere ez dituzte eza-
gutzen; gizonaren besoek —beso arras meheak
eta ahulak gureen aldean— egiten dute lan guz-
tia, ezin mantsoago ordea. Egun erdia behar
dute gurean bi orduetan irauliko litzatekeena
baino lur gutxiago iraultzeko, eta bost edo sei
gizon sendoren beharra dute gure zamaketari

ahulenak bizkarrean lasai asko jasoko lukeen zama batetik bestera eramateko.

Baina nagikeria hori gorabehera, Mallorcan lur guztia dago landua, eta itxuraz, ondo landua ere. Uhartetar hauek ez omen dute miseria zer den ezagutzen, hala esaten dute behintzat; hala ere, naturaren altxor guztiez inguratuta, eta zerurik ederrenaren azpian, haien bizitza gure nekazariena baino askoz ere latzagoa, zuhurragoa eta tristeagoa da.

Bidaiariek hegoaldeko herrien zorionari buruz aritzeko ohitura dute; herri horien irudia eta janzkera bitxiak ikusten dituzte igandetan, eguzki argitan, eta haien ideia gabezia eta aurreikuspenik eza landako bizitzaren lasaitasunaren erakusgarri gorentzat hartzen dituzte. Neronek ere askotan egindako akatsa da hori, baina oker horretatik osatua naiz, Mallorca ezagutu dudantetik, batez ere.

Ez dago munduan nekazari hura baino gauza triste eta pobreagorik, beti erreguan, kantuan, lanean, sekula ez gogoetan. Haren otoitza inongo zentzurik ez duen lelo ergel bat besterik ez da; haren lana giharren ariketa hutsa, ahalegi-

nak eginda ere adimenak erraztu ezin duen ari-keta gainera, eta haren kantua, berriz, oharka-bean atsekabetzen duen malenkonia hitsaren adierazpena, zeinaren poesiak hunkitu egiten baikaitu, bera konturatu gabe. Noizean behin lozorrotik esnatu eta dantzara bultzatzen duen harrokeria horregatik ez balitz, lotan emango lituzke jai egunak.

Baina neure buruari jarritako mugetatik irte-ten ari naiz. Ahaztu egin dut, artikulu geografiko-ak, ohiturak agintzen duenez, produkzio eta merkataritza ekonomia aipatu behar dituela ezer baino lehen, eta Gizakiaz, laboreen eta abereen ondoren aritu behar duela, nonbait aritzekotan ere.

Begiratu ditudan geografia deskribatzaile guztietan hemen berridatziko dudan azalpen labur hau —eta horrek ez du esan nahi pasarte horren egia ukatuko duen ezer esango ez dudani— aurkitu izan dut *Balearrak* sarreran: «Uhartetar hauek *oso adeitsuak* dira (gauza jakina da uharte guztietan gizakiak bi kategoriatan banatzen direla: antropofagoak batetik, eta oso adeitsuak direnak, bestetik). Jende gozoa da, abegi-

tsua; ez dute krimenik egiten ia, eta lapurreta zer den ez dakite». Baina geroago arituko naiz berriro gai honetaz.

Ezer baino lehen, ordea, aipa dezagun haien produkzioa; izan ere, uste dut Ganbaran zenbait gauza esan direla azkenaldian —gauza zuhurtzia gabeak esan ere— frantsesek Mallorca okupatzeko omen duten asmoaz, eta susmoa daukat idatzi hau gure diputaturen baten eskuetara iristen bada, kezka handiagoa izango duela hango produkzioaz, mallorcarren egoera intelektualari buruzko nire gogoeta filosofikoez baino.

Mallorcako lurraren emankortasuna miresgarria dela diot, beraz, eta lurgintza eraginkor eta burutsuago batekin hamar halakotu egingo litzateke gainera. Kanpora saltzen diren gai nagusiak almendra, laranja eta zerria dira. Oi, hesperidio landare ederrak, dragoi zantar horiek dituzue zaindari! Zuen oroitzapena eta mallorcarrek zuen lore urrintsuak eta zuen urrezko sagarrak baino ardura eta harrotasun handiagoz zaintzen dituzten zerri doilor horien oroitzapena lotu behar hau ez da nire errua! Azken batean, zuek lantzen zaituzten mallorcarra ez da nire idatzi

hau irakurriko duen diputatua baino poetikoa-
goa.

Itzul nadin, beraz, zerrietara. Animalia horiek dira, irakurle maitea, Lurreko animalia ederrenak. Miguel Vargas doktoreak zerrikume baten deskripzioa egin zuen harenganako mirespen xaloena adieraziz: urte eta erdi zituenerako hogeita lau arroako pisua, seiehun librakoa, zuen zerri hark. Garai hartan zerri aziendak ez zuen Mallorcan gaur egun duen ospea. *Asentista* edo hornitzaileen harrapakariak oztopatu egiten zuen abere merkataritza, Espainiako gobernuak haien esku uzten baitzuen, hau da, haiei saltzen baitzien, hornikuntzaren zeregina. Espekulatzailer haiek abereak esportatzea galarazten zuten, beren botere neurrigabearen izenean, eta mugarik gabe inportatzeko eskubidea hartzen zuten berentzat.

Lukurreria haren ondorioz, bertan behera utzi zuten nekazariak abere hazkuntza. Haragia merke saltzen zen, eta kanpo merkataritza debekatuta zegoenez, hondoa jo edo abeltzaintza betiko utzi beste erremediorik ez zuten izan nekazariak. Berehala galdu zen, horrenbestez,

abeltzaintza. Aipatu dudan historialari horrek atsekabez gogoratzen du Mallorca arabiarren mende egon zeneko garaia, gaur egun lautada guztian dauden baino behi emankor eta zezen bikain gehiago baitzegoen garai hartan Artà mendian bakarrik.

Baina ez zen hondamen hori izan herri hura bere berezko aberastasunez gabetu zuen hondamen bakarra. Idazle hark berak kontatzen du munduko zuhaitz ederrenak zituztela garai batean hango mendietan, Torellan eta Galatzón batez ere. Bazen berrogeita bi oineko bira eta hamalauko diametroa zuen olibondorik; baina, Aljeriaren kontrako espainiarren espedizioa zela eta, ontzigileek suntsitu egin zituzten baso oparo haiek, handik atera baitzuten ontzidi oso bat — kanoi ontzi txikiez osatua— eraikitzeko behar zuten zura. Baso jabeei garai hartan egindako erasoak eta emandako ordain zekenak zirela eta, mallorcarrek beren basoak bota zituzten, ugaltzeko partez. Gaur egun, landaredia hain da sarria eta ederra, non bidaiaria ez den iragana-rekin atsekabetzen; baina lehen bezala orain ere, *gehiegikeriak* agintzen du Mallorcan, eta

baita Espainia osoan ere. Bidaiariak ez du, hala ere, intziririk entzuten inoiz; izan ere, erregimen bidegabe bat hasten denean ahula isildu egiten da beldurrez, eta behin kaltea egina delarik, isilik jarraitzen du ohituraz.

Asentisten tiranokeria desagertu den arren, abeltzaintza ez da hondamenditik irten, eta ez da irtengo gainera, esportazio eskubidea zerrien salerosketara mugatua den bitartean. Oso idi eta behi gutxi ikusten dira lautadan, bat bera ere ez mendian. Haragia giharra eta zaila da. Ardiak arraza bikainekoak dira, baina ez dituzte behar bezala hazten eta gobernatzen; ahuntzak, berriz, afrikar arrazakoak dira, eta ez dute gurek ematen duten esnearen hamarrena ere ematen.

Lurrak ongarrri faltan daude, eta mallorcarrek beren nekazaritza moldea goresten duten arren, ongarrri gisa erabiltzen duten alga mota hori ahulegia da nire ustez, eta zero oparoa izanik ere, lurrak ez du behar lukeen adina ematen. Arretaz behatu dut hemengo gari ederra, zeina ez duten bertakoek jaten, horretarako duin ez direla uste baitute; eta haren berdina da erdialdeko gure

probintzietan lantzen dugun garia, gure nekazariek gari zuria edo Espainiako garia esaten diotena; hemen bezain ederra da gurean ere, oso bestelako klima dugun arren. Mallorcako gariak hobea izan beharko luke, ordea, negu gogorrei eta udaberri gorabeheratsuei aurre egin behar baitie gureak. Dena dela, gure nekazaritza ere oso zakarra da, eta alde horretatik, badugu zer ikasia; baina nekazari frantsesak baditu bi dohain, energia eta iraunkortasuna, mallorcarrak asaldura nahasitzat hartuko lituzkeenak.

Pikuak, olibak, almendrak eta laranjak ugari biltzen dira Mallorcan; baina, uhartearen barnealdean bide aski ez dagoenez, horien salerosketa ez da behar lukeena bezain jarduera zabala eta bizia. Alorrean bertan, bostehun laranja saltzen dira 3 bat liberatan; baina, beste hainbeste balio du halako zama handia uhartearen erditik kostaldera mando gainean eramateak. Hori dela eta, gero eta laranjondo gutxiago aldatzen da barnealdean. Sóllerko ibarrean eta gure ontzi txikiak zamatzen diren golkoen inguruko lurretan bakarrik hazten dira zuhaitz hauek oparo. Hala ere, nonahi lora daitezke, eta Valldemossa-

ko gure mendian, uharteko eskualde hotzenetakoa izan arren, limoi eta laranja bikainak biltzen genituen, Sóllerkoak baino berantagoak baziren ere. Granja inguruan —eskualde menditsua hau ere— buru baten neurriko limoiak bildu izan ditugu. Irudipena daukat Mallorca uhartea nahikoa litzatekeela Frantzia osoa fruitu zoragarri horiez hornitzeko, Hyeres eta Genoako kostaldean biltzen ditugun laranja zakarren prezio berean gainera. Baina fruitu hauen salerosketa ere, Mallorcan estimu handitan duten arren, gainerako guztia bezala, bazter utzi dute zabarkeriaz.

Gauza bera esan daiteke olibondoei buruz; munduan diren olibondo ederrenak dira, eta uzta izugarri ugariak ematen dituzte, mallorcarrek, arabiar ohiturei esker, oso ondo lantzen baitituzte. Zoritxarrez, ez dakite guri nazka emango ligukeen olio mingots eta garratz bat besterik egiten, eta ezingo dute Espainiara beste inora esportatu ugari; olio horren usaina nabarmena da han. Baina Espainia ere oso aberatsa da olibondoetan, eta Mallorcak olio horituko badu, oso prezio merkean izan beharko du.

Frantzian erruz kontsumitzen dugu oliba olio, baina zoritxarrez oso garesti daukagu. Mallorcan gure langintza ezagutuko balute eta Mallorcak bide egokiak edukiko balitu, alegia merkataritza nabigazioa behar bezala antolatuta balego alor horretan, orain ordaintzen duguna baino askoz ere merkeago edukiko genuke oliba olio, eta purua eta ugari gainera, negurik gordina izanda ere. Badakit Frantzian bakearen olibondoa lantzen duten industria gizonak nahiago dutela gure dendariak koltza eta krabelin oliotan itotzen eta ondoren eginsariz saltzen diguten isurkari preziatu horren tona batzuk urre prezioan saldu; baina zentzugabekeria handia litzateke gai hori lortzeko klimari aurre egiten tematzea, hogeita lau orduko bidea eginez olio hobea eta merkeagoa eskura dezakegula jakinik.

Ez daitezela gehiegi beldurtu gure hornitzaileak; mallorcarrari, eta uste dut espainiar guztiei oro har, hitz emango bagenio herrialde horretan hornituko ginatekeela olio, eta beren aberastarsuna bikoiztuko genukeela, ez lituzkete hargatik beren ohiturak aldatuko. Atzerritik, eta batez ere Frantziatik, datozen hobekuntzak hainbestearaino

baztertzen dituzte, ezen zalantza baitut diruagatik ere (gainerakoan gutxitan erdeinatu ohi duten arren dirua) ez luketen onartuko gurasoengandik jasotako ohiturak aldatzea.

III. kapitulua

Mallorcan ez dakitenez idiak nola gizendu, artilea nola erabili, behiak nola jetzi (mallorcarrek industriari adinako gorrotoa diete esnari eta gurinari); ez dakitenez beraiek jateko adina gari ereiten; ez dutenez masustondoak lantzen eta seda biltzen; galdua dutenez zurgintza, garai batean oparoa eta gaur egun erabat ahaztua; ez dutenez zaldirik (Espainiak, amatasunaren ize-nean, bere gudarosterako hartzen ditu Mallorcarako moxal guztiak, eta horregatik mallorcar bake-tsua ez da erreinuaren zaldieria elikatzeko lanean aritzeko bezain inozoa); ez dutenez bide bakar bat ere edukitzeko beharrik ikusten, erabili ahal izango den bide zidor bat bera ere edukitzeko uharte osoan, eta txikikeriez kezkatzeko denborarik ez duen gobernu baten apetaren mende dagoenez esportazio eskubidea, mallorcarrak soseguan bizi izan dira eta beren zeregin bakarra izan da arrosarioa errezatzea eta galtzak konpontzea, miserian eta harrokerian nagusi zuten On Kixote berarenak baino urratuagoak

baitzitzuten, harik eta zerria etorri den arte haiek salbatzera. Behin lau hankako hori esportatzeko baimena eman denean hasi da garai berria, salbazioaren garaia.

Musulmanek beren historian elefantearen aroa duten bezala, mallorcarrek zerriaren aroa esango diote mende honi ondorengo mendeetan.

Gaur egun ez dago ez olibarik ez zalge lekarik lurrian barreiatu; kaktusaren pikua ez dira, jadanik, umeentzako jostailu, eta babak eta patatak aurrezten ondo ikasi dute etxekoandreak. Zerriarekin ez da ezer alferrik galtzen, den-dena baliatzen baitu; jalekeria oparoenaren adibide argia da zerria, eta herrialdeei eman dakiekeen gustu eta ohitura soilen eredu. Horrez gainera, gizonari sekula orain arte eman ez dizkioten eskubide eta abantailak ditu zerriak Mallorcan. Gelak handitu, haizatu, egin dira; lurrian hondatzen ziren fruituak bildu, sailkatu eta kontserbatu sartu dira, eta lurrinezko nabigazioa, ordu arte alferrikako eta zentzugabetzat hartua, ezarri da uhartetik kontinentera.

Beraz, zerriari esker bisitatu ahal izan dut nik Mallorca uhartea; orain dela hiru urte bururatu izan balitzait hara joatea, bertan behera utzi behar izango nukeen asmo hura, luzea eta arriskutsua baitzen bidaia gaboteria ontzietan. Baina, zerriaren esportazioa hasi zen egunean bertan hasi zen zibilizazioa uhartean sartzen.

Steamer txiki polit bat erosi dute Ingalaterran, paraje haietako haizeei aurre egiteko txiki-gia, oso gogor jotzen baitu haizeak han, baina astean behin berrehun zerri eta, zama erantsi gisa, zenbait bidaiari garraiatzen dituen Bartzelonara, eguraldia bare denean.

Hunkigarria da nolako begirunez eta samurtasunaz tratatzen dituzten jaun horiek ontzian (ez naiz bidaiariez ari), eta zein gozoki uzten dituzten lehorrean. *Steamer*-eko kapitaina oso gizon maitagarria da; abere bikain horiekin bizitzearen eta aritzearen poderioz, haien oihuak bereganatu ditu, eta baita haien ganora pixkaren bat ere. Bidaiariren bat zerriek egiten duten zarataz kexu bada, kapitainak erantzuten dio zarata hori urre txanponek erakusmahaietan atzera eta aurrera egitean ateratzen duten hotsa

dela. Emakumeren batek, itxurakeria hutsez, ontziko kiratsa aipatzen badu, bere senarrak hartantxe erantzungo dio diruak ez duela kiratsik, eta zerririk ezean ez lukeela izango ez sedazko soinekorik, ez Frantziako kapelurik, ezta Bartzelonako mantelinarik ere. Eta inor zorabiatzen bada, ez dadila saiatu eskifaiari laguntza eskatzen; izan ere, zerriek ere izaten dituzte zorabioak, eta kosta ahala kosta gainditu beharreko ahultasun, makalaldi eta bizitzarekiko higuina ere ematen die gainera ondoez horrek. Orduan, erruki eta begikotasun guztiak alde batera utzirik bere bezero kuttunen ongizatea begiratzeko, kapitainak berak zigor bat harturik haiengana jauzi egiten du, eta haren atzetik marinelek eta ontzi mutilek, eskura duten edozer harturik, dela burdinazko barra bat, dela soka muturra: isil-isilik etzanda dagoen zerri taldea zigortzen dute istant batean, aita semea nola, eta behartu egiten dituzte jaikitza, mugitza, eta emozio bortitz horren bidez ontziaren kulunkaren eragin zorigaiztokoa gainditzera.

Mallorcatik Bartzelonara itzuli ginenean, martxoan, itotzeko moduko beroa zegoen; eta hala

ere, ezin jarri izan genituen oinak zubian. Zerri petralen batek hanketan kosk egiteko arriskua gure gain hartu nahi izan bagenu ere, kapitainak ez zigukeen baimenik emango, dudarik gabe, gu kanpora atera eta haiek nahigabetzeko. Lehengo orduetan oso lasai egon ziren; baina, gauaren erdian, pilotoa ohartu zen oso lo tristea zutela eta malenkonia beltzak hartuta bezala zedula. Orduan zigorraz jo zituzten, eta aldian-aldian, ordu laudenero, garrasi eta orro artean esnatzen ginen; hain ziren garraisiak eta orroak beldurgarriak —zigortutako zerrien intziriak eta amorruzko oihuak batetik, eta kapitainak bere mendekoei oihuka esaten zizkien kemen hitzak eta mendekoei grinak ateratzen zizkien biraoak, bestetik—, ezen behin baino gehiagotan uste izan genuen zerri taldea eskifaia irensten ari zela.

Aingura bota genuenean, konpainia bitxi harengandik aldentzeko irrikitan geunden, eta, aitortu behar dut, uhartekoena ere beste hura bezain astuna egiten zitzaidan ia; baina ez zigutzen kanpora irteteko baimenik eman harik eta zerriak lehorreratu zituzten arte. Gure gelan

itota hil izan bagina ere, inor ez zatekeen kezka-tuko, lehorreratzeko eta zorabiotik libratzeko zerriren bat gelditzen zen bitartean.

Nik ez diot beldurrik itsasoari, baina senide bat oso gaixo nuen. Eta bidaia, kiratsa eta lo eza ez ziren izan haren sofrimenduaren aringarri. Kapitainak ez zigun, ez, begiramen berezirik erakutsi; gure gaixoa gelako oherik onenean ez etzateko erregutu zigun; izan ere, espainiar ustearen arabera, gaixotasun oro da kutsagarri, eta gure gizonak ordurako erabakita zuenez gaixoa zetzan lastaira erreko zuela, nahiago zuen lastairarik txarrena izatea. Bere zerrietara bidali genuen; eta handik hamabost egunera, Frantziarako itzuleran, gure aberriko *Phénicien* lurrin ontzi apartan, frantsesen samurtasuna eta espainiarren harrera ona alderatu ahal izan genituen. *El Mallorquin* ontziko kapitainak ohea ukatu zion hil zorian zegoen bati; marseillar kapitainak, gure gaixoa ez zegoela eroso ikusirik, bere oheko lastariak kendu zituen gaixoari emateko... Gure bidai saria ordaintzean, frantsesak diru gehiegi ematen niola esan zidan; mallorcarrak bikoitza ordainarazi zidan.

Hortik ez dut nik ondorioztatzen gizakia on hutsa denik *lurbirako* bazter batean, eta gaizto hutsa denik beste bazter batean. Gaitz morala ez da, gizakiarentzat, gaitz materialaren ondorioa besterik. Sofrimenduak beldurra dakar, mesfidantza, iruzurra, borroka, alderdi guztietan. Espainiarra ezjakina eta sineskorra da; hori dela eta, kutsagarritasunean sinesten du, beldur die eritasunari eta heriotzari, ez du ez federik ezta karitaterik ere. Zekena da eta zergek itota bizi da; hortaz, diruzalea da, berekoia, maltzurra atzerritarrekin. Historian ikusten dugu handia izateko aukera izan duenetan handitasun horren jabe dela erakutsi duela; baina gizakia da, izan, eta eguneroko bizitzan, gizakiak amore eman behar duen uneetan amore ematen du berak ere.

Hori guztia azaldu beharra nuen lehenik, Mallorcan ezagutu ditudan gizakiez hitz egin aurretik; espero dut aurrerantzean ez zaidala eskatuko olibondoez, behiez eta zerriez gehiago hitz egin dezadan. Artikulu honen beraren luzera ere ez da gustu onekoa. Barkamena eskatu nahi diet mindu diren haiei, eta ganoraz ekingo diot,

orain, nire kontakizunari; izan ere, nik uste nuen aski izango nuela Laurens jaunak bere *Voyage d'art*-en egindako bideari urratsez urrats jarraitzea, baina irudipena daukat hainbat kontu gogoratuko ditudala Mallorcako bidexka lehorretara itzultzeko naizenean nire oroimenarekin.

IV. kapitulua

Baina pinturaz ezer ez badakizu —esango didate—, orduan zer *arraiotara joan zinen ontzi madarikatu hartara?* Nitaz eta nire senideez hitz eginez ahalik eta gutxien aspertu nahi nuke irakurlea; hala ere, Mallorcan ikusitakoaz ari naizela, *ni* eta *gu* aipatzea nahitaezkoa izango dut askotan; ustekabeko *subjektibotasuna* baitira *ni* eta *gu*, eta Mallorcako *objektibotasunaren* zenbait alderdi, beharbada une honetan irakurleari ezagutarazi beharrekoak, ez lirateke agerian geratuko horiek gabe. Beraz, irakurleari arren eskatzen diot nire nortasuna zera zeharo pasibotzat har dezala; nire nortasuna betaurrekotzat har dezala, eta urruneko herrietan, *esaten dutena sinestea nahiago bertara joatea baino* esaera betetzen den urruneko herrietan zer gertatzen den ikusteko erabil dezala. Arren eskatzen diot ez dezala pentsa nire gorabeherekin kezkatu nahi dudarik. Nire gorabeherak hemen azaltzeko arrazoia arrazoi filosofikoa da gehiago; eta

gai horri buruz dudan iritzia azaltzen dudanean, onartuko dit ez naizela neurekoikeriaz aritu.

Hortaz, xalo-xalo esango diot nire irakurleari zergatik joan nintzen ontzi hartan; hona hemen hitz bitan: bidaiatzeko gogoz nintzen. Eta, orain nik dut irakurleari galdera egiteko txanda: Bidaiatzen duzunean, irakurle maitea, zergatik bidaiatzen duzu? Hemendik entzuten dut nola erantzuten didazun neronek zure lekuan banengo erantzungo nukeen hori bera: bidaiatzeagatik bidaiatzen dut. Badakit bidaiatzea berez dela atsegina; baina, azken batean, zerk eramaten zaitu halako atsegin garesti, neketsu, zenbaite-tan arriskutsu, eta beti etsipenez bete horretara? Bidaiatzeko beharrak. Bada, esaidazu orduan zertan den behar hori: zergatik gaude guztiok obsesionaturik, batzuk gehiago besteak gutxia-go, eta zergatik amore ematen dugu behar horren aurrean, beti-betiko bere mendean hartu gaituela eta aseezina dela aitortu arren behin eta berriz?

Zuk erantzun nahi ez badidazu, zure orde zintzoki erantzungo dut neronek. Kontua da garai honetan inontxo ere ez gaudela ongi, eta

bidaia dela idealak (edo, hitz hori gustatzen ez bazaizu, *zerbait hobearen* sentimenduak) hartzen dituen irudi guztietan irribarretsua eta engainagarriena. Mundu ofizialean dena oker dabil: uste horren kontra daudenek ere sentitzen dute hori, uste horren aldekoek bezain sakon eta garrazkiago gainera. Hala eta guztiz ere, jainkozko itxaropenak bere bideari jarraitzen dio beti, gure bihotz pobreetara bere egintzak eramanez, zerbait hobearen sentimen horretara, idealaren bilaketara, erakartzen gaituela.

Gizarte ordenak ez gaitu gogobetetzen, ordena hori defenditzen dutenen begikotasuna ere ez du, eta zein bere kasa gabiltza hara-hona. Batzuk murgiltzen dira artean, zientzian beste batzuk, eta gehientsuenek ahal dutena egiten dute beren burua harritzeko. Guztiok bidaiatzen dugu asti eta diru apur bat dugunean; edo ihes egiten dugu hobeki esanda, kontua ez baita bidaiatzea, abiatzea baizik, ulertzen didazu? Ba ote da ahaztu beharreko oinazeren bat ez duen inor, edo askatu beharreko uztarriren bati lotuta ez dagoen inor? Inor ere ez.

Lanean buru belarri sarturik edo nagikeriak sorgorturik ez dagoenak ezin du, zinez diot, luza-roan leku berean iraun sofrimendurik eta aldaketa beharrik sentitu gabe. Zoriontsu denari (eta gaur egun, oso handia edo oso koldarra izan behar du batek zoriontsu izateko), bidaiatuz bere zorionari zerbait erantsiko diola irudituko zaio; maitaleak eta ezkon berriak Suitzarantz eta Italiarantz abiatzen dira, alferrak eta hipokondriakoak bezalaxe. Hitz batean esanda, bizkor ala ahul sentitu, den-denak hartzen ditu judu ibiltariaren sukarrak, eta urrutira abiatzen dira berehala, maitatzeko habia bila, edo hiltzeko etzaleku bila bestela.

Jainkoak ez diezadala utzi herrien joan-etorrien kontra egiten, eta ez diezadala utzi, sekula ez, polipoak belakiari nola hala gizona herriari, lurrari, etxeari lotuta irudikatzen. Baina adimenak eta moraltasunak industriarekin batera egin behar badute aurrera, burdinbidea ez zen, nire ustez, higuinak jotako herriak edo jarduera erikor batek hartutako jendea lurraren mutur bate-tik bestera eramateko sortu.

Gizadia zoriontsuagoa izango dela pentsatu nahi dut, lasaiagoa eta argiagoa izango dela alegia, bizitza bikoitzekoa edo: bizitza sedentarioa batetik, etxeko zorionerako, hiriko zereginetarako, ikasketa gogoetetarako, kontenplaziorako egokia; aktiboa bestetik, merkataritza esaten diogun salerospen lotsagarriari aurrea hartuko dion harreman zintzoaren aldekoa, arteei goiargia emateko, zientzia ikerketarako eta batez ere, ideiak zabaltzeko egokia. Hitz batean, bidaiatzearen berezko arrazoia gizakien arteko harreman, lotura eta elkartruke abegitsuaren beharra dela iruditzen zait, eta ez lukeela atsegirik egon behar zereginik ez dagoen lekuan. Eta iruditzen zait gaur alderantziz gertatzen dela, gutako gehienok misterio, bakartasun bila bidaiatzen dugula, gure hurkoen gizarteak gure barru-barruko zirrarei, zirrara gozo zein mingarriei, eragiten dien itzal moduko batek bultzaturik.

Niri dagokidanez, garai hartan sentitzen nuen atsedeen beharra asetzeko asmoz abiatu nintzen. Eraiki dugun mundu honetan ezertarako astirik ez dagoenez, berriro iruditu zitzaidan ondo bilatuz gero aurkituko nuela bakarleku isil eta urru-

nen bat, non ez bainuen txartelik idatzi, egunkaririk irakurri, eta bisitarik hartu beharko; non txabusina kendu gabe ibiliko bainintzateke; non egunak hamabi ordu izango bailituzke; non, gizarte arau guztietatik aske eta Frantzian erabat akiturik gauzkan pentsamendu higikundee-tatik urrun, urtebete edo bi urte emango bainituzke historia pixka bat ikasten, eta *gizalegez*, nire hizkuntza ikasten seme-alabekin.

Nork ez du noiz edo noiz amets egin, berekoieriaz, gauetik goizera bere egitekoak, ohiturak, ezagunak eta baita bere lagunak ere utzi, eta uharte liluragarri batera joaten dela, kezkarik, nahaspilarik, eginbeharrik eta, batez ere, egunkaririk gabe bizitzera?

Egia da kazetaritzak —gauza guztietan lehen-a eta azkena, Esopok esango zukeen bezala— gizakiari bizitza berri bat eman diola, aurrerabidez, abantailaz eta kezkaz betea. Gizadiaren ahots hori gizadiak bezpera zertan eman duen kontatzera etortzen zaigu goizero, esnatzen garenean, berdin-berdin aldarrikatuz egia handiak eta gezur izugarriak, baina gizakiaren urratsak erakutsiz beti, eta talde bizitzaren ordu guz-

tiak joaz beti; eta ez al da, bada, hori benetan gauza handia, dituen orban eta miseria guztiak gorabehera?

Baina gure pentsamendu eta gure egiteentzat ezinbestekoa badugu ere, ez al da, aldi berean, lazgarria eta nazkagarria hori guztia xehetasunez ikustea, borroka alderdi guztietara zabaldua dagoenean, eta asteak eta hilabeteak irainka eta mehatxuka igarotzea, arazo bat bera ere argitu gabe, aurrerabide txikiena ere adierazi gabe? Eta itzarote horretan, urrats guztiak zehatz-mehatz erakusten dizkigutelarik gero eta luzeagoa dirudien itzarote horretan, ez al ginateke askotan, gustura lokartuko lemazain jardun behar ez dugun beste artistok itsasontziaren sahetsetan eta ez al ginateke zenbait urtez lo geldituko, harik eta eraman gaituzten lur berria agurtzeko garaia iristen den arte?

Bai, benetan, hori egiterik bagenu, talde bizi-tzarik ez izateko eta aldi batez politikarekiko harremana eteteko modurik bagenu, harritura geldituko ginateke, itzuleran, gure absentzian izan den aurrerabidearekin. Ez zaigu halako aukerarik eman ordea; eta gertalekutik ihesi

ahantzte eta atseden leku bila gure herriak baino ibilera geldiagoa eta gurea baino izipiritu ahulagoa duen beste herri batera joaten garenean, ezin asmatuzko gaitzak sofritzen ditugu han, eta damutu egiten zaigu oraina utzi eta lehena hartu izanaz, biziak utzi eta hilak hartu izanaz.

Hara hemen laño-laño nire kontakizunaren gaia zein izango den, eta zergatik hartu dudan kontakizun hori idazteko lana, niretzat oso lan atsegina ez bada ere, nahiz eta neure iritziak ahal bezain ezkutuan gordeko nituela hitz eman dudan hasieran; baina, alferkeria hori koldarke-ria hutsa izango litzatekeela iruditzen zait orain, eta esana zuzentzen dut.

V. kapitulua

Palmara 1838ko azaroan iritsi ginen, gurean ekainean egin ohi duen moduko beroarekin. Hamabost egun lehenago atera ginen Paristik, eguraldi izugarri hotzarekin; guretzat atsegin handia izan zen neguaren lehenengo erasoak jasan ondoren etsaia atzean utzi izana. Atsegin horri izaera oso berezia eta edertasun eta bitxitasun aparteko zenbait monumentu dituen hiri bat ezagutzeak zekarrena erantsi zitzaion, gainera.

Baina berehala sortu zitzaigun bizitokia hartzeko zailtasunen kezka, eta orduan ohartu ginen Mallorca munduko herri abegitsuena eta baliabide gehien zituen izango balitz bezala azaldu ziguten espainiarren usteak, gureak bezala, erdi ustel zirela. Europako zibilizazio handietatik hain hurbileko lurralde batean egonik, ezinezkoa iruditzen zitzaigun aterpea ezin aurkiturik ibiltzea. Bidaiarientzako aterperik ez izate horrek berak ikusarazi behar zigun Mallorca zer zen munduko gainerako parajeen aldean, eta

orduantxe bertan Bartzelonara itzultzeko erabakia harrarazi behar zigun, han gutxienez bai baitago *Hotel de las Cuatro Naciones* izen hantusteko ostatu kaskar bat.

Palmara joan nahi izanez gero norbaitek gomendiotan hartu behar du bisitaria eta haren berri izan behar dute bertako hogeitahi handiki handienek, eta hainbat hilabete lehenagotik egon behar dute bisitaren jakinaren gainean, baldin eta izarpean lo egin nahi ez bada behintzat. Gure alde egin ahal izan zen gauza bakarra bi logela txiki altzaridun, edo hobeki esan, altzaririk gabeko, bilatzea izan zen, eta haiek ere zulo ziztrin batean, zeinetan atzerritarrek pozik egon behar baitute sokaz egindako ohantze bana, arbela bezain lastaira bigun eta samurra, lastozko aulki bat eta, jatekoari dagokionez, pipermina eta baratzuria ugari aurkituz gero.

Ordu bete igaro zenerako ongi konturatuta geunden harrera harekin pozez zoratzen agertzen ez baginen begi txarrez begiratuko zigutela, lotsagabeak edo milikak bagina bezala, edo asko jota, kupidaz begiratuko zigutela, eroak bagina bezala. Gizajoa Espainian edozer gauza-

rekin pozten ez dena! Ohean zomorroak eta zopan eskorpioiak aurkituz gero atsekabezko keinurik txikiena egiten duenak bere kontrako erdeinu biziena piztuko eta haserre unibertsala sorraraziko du. Hortaz, gogotik begiratu ginen ezertaz ez kexatzetik, eta, pixkana-pixkana, baliabidegabezia eta itxurazko abegi txar hura zeren ondorio ziren ohartu ginen.

Mallorcarren bizitasun eta energia urritasunaz gainera, aspaldiko denboretan Espainia astintzen ari zen gerra zibilak errotik eten zuen, garai hartan, uharteko biztanleen eta kontinentekoen arteko hartu-emana. Har zezakeen adina espainiarren gordeleku bihurtu zen Mallorca; indigenak beren etxeetan gordeta zeuden, eta gogotik begiratzen ziren ama aberrira abentura edo kolpe bila ateratzetik.

Gainerakoan, ez zegoen batere industriarik eta aduanek neurritz gairako zergak ezartzen zizkieten ongizaterako behar diren ondasun guztiei. Palma biztanle kopuru jakin bat hartzeko prestatuta dago; biztanleriak gora egin ahala, estutuz estutuz doaz, eta ez da askorik eraikitzen. Etxeetan ez da berrikuntzarik egiten. Biz-

pahiru familiaren etxeak kenduta, altzariak ez dira ia batere aldatu azkeneko berrehun urteetan. Ez dakite zer den ez modaren agintea eta ezta luxuaren eta bizitzako erosotasunen beharra ere. Axolagabekeria dute batetik, zailtasunak bestetik; eta horrelaxe gelditzen dira. Gutxien-gutxienekoa dute, soberakorik batere ez. Hitz hutsetan gelditzen da beren adeitasun guztia.

Badute esaera ospetsu bat Mallorcan, eta Espainia guztian, duten guztia eskainiz inori ezer uztetik salbuesten dituen: *Etxea eta etxe barruko guztia zure gomendio da*. Nahikoa da koadro bat begiratzea, oihal bat ukitzea, aulki bat altxatzea, *Es a la disposición de usted* esango dute maitagarriki. Baina, kontuz, ez ezazu inola ere onartu orratz bat ere; lotsagabekeria bat egingo zenuke.

Palmara iritsi eta berehala horrelako arinkeria izugarri bat egin nuen nik ere, eta uste dut harrezkero sekula ez dudala *** markesaren barkamenik izango. Palmatar *lehoi* gazte haren gomendiotan nindoan eta paseatzera irteteko haren zalgurdia hartzeko moduan nengoela uste izan nuen. Halako adeitasunaz eskaini zidaten!

Baina hurrengo egunean markesak bidalitako txartela ikusita, berehala jabetu nintzen kome-nientzia guztiak urratu nituela, eta berehala itzu-li nuen zalgurdia, erabili gabe.

Dena dela, aurkitu nituen arau honen sal-buespenak ere, baina bidaiatzeko ohitura zuten eta, mundua ongi ezagutzen zutelarik, herri guz-tietakoak ziren jendeen artean bakarrik. Beste batzuek beren bihozberatasunak bultzatuta laguntzen ziguten, baina haietako bakar batek ere (esan egin behar da hau, aduanak eta indus-tria ezak hura bezain herri aberats bati zenbate-rainoko hondamena ekarri dioten erakusteko) ezin izango zigun bere etxean txoko bat utzi sekulako gorabehera eta gabetze larririk jasan gabe, eta horrenbestez, lotsagabe jokatuko genukeen halako eskaintzarik onartuz gero.

Etxe bila ibili ginenean hasi ginen bertakoen ezintasunaz jabetzen. Ezin zen, hiri guztian, bizi-tzeko pisu egoki bakar bat ere aurkitu.

Palmako pisuek ez dute lau horma biluzi bes-terik, ez dute ez ate eta ez leiho. Etxe burges gehienetan ez dago beiraterik; eta neguan hain beharrezko izan ohi den erosotasun hori nahi iza-

nez gero, ate-uztarriak eskatu behar izaten dira lehenik. Horrenbestez, etxe maizter bakoitzak, etxe aldaketa egiten duenean (eta ez dute etxe aldaketarik sarritan egiten), leihoak, sarrailak eta are ate erroak ere eramaten ditu. Haren ondorengo maizterrak, beraz, horiek guztiak jarri behar izaten ditu, baldin eta, Palman askok egin ohi duen bezala, etxe-zabalik bizi nahi ez badu behintzat.

Hori bai, sei hilabete behar dira gutxienez, ez bakarrik atea eta leihoak egiteko, baizik eta baita oheak, mahaiak eta aulkiak egiteko ere, diren altzari soil eta primitiboenak direla ere. Oso langile gutxi daude, ez dute bizkor lan egiten eta lanabes eta lehengai faltan daude. Beti dago arrazoiren bat mallorcarra presaka ez ibiltzeko. Hain da luzea bizitza! Frantsesa izan behar da, hau da, aldartetsua eta eroa, gauza bat berehala egin dezaten nahi izateko. Eta sei hilabete zain egon ondoren, zergatik ez egon beste seitan? Eta herriarekin gustora ez bazaudete, zergatik gelditu han? Zure beharra al dago hemen? Ongi asko moldatzen ziren bestela ere. Zer uste duzu, hona etorri eta dena hankaz gora

Jarriko duzuela? Ez, ez! Ezta pentsatu ere! Guk, aizu, nahi duzuna esan dezazun uzten dizugu, baina gero nahi duguna egiten dugu. —Baina, orduan, ez al dago zer alokaturik? —Alokatu? Zer da hori baina? Altzariak alokatu? Soberan al ditugu, ba, alokairuan uzteko? —Ba, bestela, ez al dago batere salgai? —Salgai? Altzariak eginda behar genituzke horretarako. Nork du altzariak aldeztetik egiteko astirik? Altzariak nahi badituzue, eska itzazue Frantziara, denetik omen duzue han! —Baina Frantziatik edozer gauza ekar dezaten sei hilabete behar dira, gutxienez, eta eskubideak ordaindu behar dira gainera. Hortaz, hona etortzeko ergelkeria egiten duenak hemendik alde egitea du bere hutsa konpontzeko modu bakarra? —Horixe da nire aholkua. Hori, edo pazientzia hartzea, bestela, pazientzia handia hartzea; *mucha calma*, horixe da mallorcarren gizalegea.

Aholku hura betetzekotan ginen, baina landetxe bat alokairuan uzteko mesede kaskarra egin zitzaigun orduantxe, borondate onez seguruenik.

Burges aberats baten landetxea zen; guretzat modu onean, bertakoentzat aski garesti (hilean ehun bat libera), utzi zigun, bere altzari eta guzti. Bertako opor etxe guztiak bezala jantzita zegoen hura ere: ohe sareak edo egurrezko oheak, berdez pintatuak, batzuk bi euskarriren gainean jarritako bi ohol eta lastaira mehe batek osatuak; lezkazko aulkiak, marrusketaz leundu gabeko mahaiak; hormak biluzik, ongi kareztatuta, eta, luxuzko osagai gisa, leiho beiradunak ia logela guztietan; azkenik, *salon* deritzon gelan, koadroak balira bezala jarrita, lau tximinia burdin itsusi, gure herrixketako ostatu miserableenetakoen modukoak, gure nagusi Gomez jaunak, inozo-inozo, bere jauregiko hormak apaintzeko kontu handiz marko batean sarrarazi zituenak. Gainerakoan, etxe handia zen, ongi egurastua (gehiegi, aukeran), banaketa egokia zuen eta oso toki alaian zegoen, mazela malda-biribil eta emankorrekiko mendien magalean, haran aberats baten hondoan; harana Palmako harresi horixketaraino iristen zen, hango katedraltzar izugarriraino eta itsaso distiratsuko odaiertzaraino.

Bakarleku hartako lehen egunak paseera eta olgeta gozoan eman genituen, klima zoragarri batek eta izadi liluragarri eta guretzat ezezagun batek lagunduta.

Sekula ez naiz nire herritik oso urrun ibili, nahiz eta bizitzan denbora luzea eman dudan bidez bide. Lehen aldia zen, beraz, gure latitude epeletakoen hain landaredi eta lurralde desberdinak ikusten nituena. Italiara joan nintzenean Toscanako hondartzetan lehorreratu nintzen, eta lurralde haietaz neure baitan sortu nuen irudiak galarazi egin zidan haien edertasun bukoliko eta grazia atsegingarriaz gozatzea. Arno ibaiaren ertzean nengoela, Indreren ertzean nintzela uste izan nuen, eta ezerekin harritu edo hunkitu gabe joan nintzen Veneziaraino. Mallorcan, aldiz, ezin izan nuen beste inongo paraje ezagunetikiko konparaziorik egin. Gizonak, etxeak, landareak eta bide bazterreko hartxintzar txikienak ere bereziak ziren han. Nire seme-alabak hain zeuden harrituta, ezen denetik bildumatzen zuten, eta itxituren inguruko ezpondetan jartzen diren kuartzozko eta kolore guztietako zainekiko marmolezko lauza lehorrez bete nahi zituzten gure

kutxak. Horregatik nekazariak, adar iharrak ere biltzen genituela ikusirik, botikariotzat hartzen gintuzten batzuek, edo inozo petoak bagina bezala begiratzen ziguten besteek.

VI. kapitulua

Uharteak ikuspegi desberdin ugari ditu, mundu primitiboaren ondorengo kataklismoek irauli eta oinazetutako lurraren etengabeko mugimenduaren ondorioz sortuak. Garai hartan gu bizi ginen alderdian —*Establiments* zeritzon—, leku elkarren oso desberdinak zeuden legoa gutxiko ikusmuga batean.

Gure inguruan, lur landu guztiak lur emankorreko maldetan zeuden, mendixka hauen inguruan hala-hola eratutako maila zabaletan antolatuta. Lurra mailetan lantzeko era horrek, euri jasa handien eta erreken bat-bateko uholdeen arrisku etengabearen diren uharteko bazter guztietan lurra lantzeko erabiltzen duten molde horrek, mesede egiten die zuhaitzei, eta ondo zaindutako baratze baten itxura ematen die landei.

Eskuinean malda txikiko muino batzuk zeuden, oinean belardiak zituzten, eta pinuz estalitako mendiak ikusten ziren haien gainean. Mendien oinetan uhar txiki bat isurtzen zen neguan

eta udako ekaitzetan; gu iritsi ginenean hartxintzarrez betetako uhaitz bat besterik ez zen ikusten han. Baina harri haiek estaltzen zituen goroldio ederrak, hezetasunak berdaturiko zubi txikiak —ur emariaren gogortasunak pitzatuak eta sahats eta ezkien adar zintzilikarien artean erdi ezkutatuak—, ibai gainera etzanik ertz batetik besterainoko hostail sehaska osatzen zuten zuhaitz lerdin eta adartsu horien bilbeak, ihi eta mirtoen artetik hotsik atera gabe isurtzen zen ur negar meheak, eta beti, haur, emakume edo ahuntz talderen batek, mehargune misteriotsuetan makurturik, horrek guztiak pinturarako gune liluragarri bihurtzen zuen paraje hura. Egunero joaten ginen uberkara ibilalditxo bat egitera, eta *Poussinena* esaten genion txoko hari, izan ere, maisu handi hark hain maite zituen lekuak gogorazten baitzizkigun izadi libre, dotore eta harro hark, bere malenkoniarekin.

Gure etxetik ehunka urratsera adar askotan banatzen zen uhaitza, eta haren ibilbidea lautandan galtzen zela zirudien. Olibondoek eta zalgeek elkarren kontra estutzen zituzten beren

adarrak lur landuaren gainean, eta baso itxura ematen zieten landa lur haiei.

Baso bazter hura inguratzen zuten muino ugarietan txabola arranditsuak zeuden, txabola arranditsu tamainaz nanoak. Ezin jakin daiteke zenbat etxalde, aterpe, ukuilu, larrain eta baratzte izan ditzakeen *pagès* batek (nekazari lur jabea) lur golde batean pilatuta, eta ezin da jakin, halaber, jaiotzetiko zein nahierak agintzen dion, oharkabean, antolamendu apetatsu hori. Etxetxoak bi solairu izaten ditu eta teilatu laua; teilatuaren hegal luzatuak florentziar teilatu bateko almena sail baten modura itzal ematen dio galeria oso ireki bati. Teilatuaren buru simetrikoak dotoretasun eta sendotasun itxura ematen die eraikuntza ahul eta pobreenei ere, eta galeriaren irekiune guztietatik zintzilik haizetan lehortzen jarritako artaburu handiek zerrenda sarri bat osatzen dute, orain tarte gorria hurrena anbar horia, itxura ezin aberats eta panpoxagoa ematen dietela horrela. Etxetxoaren inguruan kaktus edo indipikondoeko hesi bat izaten da; haien adar zapal bitxiak harresi bat osatzen dute elkarri loturik eta haize hotzetik babesten dituz-

te ardiak gordetzeko erabiltzen diren alga eta kanaberazko babesleku kaskarrak. Nekazari hauek elkarri lapurretarik egiten ez dietenez gero, ez dute era horretako hesi bat besterik izaten beren jabetza ixteko. Arbendol eta laranjondo sail sarriak egoten dira baratze inguruan, eta baratzean piperra eta tomatea beste barazkirik lantzen ez den arren, kolore zoragarria du multzo guztiak; askotan, bizitoki horrek osatzen duen koadro eder horri buru emanez bezala, palmondo batek bere eguzkitako xarmanta zabal-tzen du erdi-erdian, edo alde baterantz makurtzen da, airoski, motots eder baten antzera.

Alderdi hau uharteko oparoenetako bat da, eta Grasset de Sain Sauveur jaunak bere *Voyage aux îles Baléares* liburuan ematen dituen arrazoiak baieztatu egiten dute nik Mallorcako lur landuen urritasunaz lehen esan dudana. Inperio-ko funtzionario horrek 1807an Mallorcako *pagès*-en geldotasunaz eta ezjakintasunaz egin zituen oharrek jarrera horren arrazoiak bilatzera bultzatu zuten. Eta bi arrazoi nagusi aurkitu zituen.

Lehenengo arrazoa konbentu asko izatea da, biztanleriaren parte handi bat hartzen baitzuten

komentuek, eta bestela ere aski murrizta zen biztanleria. Eragozpen hori Mendizabal jaunaren agindu zorrotzari esker desagertu egin zen, ordea, eta Mallorcako elizkoiek ez diote inoiz barkatuko hori.

Bigarren arrazoia morrontzarako duten jaiera itsua da; jaiera horrek atxikitzen ditu, dozenaka, aberats eta nobleen zerbitzuan. Gehiegikeria horrek indar betean dirau oraindik ere. Mallorcan aristokrata orok du bere irabaziekin doi ordain dezakeen mirabe talde handi bat, nahiz eta horrek ez dion batere erosotasunik ematen; izan ere, ez dago ohorezko zerbitzari moduko horiek ematen dutena baino zerbitzu kaxkarra-gorik. Batek bere buruari galdetzen dionean zertan gastatzen ote dituen Mallorcako aberats batek bere irabaziak ez luxurik ez tentaziorik ez dagoen herri batean, ez du erantzunik aurkituko haren etxea ikusiz besterik, bazter guztiak sexu bateko zein besteko alfer zikinez beteta nola dauden: eraikinaren hegal bat hartzen dute, horretarako propio egina, eta jaunaren zerbitzuan urtebete igarotzen duteneko, ostatua, jantzia eta jatekoa edukitzeko hil arteko eskubidea

lortzen dute. Zerbitzari lana utzi nahi dutenek badute horretarako aukera, zenbait onurari uko eginez gero; baina goizero lankide ohiekin txokolatea hartzera joateko bidea ematen die oraindik ohiturak, eta baita, Sanchok Camachoren etxean bezala, etxeko jan-edan guztietan parte hartze-ko ere.

Hasieran, ohitura horiek onginahizko ohiturak ematen dute, eta jaun eta lekaio arteko harreman horretan nagusi den izaera errepublikazalea gorestekeo tentaldia etortzen zaio bati; baina berehala ikusten da antzinako Erromakoaren moduko errepublikazaletasuna dela hura, eta lekaio horiek alferkeriaz edo miseriaz beren jaun-en harrokeriari loturiko eskupekoak baino ez direla. Mallorcan gehiegikeria handia da hamabost zerbitzari izatea, era horretako etxeak gobernatzeko aski bailirateke bi. Eta ikusirik soro handiak larre utzi direla, industria bertan behera utzia eta aurrerapenaren ideia oro zabarkeriak eta utzikeriak galarazita, batek ez daki zein den gutxiesgarriagoa: nagusia, lagun hurkoaren morala makurtzera behartzen duelako eta, horrela, makurtze hori betikotzen duelako, ala

zerbitzaria, lana baino nahiago duelako olgeta lotsagarria, nahiz eta lanak emango liokeen giza duintasunari dagokion burujabetasuna.

Dena dela, gastuen aurrekontua igotzen ari zela eta errentak murrizten ari zirela ikusita, mallorcar lurjabe aberats batzuek beren maizterren utzikeriari eta langileen beharrei konponbidea ematea erabaki zuten. Lur batzuk saldu zizkieten nekazariei, hil arteko sari baten truke; eta Grasset de Sain-Sauveur jaunak egiaztatu zenez, lurra benetan narotu nahi zuten gizonen esku koponbide hori saiatu zen jabetza guztietan hain etekin handiak eman zituen lurrak, itxuraz antzutasunak joak, ezen urte gutxiren buruan ase ziren salerosleak, bai batzuk eta bai besteak.

Grasset jaunak egindako iragarpenak guztiz bete dira, eta gaur egun Establiments-eko eskualdea, besteak beste, baratze handi bat da; gora egin du biztanleriak, hainbat etxe eraiki dira muino gainetan, eta nekazariak nolabaiteko erosotasuna iritsi dute, eta oraindik jakintsu egin ez baditu ere, lanerako gaitasun handiagoa, behintzat, eman die erosotasun horrek. Urte asko beharko dira mallorcarra langile bizkorra

izan dadin; eta guk bezala, norberaren irabazien garratzasunaren aldi mingarria igaro behar baldin badu gizatasunaren helburua hori ere ez dela konturatzeko, utz dezagun bere gitarrarekin eta bere arrosarioarekin denbora-pasa. Baina, zalan-tzarik gabe, herri gazte horiek gurea baino etorkizun hobea izango dute zain; benetako zibilizazioa irakatsiko diegu egunen batean, beraiengatik egin dugun guztia aurpegira bota gabe. Ez dira maila gorena iristeko gaitasunaren sentimenduak gurera ekarri dituen iraultza ekaitzei aurre egiteko bezain helduak. Urrats handiak eman ditugu bakar-bakarrik, mundu guztiak baztertu, lotsagarri utzi eta esetsi gaituen arren, eta gure borroka handien harrabotsak ez ditu beren lozorrotik esnatu gure kanoien helmenera Mediterraneoaren magalean lo dauden herri txiki horiek. Egunen batean benetako askatasunezko bataioa emango diegu, eta oturuntzan eseriko dira, hamabigarren orduko langileak bezala. Aurki dezagun gure gizarte etorkizunaren hitza, bete ditzagun gure amets gorenak; eta, inguruan ditugun herriak poliki-poliki gure iraultzaren elizan sartu ahala, gurekin bat egingo dute ahul-

tasunak herri amaordeen harrapakin uzten dituen uhartetar zorigaiztoko horiek.

Europaren aitzindari, gizaki guztientzat berdintasuna eta herri guztientzat burujabetasuna aldarrikatuko dugun eguna noiz iritsiko zain, indartsuenaren legea guduan, edo maltzuraren legea diplomaziaren jokoan, dira munduan agintari; jendearen eskubidea hitz hutsa besterik ez da, eta irabazleak irenstea da herri bakartu eta urritu guztien zoria,

Trantsilvaniarrarena, turkiarrarena edo hungariarrarena adibidez. Beti hala izan beharko balu, ez nuke nahi ez Espainia, ez Ingalaterra, ezta Frantzia ere izaterik Mallorcaren zaindari, eta ez nuke izango haren zorizko atarramendua-
ren kezkarik, Afrikara daramagun zibilizazio arrotzaren kezkarik ez dudan bezala.

VII. kapitulua

Establimentsen hirugarren astea genuenean hasi zuen euria. Ordu arte eguraldi zoragarria izan genuen; limoiondoak eta mirtoak loretan ziren artean, eta abenduko lehenengo egunetan terraza ireki batean gelditu nintzen goizeko bostak arte, temperatura atsegin haren gozamenari loturik. Eta aintzat hartzeko modukoa naiz ni kontu horretan, izan ere, ez dut munduan inor ezagutzen ni bezain hozbera denik, izadi ederra- rekiko lilurak ere ez nau ni hotzik txikienaren aurrean sorgor bihurtzen. Bestalde, paisajea ilargi argitan xarmagarria eta loreak oso usaintsuak ziren arren, nire gaubeila ez zen batere hunkigarria izan. Ez nengoen han goi-argi bila, olerkari batek egingo lukeen bezala, baizik eta begira eta entzuten gelditzen den olgetari bat bezala. Denbora-pasa gustagarria nuen, oroitzen dut, gaueko zaratak biltzea eta haietaz ohartzea.

Egia da, eta mundu guztiak daki, herri bakoitzak dituela zeinek bere harmoniak, intziriak, oihuak, marmar misteriotsuak, eta ez da gauzen

hizkuntza material hori izaten bidaiaria harritzen duten ezaugarrien artean txikienetakoa. Urak marmolezko pareta hotzean egiten duen par-par hots misteriozua, aguazilen urrats geldo eta ongi neurtua kaian, arratoiek harri lokaztuetan elkarri segika eta borrokan aritzen direnean ateratzen duten intziri ozen eta haurrenaren tankerakoa, eta, oro har, Veneziako gauetako isiltasun malenkoniatsua aztoratzen duten zarata ezkutu eta bitxiak ez dute batere antzik Bartzelonako itsasoaren zarata beti berdinarekin, gau zaindarien *quien vive*arekin eta *serenos*en kantu malenkoniatsuarekin. Mayor aintzirak ez ditu Genebako aintziraren harmonia berberak. Eta Suitzako basoetako pinaburuen karraska etengabeak ere ez du hormategietan entzuten diren karrasken batere antzik.

Mallorcan munduko beste edozein bazterretan baino sakonagoa da isiltasuna. Gaua jaten ematen duten asteme eta mandoek urratzen dute, tarteka, hango isiltasuna beren zintzarriekin; baina ezkila horien zarata suitzar behien zintzarriena baino ozenagoa eta melodikoagoa da. Boleroa entzuten da lekurik mortuenetan eta

gau itxienetan. Ez dago nekazari bat bera ere bere gitarra ez duenik eta hara-hona gitarra alboan duela ibiltzen ez denik. Nire terrazatik itsasoa ere entzuten zen, baina hain urrun eta ahul ezen Djinnsen olerki izugarri fantastiko eta hunkigarria ekartzen baitzidan gogora:

*J'écoute,
Tout fuit.
On doute,
La nuit,
Tout passe,
L'espace
Efface
Le bruit*

Alboko etxaldean haur baten negarra entzuten nuen eta entzuten nuen, orobat, haren ama, haurra loarazteko herriko aria eder bat kantatzen, aria arrunt monotonoa, oso goibela, oso arabiarra. Baina beste ahots batzuek, ez hain poetikoak hauek, Mallorcaren alderdirik zakarre-na gogorarazi zidaten.

Esnatu ziren zerriak eta protestaka hasi ziren, azaldu ezingo nukeen doinu bat eginez. *Pagès* familia burua itzarri egin zen bere zerri maiteen ahotsa entzutean, ama bere haurtxoaren negarrarekin esnatu zen bezalaxe. Leihora atera eta kortako bizilagunei ahots larderiatsuz errieta egiten ziela entzun nuen. Zerriek arretaz entzungo zioten, bai horixe, isildu egin ziren eta. Gero, *pagèsa*, berriro lokartzeko edo, arrosarioa errezatzen hasi zen, ahots goibelez; loa etorri eta joan ahala isildu edo ozenagotzen zen haren otoitza, olatuen marmar urruna bezala. Zerriek oihu basaren bat egiten zuten aldiari behin; baserritarrak ahotsa ozenagotzen zuen halakoe-tan, bere otoitza eten gabe, eta animalia otz-anak, hala moduz esandako *Ora pro nobis* edo *Ave Maria* batekin lasaitu eta isil-isilik gelditzen ziren bat-batean. Haurrari zegokionez, entzuten egongo zen zalantzarik gabe, begiak zabal-zabalik, izuak hartuta, sehaskako gizonaren pentsamendu jaio berriari, nabarmendu aurretik bere burua hain era misterioetsuan lantzen duen pentsamendu horri, hots ulertezinek eragiten dioten izu moduko horrek hartuta.

Baina, bat-batean, gau lasai haien ondoren, uholdea hasi zen. Gau batean haizeak kulunka erabili gintuen bere intziri luzeekin eta euriak leihoen kontra jo zuen; goiz hartan esnatu gine-nean erreka toaren hotsa entzun genuen, uberkako harri artean bidea eginez nola zetorren. Biharamunean ozenagoa zuen urak ahotsa, eta hurrengoan eraman egiten zituen bidea eragoz-ten zioten harri guztiak. Zuhaitzetako hosto guz- tiak erorita zeuden, eta euria uholdeka sartzen zen gure gela gaizki itxietara.

Ulertzen zaila da mallorcarrek haize eta euri erauntsi horien kontra hain babes gutxi izatea. Hain dira ameslariak edo hantusteak gai honi dagokionez, ezen ukatu egiten baitituzte beren klimaren txartze aldi behinkako baina larri horiek. Bi hilabeteko uholdea jasan genuen arren, uholdeak iraun zuen denboran behin eta berriro esan ziguten Mallorcan ez zuela sekula euririk egiten. Mendi gailurrak eta haizearen norabidea hobeto behatu izan bagenitu, alde aurretik antzeman izango genien ondoren etorri-ko zitzaizkigun ezbehar saihetsezinei.

Baina beste atsekabe bat ere izan genuen: lehen, gure bidaia amaieratik hasita kontatzen hasi naizenean, esan dudana hain zuzen. Gutako bat gaixotu egin zen. Ez zen sendoa gorpuzkeraz, eta laringea minduta zuelarik, berehala sumatu zuen hezetasunaren kaltea. Haizetxea (*Son Vent* hango dialektoan) —hala zuen izena Gomez jaunak alokatu zigun landetxeak— ezin bizizkoa egin zitzaigun. Hormak hain ziren meheak ezen, gure geletan, belaki bat bailitzan puzten baitzen hormako karea. Niri dagokidanez, sekula ez dut halako hotzik jasan, nahiz eta, egia esan, ez zuen hotz handi-handirik ere egiten: baina, neguan epeletan egoten ohituta baikeunden, tximiniarik gabeko etxe hura izotzezko soingaineko bat bezalakoa zen guretzat, eta zeharo sorgortuta nengoen.

Ez ginen ohitzen *braseroen* kirats itogarri hartara, eta gure gaixoa oinazetzen eta eztulka hasi zen.

Harrezkero herritar guztien izu eta beldur eragile bihurtu ginen. Biriketako hetika genuela leporatu ziguten eta kondenatu egin gintuzten, eta horrek izurria esan nahi zuen espainiar medi-

kuntzak izurrien kutsadurari buruz zituen aurreiritzien arabera. Baina sendagile aberats batek guri bisita egitea onartu zuen, 45 liberako ordainsari txikiaren truke, eta esan zigun ez genuela ezer ere, eta ez zigun inolako errezetarik eman. *Malvavisco* jarri genion ezizena, sendagai horixe besterik ez baitzuen agintzen.

Beste sendagile bat ere etorri zitzaigun, adetasun handiz, guri laguntzera, baina Palmako botika erdi hutsik zegoen, eta droga nazkagarri batzuk baino ezin izan genituen eskuratu. Bestalde, eritasuna larriagotu egin zen nonbait, eta ez zegoen ez zientziarik eta ez deboziorik larriagotze haren eragileei behar bezala aurre egingo zienik.

Goiz batean, elkarri lotuta zeuden euri eta sofrikario haien iraupenaren kezkak zeharo etsituta ginduzkala, Gomez ankerraren gutun bat jaso genuen, esanez, espainiar estiloan betiere, higuingarria irizten zion eritasun bat *zuen* pertsona bat *genuela* gure artean —nori irudituko higuingarria eritasun hura eta hari, Gomez jaunari, munduko lau bazterretako gizonik zikin itsusienari—, bere etxea kutsatzen ari ginela eta

horrek garaia baino lehenago jartzen zuela arriskuan bere familia; horregatik guztiagatik arren eskatzen zigun bere jauregitik ahal bezain laster alde egin genezala.

Ez genuen nahigabe handi-handia ere hartu, ezin izango baikinategoen han gelditu baldin eta gure geletan itota hil nahi ez bagenuen behintzat; baina gure gaixoa ez zegoen arriskurik gabe inora eramateko moduan, batez ere Mallorcako garraiobideak nolakoak diren eta nolako eguraldia egiten zuen kontuan hartuta. Hortaz, nora joan erabakitzea zen zailena; izan ere, bat-batean zabaldu zen gure hetikaren zurrumurrua eta ez zegoen inon aterperik aurkituko genuen itxaropen izpirik, ez urre truke ere, ezta gau bakar baterako ere. Jakin bagenekien aterpea eskaintzen zizkiguten gizaki zintzoek gainerakoen aurreiritzi berberak izango zituztela, eta bestalde, gu haiengana hurbilduz gero, guri ematen ziguten tratua emango zietela haiei ere. Frantziako kontsularen abegi onagatik izan ez balitz—gu guztiok bere etxean hartzeko eginahalak egin zituen—, ijitoak bagina bezala edozein hai-

tzulotan babesa hartzeko arrisku gorrian egongo ginen.

Beste mirari bat gertatu zen ordea, eta negurako aterpea lortu genuen azkenik. Espainiar errefuxiatu bat bizi zen Valldemossako kartujoen monasterioan; ez dakit zer arrazoi politiko zela eta han ezkutatu behar izan zuen. Monasterioan egon ginenean harritura gelditu ginen haren manerekin, haren emaztearen edertasun malenkoniatsuarekin eta beren gelako altzari arrunt baina erosoekin. Monasterioaren poesiak liluratu egin ninduen. Eta gertatu zen bikote misterioitsuak alde egin nahi izan zuela ustekabean eta atsegin handiz eskaini zizkigutela altzariak eta gela, eta guk ere atsegin handiz onartu genuen eskaintza hura, noski. Mila libera doiren truke errediza guztiak lortu genituen beraz, Frantzian ehun ezkuturen truke lortu izango genituzkeen modukoak nolana ere: Mallorcan hain dira urriak, garestiak eta lortzen zailak oinarrizko ondasunak.

Palman lau egun egin genituenez, nahiz eta ordukoan ez nintzen apenas aldendu kontsulak —zorionez— zuen tximiniaren ondotik (uholdea

baitzen artean), etena egingo dut, orain, kontakizun honetan, Mallorcako hiriburuaren deskripzio txiki bat egiteko. Laurens jauna, hurrengo urtean hiria aztertzeraz eta hango ikuspegi ederrenak marraztera joana, jarriko diot, orain, irakurleari bide-erakusle, ni baino jakitunagoa baita bera arkeologia kontutan.

BIGARREN ATALA

I. kapitulua

Mallorca laurehun urtez mairuen mende egon bazen ere, uharteak ez du haien egonaldiaren aztarna garbirik gorde. Haiena ez da bainutegi txiki bat besterik gelditzen, Palman.

Erromatarren aztarnarik batere ez da gelditzen, eta kartagotarrena, berriz, hondakinen bat edo beste, Alcudia hiriburu zaharretik hurbil, eta Anibalen jaiotzari buruzko elezaharra, Grasset de Saint-Sauveurren arabera mallorcarrek harropuzkeriaz sortua omen dena, egiatasun arrastorik baduen arren.

Baina mairuen kutsua eraikin txikienetan betikotu da, eta ezinbestekoa izan da Laurens jaunak bere aurrekoen akats arkeologiko guztiak zuzentzea ni bezala bidaiari ezjakin direnek ez zezaten pentsa han eta hemen arabiar arkitekturen aztarnak ikusten ari zirela.

«Palman ez dut ikusi, dio Laurensen, antzina-antzinako eraikuntza data duen etxerik. Etxe interesgarrienak, bai arkitekturari bai antzinatasunari dagokionez, hamaseigarren mendearen

hasierakoak dira guztiak; baina garai hartako arte txairo eta bikainak han ez du Frantzian duen tankera bera.

»Etxe hauek ez dute etxabearen gainean solairu bat eta ganbara apal bat besterik. Sarre-
ra, kalekoa, puntu erdiko arkuko ate bat da,
batere apaindurarik gabea; baina neurri handi-
koa izateak eta erradio luzeak osatuz jarritako
harri asko edukitzeak itxura ikusgarria ematen
diote. Argia leiho garai batzuetatik sartzen da
lehen solairuko gela handietara; leiho horiek ara-
biar itxura betea ematen dieten zutabe mehe-
mehe batzuk dituzte erdian.

»Kutsu hori hain dute nabarmena, ezen era
horretako hogeit hamar gora aztertu eta haien
atal guztiak banan-banan eta zehatz-mehatz
ikertu behar izan ditudan ziurtasun osoz esan
ahal izateko leihoak ez zirela jauregi mairu baten
hormetatik hartuak, ez zirela Granadako Alham-
bra erakusgarri duten jauregi mairu benetan liru-
ragarri horien hormetatik hartuak.

»Mallorcan beste inon ez dut ikusi halako
zutaberik: sei oin dira garai, eta ez dute hiru
ontzako diametroa besterik. Zutabe horiek egite-

ko erabili den marmolaren fintasunak eta zutabeei buru ematen dieten kapitelen tankerak, horrek guztiak jatorriz arabiarrak zirela pentsarazi zidan. Nolanahi ere, leiho horiek orijinala bezain ederra dute itxura.

»Goiko solairuko ganbara galeria batez osatua da, edo hobeto esan, elkarren ondo-ondoan dauden leiho ilara batez osatua; leihoak *Lonja*-ren goi-goiko atala osatzen dutenen berdinak dira. Azkenik, teilatu oso irten bat dute, antze handiz zizelatutako habeek eutsia; teilatuak eurtik eta eguzkitik babesten du solairu hori, eta argi efektu biziak sortzen ditu, itzal handiak islatzen baititu etxean, eta haren zurajearen masa ilunak zeruaren tonu argiak baititu aurrez aurre.

»Eskailera, gustu handiz landua, patio batean dago, etxearen erdian. Atari batek bereizten du kaleko sarreratik, eta atarian halaber, zutabe batzuk ikus daitezke, hosto zizelatuez eta aingeruek eutsitako armarriez apaindutako kapitelenkoak.

»Berpizkundearen ondoren ere, mende bat baino denbora luzeagoan, luxu handiz eraiki zituzten mallorcarrek beren bizitoki pribatuak.

Ordu arteko banaketa bera egiten jarraitu bazuten ere, garaian garaiko arkitektura joeren arabera aldaketak egiten zituzten atari eta eskaileretan. Horrela, bazter guztietan ikusten dira zutabe toskanarrak edo doriarrak; eskudelek eta balaustradek itxura handiosa ematen diete beti aristokraziaren bizitokiei.

»Eskailerak apaintzeko zaletasun hori eta arabiar estiloaren kutsua etxe xumeenetan ere antzematen da, baita kaletik lehenengo solairura zurubi bakar baten bidez zuzenean sartzen denetan ere; halakoetan, maila guztiak daude lore urdin, hori edo gorri distiratsuez margotutako harlauzez estalita.»

Deskripzio hori ondo zehatza da, eta Laurens jaunaren marrazkiek argi asko erakusten dute areto horien dotoretasuna; areto horietako peristiloak apaingarri ederrak, guztiz soilak, izango lirarteke gure antzokietarako.

Patio horiek, harlauzez estaliak eta, batzuetan, Veneziako jauregietako *cortile*-aren antzera zutabez inguratuak, estilo garbiko iturri bat ere izaten dute askotan erdi-erdian. Ez dute gure patio zikin eta biluzien itxura bera, ezta erabile-

ra bera ere. Sekula ez dute han jartzen ez zalditerietako ez orgategietako sarbidea. Benetako lorioak dira, erromatarren atriumen oroigarri agian. Nola halako prothyrum eta cavoedium atalak ikus daitezke han; erdiko iturriak impluvium-aren lekua hartzen du, zalantzarik gabe.

Peristiloek, lorontziez eta ihi zerriz apainduak direnean, itxura dotore eta aldi berean zorrotza dute, baina Mallorcako jauntxoek ez dute, inondik ere, haien poesia ulertzen; beren etxe zahar-
kituei aitzakia bila ibiltzen dira beti; eta norbait-
tek haien tankera goستن badu, berriz, irribarre
egiten dute, iseka egiten diela pentsatuz edo
frantsesen neurritz gaindiko adeitasun barregarria gutxietsiz beren baitarako.

Gainerakoan, Mallorcako nobleen bizitokietan ez da dena hain poetikoa. Badira narrastasunaren hainbat ezaugarri, irakurleari nekez azal niezazkiokeenak, baldin eta, Jacquemontek indiarren ohiturez aritzean egin zuen bezala, eskutitz hau latinez bukatzen ez badut behintzat.

Baina nik latinez ez dakidanez gero, jakinminez gelditu direnek jo bezate Grasset de

Saint-Sauveur-ek —ez Laurens bezain idazle zorrotza baina bai sinesgarritasun handia duena gai horretan— Mallorcako, eta Espainiako eta Italiako etxe zahar askotako janaritegien egoerari buruz idatzitako pasartera. Mallorcan oraindik indar betean dagoen espainiar medikuntzaren jarraibide izugarri bitxi baten berri ematen due-lako da pasarte hori nabarmentzeko modukoa.

Jauregien barrualdeak ez du zerikusirik, inondik ere, kanpoaldearekin. Etxeetako banaketa eta altzariak dira bai herrien bai gizabanakoen bereizgarri nagusia.

Parisen, non modaren apetak eta industria gaien ugaritasunak bizitokien itxura hain era bitxian aldarazten baitu, bizimodu erosoan duen edonoren etxean sartzea aski da begiratu bakarrean haren izakeraz jabetzeko; jakiteko atseginezalea edo ordenazalea den, zekena edo axolagabea den, metodikoa edo erromantikoa den, abegitsua edo arranditsua den.

Nik ere baditut neure usteak gai horren inguruan, zeinek bereak dituen moduan, baina horrek ez du esan nahi askotan neure arrazoibi-

deetan huts egiten ez dudarik, beste askori gertatzen zaion bezala.

Gorroto bereziki handia diet altzari gutxiko eta oso ondo antolaturiko gelei. Non eta ez diren xehetasun material txikien esparruaz haraindiko jakituria handia eta bihotz ona denda baten babesean bezala bizi, era horretako etxeetan bizi dena buru hutsa eta bihotz hotza dela iruditzen zait beti.

Ez dut ulertzen, lau hormen artean bizita, nola ez den ikusten horiek betetzeko beharra, enborrez eta saskiez besterik ez bada ere, eta nola ez den sentitzen inguruan zerbait bizirik dagoela ikusteko beharra, kuku-fraka edo txolarre bat besterik ez bada ere.

Hustasunak eta gelditasunak izuz betetzen naute, simetriak eta ordena zorrotzak tristuraz betetzen naute; eta baldin nire gogoak betiko zigorra irudika baleza, nire benetako infernua herri etxe horietako batean bizi beharra litzateke: erabateko ordena dute nagusi, gauza guztiak beti leku berean daude, ez da ezer ikusten lurrean, ez da ezer hondatzen ez apurtzen, eta sekula ez da animalia bat sartzen, bizidunek bizi-

gabeak hondatzen dituztela aitzakia jarrita. Utikan! Alferrik nituzke munduko alfonbra guztiak, horiez gozatzearren ezingo badut inoiz haur bat, zakur bat edo katu bat ikusi haien gainean!

Neurriz gaineko garbitasun hori ez dator garbitasunerako benetako grinatik, alferkeria gehiegizkotik baizik, edo ekonomia zekenetik bestela. Kontu edo lan pixka bat gehiagorekin, nire gustuko *etxekoandreak* erraz luke gordeko gure baitako garbitasuna, niretzat ere ezinbestekoa.

Baina zer esan eta pentsa daiteke garbitasunaren aitzakiarik eta desenkusarik gabe bere *home*-a hutsik eta mugimendurik gabea duen familia baten ohiturez eta ideiez?

Orain dela gutxi esan dudan bezala, arrazoibide partikularretan huts egitea gauza erraza bada ere, zaila da, aldiz, arrazoibide orokorretan huts egitea. Herri baten izaera bere jantziek eta altzariek islatzen dute, eta baita bere hazpegiek eta hizkuntzak ere.

Palman bizileku bila nenbilela, etxe askotan sartu nintzen; elkarren antz handia zuten guztiek, hain antz handia ezen hango biztanle guztiek izaera beretsua zutela atera bainuen ondo-

rio. Atsekabeak eta higuinak erdibitzen zidan bihotza etxe haietako bakoitzean sartu orduko, ikusita hormak biluzik, harlauzak orbandurik eta hautsez beterik, eta altzariak, gutxi eta zikin. Axolagabekeriaren eta alferkeriaren lekuko zen dena; ez libururik, ez jostun lanik. Gizonek ez dute irakurtzen, emakumeek ez dute josten. Etxeko lanen zantzu bakarra sukaldeko jarduna salatzen duen baratxuri usaina da; eta olgeta intimoaren arrasto bakarra, lurrean han eta hemen sakabanatutako zigarro mutxikinak.

Bizitza intelektualik ez dutenez, hutsak eta hilak dira etxebizitzak, gure artean ez bezala, eta mallorcarrek antz handiagoa dute afrikarrek, europarrek baino.

Hala, etxe horiek —belaunaldiak ezer aldatu gabe eta gure giza bizitzaren osagai ohi diren gauzetan inongo ezaugarri indibidualik utzi gabe joaten direnez bata bestearen ondotik—, benetako etxeak baino, karabanak ematen dute gehiago; eta gure etxeek familiarentzako habia ematen duten bezala, haienek ematen dute herri alderrai bateko gizataldeek gaua egiteko hartuko luketen behin-behineko aterbea. Espainia

ondo ezagutzen duten hainbatek esan didatenez horrela gertatzen da, oro har, Penintsula guztian.

Lehen esan bezala, *zaldunen* (Mallorcan oraindik horrela esaten zaie patrizioei) jauregie-tako peristiloak edo atrium-ak abegi onekoak eta erosoak dira itxura batean. Baina eskailera doto-rea igaro eta gela barrura sartu orduko, siesta egiteko egokitu den leku batean sartu zarela ematen du gehiago. Areto handiak dira, lauki luze formakoak oro har, oso garaiak, oso hotzak, oso ilunak, erabat biluziak, gisuz zurituak eta apaingarririk gabeak; familia erretratu zahar handiak, beltz-beltzak, dituzte horman, ilara bakar batean jarriak, hain gora ezen ez baita ezer bereizten; larrua koipez betea eta arrek jana duten lauzpabost aulki, berrehun urtetan garbitu ez diren urre koloreko iltzeek josia inguru guztia; tapiz valentziar batzuk, edo ile luzeko ardi larruak han-hemen lurrean; leiho handiak, oso gora, oihal lodiz estaliak; ate handiak, haritz beltzezkoak, sabaiko solibak bezala; eta, batzuetan, familiaren armarriaren brodatu aberatsa — baina denboraren poderioz histua eta higatua— duen urrezko izara bat; halakoak dira Mallorcako

jauregiak barrutik. Jatekoa beste mahairik apen-
nas ikusten den; ispiluak oso gutxitan izaten
dira, eta izatekotan ere, hain leku gutxi hartzen
dute horma izugarri horietan, ezen ez duten
inongo argitasunik ematen.

Etxe jabea zutik egoten da isil-isilik erretzen,
etxekoandrea aulki handi batean eserita, haize-
maileari eragiten ezertan pentsatu gabe. Haurrik
ez da inoiz ikusten: morroiekin bizi dira, sukal-
dean edo bihitegian, auskalo; gurasoek ez dute
haien kezkarik. Kapilaua etxean atzera eta
aurrera ibiltzen da, ezer egin gabe. Hogeitahogei-
ta hamar zerbitzariak siestan egoten direnez,
zerbitzari atsotu zakar batek zabaltzen du atea
bisitariak tirrina hamabost aldiz jo ondoren.

Bizimodu hori ez da, ez, *ezdeusa*, hitz horri
gaur egun ematen diogun adiera mugagabea
erabiliz esango genukeen bezala; baina, gure
burges patxadatsuena ere amorruez erotuko litza-
teke, edo demagogo bihurtuko litzateke bestela,
izpirituaren erreakzioz, horrela bizitzera konde-
natuko balute.

II. kapitulua

Mallorcako hiru eraikin nagusiak katedrala, Lonja (azoka) eta Palacio Real dira. Katedrala, mallorcarrek diotenez, Jaime Konkistatzaileak — beren lehen errege kristau eta, nolabait esatearren, beren Karlomagnoak— eraiki zuen, eta hasi, egia da haren agintaldian hasi zutela, baina ez zen 1601 arte amaitu. Izugarri soila da, ale meheko eta anbar kolore ederreko kareharriz egina goitik behera.

Harrizko masa ikusgarri horrek, itsasertzean dagoenez, efektu handia egiten du kaian sartzean, baina egikerari dagokionez, benetan aipagarria duen gauza bakarra hegoaldeko ataurrea da; Laurens jaunak dioenez, huraxe da berak sekula irudikatu duen arte gotikoaren erakusgarri bikainena. Barnealdea ikaragarri soila eta iluna da.

Itsasoko haizea indar handiz sartzen zenez sarrera nagusiko irekiune luzeetatik, eta meza denboran koadroak eta ontzi sakratuak lurrera bota ohi zituenez, itxi egin dira alde horretako

ate eta errosetoiak. Habeartea bada bostehun eta berrogei arra luze eta hirurehun eta hirurogeita bost arra zabal.

Koruaren erdian marmolezko sarkofago bat dago, nahiko soila, zeina kanpotarrei irekitzen baitieten Konkistatzailearen seme Jaime II.aren momia ikus dezaten; Jaime II.a printze elizkoia zen, ahul eta gozoa aita borrokalaria izan zuen beste.

Mallorcarrek diotenez beren katedrala Barzelonakoa baino askozaz ere bikainagoa da; eta Lonja —hau ere beraiek esaten dutenez— Valentiakoa baino askozaz ere ederragoa. Ezin izan dut bigarren baieztapena egia ote den frogatu; lehenak, baina, ez du ez hanka eta ez buru.

Katedral batean zein bestean ikus daiteke Espainiako metropoli gehienetan apaingarri duten garaipen ikur bitxia: zur margotuzko mairu buru nazkagarri bat, turbante batez estalia, organoaren petxinari buru ematen diola. Lepo moztu horren irudia bizar zuri batez apaindu ohi dute batzuetan, eta gorriz margotua izaten du behealdea, garaituaren odol zikina itxuratuz.

Nabeetako gangen giltzarrietan hainbat eta hainbat armarri agertzen dira. Mallorcako zaldunek garesti ordaindu ohi zuten Jainkoaren etxean beren armarrria jartzeko pribilejioa; harrotasun neurrigabearen gaineko zerga horri esker amaitu ahal izan zen katedrala mende hartan, debotzioa epel samartuta zegoen garai batean hain zuzen. Baina ez litzateke zintzoa mallorcarrei bakarrik egoztea garai hartan mundu osoko noble fededunen artean zabaldua zegoen ahulkeria bat.

Lonja izan da monumentu guztietan gehien hunkitu nauena bere proportzio dotoreengatik eta orijinaltasun bete-beteagatik, erregularitasun perfektua eta soiltasun atsegingarria agertzen baitu aldi berean.

Azoka hau XV. mendearen lehen erdian hasi eta amaitu zuten. Jovellanos ospetsuak xehetasun handiz deskribatu zuen, eta *Magasin pittoresque* ospe handia eman zion orain dela hainbat urte argitaratutako marrazki bitxi baten bidez. Barrutik areto handi bat da, ildaska kiribilekiko sei habek eutsia, xalotasun dotorekoa.

Palmara oldeka iritsi ohi ziren salerosleen eta itsasgizonen biltokia izan zen Lonja antzina, eta eraikin hori da, hain zuzen ere, mallorcarren merkataritzaren garai bateko ospearen isla; gaur egun jaialdi publikoetarako baino ez da erabil-tzen. Gauza bitxia izan behar zuen mallorcarrak han ikustea, beren gurasoen jantzi dotoreekin, dantza areto antzinako hartan handiro olgetan; baina euriak mendialdetik ezin irtenda ginduz-kan orduan, eta ezin izan genuen ikusi inauteri hura, Veneziakoa baino inauteri xumeagoa baina agian alaiagoa. Lonjari dagokionez, eder askoa iruditu zitzaidan arren, ez zuen itzali Cadoro esa-ten dioten bitxi ikusgarri hartaz, Ubide Handiko azoka zaharraz, nuen oroitzapena.

Palmako Palacio Real —zeina inolako zalan-tzarik gabe estilo erromaniko eta mairukotzat hartu baitzuen Grasset de Saint-Sauveur jaunak (eta inperioaren joerari egokituriko sentipenak eragin zizkion horrek)— 1309an eraiki zela esa-ten dute. Laurens jaunak, ordea, gogoia nahasirik zuela aitortu zuen, leiho bikoitzak eta habexka dudazkoak aztertu zituela-eta eraikin horretan.

Zentzugabekeria al litzateke Mallorcako hainbat eta hainbat eraikinetan ikusten den estilo nahasketaren arrazoa eraikin berrietan antzina-ko eraikinen atalak erabiltzea dela esatea? Frantzia eta Italian Berpizkundeko estiloak eskultura apaingarri gisa greziar eta erromatar tankera beteko medailoi eta behe erliebeak erabili zituen bezala, ez al zen gertatuko, Mallorcan, kristauek mairuen obra guztiak hondatu ondoren obra haietako hondakin aberatsak hartu eta geroago-ko beren eraikinetan erabili izana?

Dena dela, Palmako Palacio Realek itxura bitxia du benetan. Ez da jauretxe hura baino gauza nahasiagorik, deserosoagorik eta Erdi Aroko tankera jatorragoa duenik; baina ez dago, halaber, hura baino etxetzar arranditsu, bere gisako eta Hidalgoagorik ere: garaiera handia hartzeraino bata bestearen gainka jarritako galeriez, dorreez, terrazez eta arkuteriez osatua da; aingeru gotiko batek buru ematen dio multzo horri guztiari, hodei artean itsasgainetik begiratzeko diola Espainiari.

Jauregi hau, zeinetan gordetzen baitira artxi-
boak, kapitain jeneralaren egoitza da, uharteko

agintari nagusiaren egoitza alegia. Hona hemen nola deskribatzen duen Grasset de Saint-Sauveur jaunak egoitza hori barrutik:

«Lehenengo aretoa atari moduko bat da, zaindarien egonleku gisa erabiltzen dena. Ia eserlekurik ez duten beste bi areto handitara sartzen da eskuinetik.

»Hirugarren aretoa harrera gela da. Urrezko zerrendez dotoretutako belus gorritzko jargoi batek apaintzen du gela, tapizez estalitako hiru eskailerako oholtza baten gainean. Albo bietan zur urre-koloreko lehoi bana dago. Jargoi gaineko errezela ere belus gorritzkoa da, eta ostruka lumazko apaingarria du gandorrean. Jargoia gainean errege-erreginen erretratuak daude zintzilik.

»Areto honetan egiten die jeneralak harrera jai egunetan edo *gala* egunetan administrazio zibileko taldeei, gudarosteko ofizialei eta atzerri-tar ospetsuei».

Kapitain jeneralak gobernadorearen zereginak betetzen dituenek, eta honentzat gomen-diozko gutunak genituenek, gutun haiek aurkez-tera joan zen guretarra gela hartan hartzeko

ohorea egin zigun. Jargoiazen ondoan aurkitu zuen guretarrak funtzionario goi mailakoa; 1807an Grasset de Saint-Sauveurrek deskribatu zuen jargo berbera izango zen hura, ziurrenik, zahartuta, histuta, urratuta eta koipez eta argizariz zikin samartuta baitzegoen. Bi lehoiak ez ziren urre kolorekoak ordurako, baina oso keinu izugarria zuten artean. Erregeren irudia besterik ez zen han aldatu: Isabel erregina xaloa, kabaretetako iragarki izugarria, zegoen oraingoan marko urre-kolore zaharrean, zeinetan egon baitziren lehenago haren arbaso itzaltsuak marrazkigintzako ikaslearen *passe-partout* bateko ereduak bezala. Gobernadorea, nahiz eta Hoffmannen Ireneus dukea izenarekin ostatatu zen, oso gizon estimatua eta printze arrunt adeitsua zen.

Laugarren monumentu aipagarria Udal jauregia da, XVI. mendeko obra, zeinaren estiloa alde-ratu izan baitute, arrazoiz alderatu ere, Florentziako jauregietakoekin. Teilatua alboetako irtenuneengatik du, batez ere, aipagarria, Florentziako jauregietakoen edo Suitzako *chalet*-etako-en modukoak baitira irtenune horiek; baina honek badu ezaugarri berezi bat haien aldean:

zurean bikain tailatutako errosetoiekiko kasetoiak ditu euskarri, eta kasetoien artean kariatide luze batzuk agertzen dira, teilatu hegala horren azpian etzanda, teilatuari ahuenka eutsiz bezala, esku artean ezkutatuta baitute, gehienek, aurpegia.

Ez dut barrutik ikusi Mallorcako handikien erretratuak erakusgai dauden eraikin hori. Pertsonaia itzaltsu horien artean ikus daiteke Don Jaime ospetsua, *karta jokoko errege* baten tankerarekin. Eta ikus daiteke, orobat, koadro oso zahar bat, zeinak irudikatzen baitu Ramon Llull mallorcarraren hileta eta erakusten baitu doktore argituaren segizio amaigabeak zeraman antzinako jantzien bilduma interesgarri eta askotarikoa. Azkenik, bada jauregi horretan Van Dickek margotutako San Sebastian bikain bat ere, baina Mallorcan inork ere ez zidan haren berri eman.

«Palmak badu marrazki eskola bat —dio Laurens jaunak—, zeinak hezi baititu, gure XIX. mende honetan bakarrik, hogeita hamasei margolari, zortzi eskulturagile, hamaika arkitekto eta sei grabatzaile, maisu handiak guztiak, Antonio Furió jakintsuak berriki argitara eman duen

Mallorcako Artista ospetsuen Hiztegiak dioena sinestekotan. Aitortu behar dut zintzoki ezen Palmán egon nintzen garaian ez bainuen pentsatu halako pertsonaia handiez inguratua nintzenik eta ez bainuen ikusi haien presentziaren iragarpen izan zitekeen ezer...

»Familia aberats batzuek espainiar eskolako koadro asko dituzte... Baina dendaz denda ibiltzen bazarete, herritar xume baten etxean sartzen bazarete, ez duzue halakorik aurkituko; gure plaza publikoetan saltzaileek erakusgai jartzten dituzten eta Frantzia nekazari pobreen etxe apalean beste inon lekurik aurkitzen ez duten irudi kolore askoko horietakoak besterik ez dituzue ikusiko han.»

Palmak gehien goستن duen jauregia Montenegroko kondearen jauregia da; laurogehitaka urteko agurea da Montenegroko kondea, antzina kapitain jeneral izana, Mallorcako pertsonaia ospetsuenetakoa jaiotzatik eta garrantzizkoenetakoa bere ondasunengatik.

Gizon horren liburutegia bisitatzeko aukera izan genuen, baina ez nuen hango liburu bakar bat ere ireki eta ezin esango nuke liburutegi hari

buruzko ezer ere (liburuekiko dudan begirunea izua baita ia) baldin eta erkide jakintsu batek adierazi ez balit altxor haien garrantzia; izan ere, nik axolagabeki begiratu nituen, alegiako oilarra perla artean ibili zenean bezala.

Erkide hark bi urte inguru igaro ditu Katalunian eta Mallorcan, erromantze hizkuntzari buruzko ikerketak egiten, eta adeitasun handiz eman zidan bere oharren berri, eta jakintsuen artean ohiz kanpoko den eskuzabaltasunaz eman zidan ohar haietatik nahi nuen guztia ateratzeko baimena ere. Halakorik egin aurretik, ordea, irakurleari jakinazari behar diot bidaiari hura Mallorcako gauza guztiekin liluratuta gelditu zela ni etsita gelditu nintzen adina.

Esan nezake, iritzi horiek elkarren desberdin zergatik diren azaltzeko, ni han egon nintzen garaian Mallorcako herritarrak estu eta larri bizi zirela gerratik ihesi joandako hogeit mila espainiar hartu izanaren ondorioz, eta izan liteke, okerrik eta aitzakiarik gabe, Palmako bizitza kaskarragoa izatea eta mallorcarrak ez egotea atzerri-tar talde bat bi urte lehenago hartuko zuketen bezain ondo hartzeko prest. Nahiago dut, hala

ere, zuzentzaile onberaren kritika jaso, nirearekin bat ez datorren iritzi batzuen arabera idatzi baino.

Poz handia emango lidake, bestalde, aurrez aurre egin izan zaidan bezala kontra egingo balitzait eta gaitzetsiko banindute jendaurrean ere; izan ere, irakurleek Mallorcari buruzko liburu zorrotz eta interesgarriagoa lortuko lukete nik orain ezinbestean eskaini behar didan kontaktuzun nahaspilatu, eta agian, nahi gabe, bidegabe hau baino.

Eman dezala argitara, beraz, Tastu jaunak bere bidaiari; hitza ematen dut pozarren irakurriko dudala mallorcarrei buruz dudan iritzia aldaraziko didan oro: ezagutu ditut joera orokorraren erakusgarritzat hartu nahi nituzkeen zenbait jende, eta itxaropena dut idatzi hau noizbait eskuratuz gero ez dutela zalantzan jarriko haiekiko ditudan sentipenak.

Horrela bada, Tastu jaunaren oharretan aurkitu dut gaur egun Mallorcari gelditzen zaizkion aberastasun intelektualen artean dagoela Montenegroko kondearen liburutegi hura, zeinetatik batere begirunerik gabe igaro nintzen etxeko

kapilauaren atzetik, zaldun mallorcar ezkongabe baten etxearen barnealdea arreta handiz iker-tzen ari bainintzen; barnealde triste eta garratza zen inon halakorik bada, apaiz batek isilean gobernatua.

«Liburutegi hau, dio Tastu jaunak, Antonio Despuig kardinalak, Montenegroko kondearen osaba eta Pio VI.aren lagun minak osatu zuen.

»Kardinal jakintsu hark Espainian, Italian eta Frantzian zuten bibliografia interesgarri guztia bildu zuen. Numismatikari eta, batez ere, antzi-nako jakintzei buruzko atalak dira liburutegiko osoenak.

»Liburutegian eskuizkribu gutxi daude, baina horien artean bada bat kaligrafian zaletuentzat bereziki jakingarria: orduen liburu bat da. Liburu horrek miniatura ikusgarriak ditu; artearen garai oparoenetako batean egina da.

»Heraldika atsegin duenak armarri liburu bat ere aurkituko du, espainiar nobleen armarren irudiak kolore eta guzti agertzen dituenak, aragoitar, mallorcar, rosellondar eta languedoctar familienak barne. Eskuizkribua XVI. mendekoa bide da, eta Dameto familia, Despuig eta Monte-

negro familien aliatua, izan zen haren jabea. Liburu hori begiratzuz gure Napoleon handiaren sorburu zen *Bonapart* familiaren armarria aurkitu dugu eta horretatik atera dugu geroago azaltzen den facsimila...

»Liburutegi honetan dago, halaber, Valsequa mallorcarraren itsas-karta, 1439ko izkribua, kaligrafia eta topografiako irudien maisu lana; balio handiko lana utzi zuen karta horretan miniaturagileak. Karta Americo Vespucciorena izan zen; garesti ordaindu zuen, kartaren atzealdeko idazkiak garai hartako idazkeran aditzera ematen duenez: *Questa ampla pelle di geographia fù pagata da Amerigo Vespucci CXXX ducati di oro di marco.*

»Erdi Aroko geografiaren monumentu balio handiko hori aurki emango da argitara, *Notices de manuscrits de l'Académie des Inscriptions et Belles-Lettres*eko XIV. alean 2. atala hartzen duen 1375eko Atlas kataluniar-mallorcarraren osagarri.»

Ohar hau transkribatzean ilea laztu zait, gertaera izugarri bat etorri baitzait gogora.

Montenegroko liburutegi horretan ginela kapilauak zabaldu egin zuen itsas-karta hura — balio handiko monumentu bitxia, zeinaren truke 130 dukat ordaindu behar izan baitzituen Amerigo Vespucciok; jainkoak daki zenbat ordainduko zuen Despuig kardinal zaharkin zaleak!—... eta hara non bururatzen zaion etxeko berrogei edo berrogeita hamar zerbitzarietako bati pergaminoaren ertz batean kortxozko tintontzi bat jartzeari, karta mahai gainean zabalik gera zedin. Tintontzia beteta zegoen, goraino beteta gainera!

Pergaminoak, bilduta egoteko joerari jarraituz, eta izpiritu gaizto batek eraginda agian, ahalegina egin zuen, kraska hotsa atera zuen, jauzi bat egin zuen eta bildu egin zen atzera, tintontzia berarekin eramanez; tintontziaren edukin guztia bildukinaren barruan galdu zen, bildukina jauzika ari baitzen, oztoporik gabe. Guztiek batera garrasi egin zuten; kapilaua pergaminoa bera baino zurbilago gelditu zen.

Karta zabaldu zuten poliki-poliki; bazuten, artean, itxaropen izpi bat. Ai ene! Tintontzia hutsik zegoen ordea! Karta blai-blai zegoen, eta

miniaturan irudikaturiko errege txiki ederrak igeri zebiltzan —bai benetan igeri— Ponto Euxino bera baino itsaso beltzago batean.

Orduan burua galdu zuten denek. Kapilauak konortea galdu zuela uste dut. Zerbitzariak ur perrailekin etorri ziren, sute bat gertatu balitz bezala; belaki eta erratz astindu galantez garbitu zuten karta eta han eraman zituzten erregeak, itsasoak, uharteak eta kontinenteak, nahas-mahasean denak.

Arreta zorigaiztoko hari aurre egin ahal izan genionerako karta hondatuta zegoen alde, baina ez erremediorik gabe, halere; izan ere, Tatu jaunak egin zuen haren kalko doi-doia, eta hari esker konpondu ahal izango zen, nola edo hala, hondamen hura.

Baina a zer nolako etsipena hartuko zuen limosnazaleak, bere jauna gertatutako guztiaz jabetzean! Hondamena gertatu zenean mahaitik sei urratsera geunden gu guztiak; baina uste osoa dut geu hartuko gaituztela, hala ere, haren errudun, eta gertaera hau, frantses batzuei leporatua, ez dela izango frantsesek Mallorcan izen ona berreskuratzeko lagungarria.

Gertaera lazgarri hura zela eta, ezin izan genituen miretsi, ez eta ikusi ere, Montenegroko jauregiko zenbait bitxi: ez dominen aretoa, ez brontze zaharrak, ez koadroak. Nagusia iristen zenerako handik alde egiteko irrikitan geunden, eta, errua guri egotziko zigutela ziur baikeunden, ez ginen ausartu hara gehiago itzultzen. Tastu jaunaren oharrak beteko du, beraz, hemen ere, nire ezjakintasunaren hutsunea.

«Kardinalaren liburutegitik aterata domina areto bat dago, domina zeltiberiarrez, mairuez, greziarrez, erromatarrez eta Erdi Arokoez osatua; bilduma ezin hobea, baina gaur egun nahas-mendu negargarrian dagoena, jakintsu batek noiz txukunduko eta sailkatuko zain.

»Montenegroko kondearen aretoak marmol edo brontze zaharrezko gauzakeriez daude apainduak; Aricciako aztarnategietako bitxiak dira, edo kardinalak Erroman erosiak bestela. Espainiar eta italiar eskoletako koadro asko ere badaude han, Europako galeriarik ederrenetan distiraz nabarmenduko liratekeenak horietako asko.»

Aipatu beharrekoa dut Belder edo Bellver jau-regia, antzina Mallorcako erregeen egoitza izana, urrutitik bakarrik ikusi ahal izan nuen arren, muino baten gainetik itsasoari arrandiaz gailentzen zitzaiola. Oso aspaldiko gotorlekua da, eta Espainiako estatuko presondegi gogorretakoa.

«Gaur egungo harresia XIII. mende amaieran eraiki zen, Laurens jaunak dioenez; oso egoera onean dago, eta Erdi Aroko arkitektura militarreko monumentu bitxienetako bat da.»

Gure bidaiaria han izan zenean, berrogeita hamar bat preso karlista aurkitu zituen: zarpailez jantzita zeuden, biluzik ia; haurrak ziren batzuk artean. Uretan egositako makarroi hutsezko lapikokada bat jaten ari ziren, zalaparta alaietan. Haien zaindariak trikotatzen ari ziren, zigarroa ahoan.

Izan ere, Bellverko gaztelura eramanez ohi ziren garai hartan Bartzelonako kartzeletan kabitzen ez ziren presoak. Baina gatibu ospetsuagok ere ikusi izan dituzte ate izugarri haiek beren bizkarrean ixten.

Don Gaspar de Jovellanosek, Espainiako hizlari elokuente eta idazle adoretuenetakoa zenak, hantxe ordaindu zuen *Pan y toros* bere panfleto ospetsua, *torre de homenaje*, dorrean *cuya cuva* —dio Vargasek— *es la más cruda prisión*. Bere presondegiaren deskripzio zientifikoa egiten eta Erdi Aroan gaztelu hartan izan ziren gertaera tragikoen historia osatzen igaro zuen kartzela garaiko bere aisia lazgarria.

Mallorcarrek katedralaren eta Lonjaren deskripzio zorrotza ere zor diote Jovellanosek uhartean egindako egonaldinari. Hitz batean, haren Mallorcari buruzko Gutunak dira dokumentu guztietan argigarrienak.

Bakearen printzearen erreinaldi bizkarroian Jovellanosen bizitoki izandako ziega berberak hartu zuen, handik gutxira, zientziako eta politikako beste jakintsu bat, Jovellanos Espainian zegokion mailako ospea zuena Frantzian. Anekdotak aski ezezaguna da, baina bereziki interesgarria izan daiteke, zientziarekiko maitasunak mila abentura arriskutsu eta hunkigarri bizitzera eramane zuen bizitza bateko kapitulua den aldetik.

III. kapitulua

Arago jauna, Napoleonek meridioa neurtzeko agindua eman ziolarik, Mallorcan zen 1808an, *Esclop de Galatzo* mendian, eta han izan zuen Madrilgo liskarren eta Fernandoren bahiketaren berri. Mallorcako biztanleak hainbeste haserretu ziren, ezen frantses jakintsuari egotzi baitzioten errua, eta samaldan joan baitziren Esclop de Galatzorantz hura hiltzeko asmoz.

Mendi hori kostaldearen gain-gainean dago, Jaime I.a Mallorca mairuei konkistatzera joan zenean lehorreratu zen kostaldearen gainean; eta Arago jaunak sua pizten zuenez askotan bere beharretarako, mallorcarrek pentsatu zuten Arago jaunak seinaleak egiten zizkiola Mallorcan lur hartzeko gudarostea zekarren frantses ontzidi bati.

Uhartetar haietako bat, Damian izenekoa, espainiar gobernuak meridioaren neurketa lanetarako bidalia zuen brigantineko lema maisua bera, Arago jaunari arriskuan zela jakinaraztera ausartu zen. Hala, bere herrikideei aurrea

hartu, eta marinel jantziak eramane zizkion, korrika eta presaka, Arago jaunari, haiekin mozerro zedin.

Arago jaunak berehala alde egin zuen bere menditik eta Palmara jo zuen. Bera txiki-txiki egitera zihozenak aurkitu zituen bidean, eta akabatu nahi zuten *gabacho* madarikatu hari buruzko informazioa eskatu zioten. Arago jaunak bertako hizkuntzan oso ondo egiten zuenez, galdera guztiei erantzun zien eta ez zuten ezagutu.

Palmara iritsi zenean, bere brick-era itzuli zen berriro; baina Manoel de Vacaro kapitainak, ordu arte Aragoren agindu guztiak bete zituen arren, Bartzenolara ez zuela eramango esan zion argi eta garbi; eta itsasontzian kutxa bat besterik ez zion eskaini gordeleku gisa, kutxa bat zeinetan, egiaztatu beharrekoak egiaztatuta, Arago jauna ez zen sartu ere egiten.

Biharamunean, jende multzo handia bildu zen itsasertzean amenazoka, eta Vacaro kapitainak Arago jaunari jakinarazi zion berak ez zuela aurrerantzean haren bizitzaren erantzukizuna bere gain hartuko; eta jakinarazi zion, orobat, kapitain jeneralak esandakoaren arabera, Bell-

verko gotorlekura gatibu joatea beste irtenbide-rik ez zuela. Txalupa bat eman zioten itsasartea zeharkatzeko. Herritarrak konturatu egin ziren, ordea, eta Arago jaunaren atzetik abiatu ziren, baina hura harrapatzera zihoazen unean bertan itxi ziren gotorlekuko atea haren gibelean.

Arago jauna bi hilabetez egon zen espetxe hartan, eta kapitain jeneralak jakinarazi zion ez ikusiarena egingo zuela handik ihes egiten bazuen. Hala ihes egin zuen, berarekin batera meridianoaren neurketan ari zen Rodriguez espainiarraren laguntzarekin.

Esclop de Galatzon bizia salbatu zion Damian mallorcarrak berak Aljeriara eraman zuen arrantzaz ontzi batean, Arago jaunak ez baitzuen lehorreratu nahi izan, inondik inora, ez Frantzian ez Espainian.

Gatibu egon zen denboran, zaindari zituen suitzar soldaduengandik jakin ahal izan zuen uharteko fraide batzuek dirua eskaini zietela Arago jauna pozoitzearen truke.

Afrikan ere beste hainbat ezbehar izan zituen gure jakintsuak, eta modu are harrigarriagoan irten zen ezbehar haietatik; hori kontatzea ez

dagokigu guri, ordea, eta egunen batean pasarte interesgarri horiek Aragok berak idatziko dituen itxaropena dugu.

Lehenengo begiratuan, Mallorcako hiriburuak ez du erakusten bere baitan duen nortasun guztia. Hiri barruan ibiliz bakarrik, arratsean hango kale sakon eta misteriotsuetan barrena sartuz bakarrik, nabarmentzen da eraikuntza txikien estilo dotorea eta antolamendu orijinala. Baina uhartearen barrualdetik hiriaren iparraldera iristean gelditzen da agerian bere afrikar tankera.

Laurens jaunak ongi igarri zion edertasun pintagarri hari, arkeologo soil bat harrituko ez lukeen edertasun hari, eta bere handitasunagatik eta malenkoniagatik gehien hunkitu ninduen alderdietako bat irudikatu zuen: San Agustin elizatik hurbileko harresi zati bat, ate makotu txiki bat beste irekiunerik gabeko hormatzar karratu bat duena gainean.

Eraikin hori, palmondo sail batek inguratua, tenplarioen gotorleku baten azken aztarna da, bere goibeltasunaren eta biluztasunaren ederragatik nabarmen ageri dena harresiaren oineko koadro zoragarrian, Valldemossako mendi urdin

urrutikoetan amaitzen den ordoki alai eta eman-korraren koadroan. Ilunabarrean, ordutik ordura aldatzen dira paisaje horretako koloreak, eta gero eta harmonia handiagoz lotzen zaizkio elkarri: eguzkia sartu denean arrosa distiratsu ikusi dugu, gero more eder, eta lila zilarreztu ondoren, eta azkenik, gaua iritsi denean, ikusi dugu urdin garbi eta garden.

Laurens jaunak beste hainbat ikuspegi marraztu zituen Palmako harresietatik begiratu-ta.

«Arratsero, dio, eguzkiak objektuei kolore bizia ematen dien orduan, harresietan ibiltzen nintzen poliki-poliki, eta urrats bat eman orduko gelditu egiten nintzen mendi lerroek edo itsasoa-ak hiriko eraikuntzen teilatuekin osatzen zituzten irudi ederrei so.

»Hemen, harresi barruko ezponda aloe sasi batez estalita zegoen, eta aloe haietatik irteten ziren ehundaka zurtoinen loreek argimutil itzel bat gogorarazten zuten. Harago, palmera sailak zeuden baratzeetan, pikondoez, kaktusez, laranjondoez eta akain-belar loredunez inguratuta; urrunago, ikustoki eta terrazak azaltzen ziren

mahastien itzaletan; eta azkenik, katedralaren orratzen, kanpandorreen eta eliza askotako kupulen inguruak nabarmentzen ziren zeru garbi eta argitsuan.»

Laurens jaunaren ibilaldi kutunetako bat, eta nirea ere bai, Santo Domingo komentuaeren hondakinen ingurukoa da.

Mahatsoko bat dago, marmolezko harroinek eutsia, eta haren ertzean lau palmera handi; terraza formako lorategi hori oso gora dagoenez, erraldoiak dirudite palmerek; eta hain garaiak izaki, hiriko beste monumentu batzuen pare dira, haien maila berean egokitzen baita beren burua. Haien adar artetik ikusten dira Santo Domingo komentuko fatxadaren goialdea, Baleareetako erloju ospetsuaren dorre gotorra, eta Errege Jauregiko Aingeruaren dorrea.

Inkiszioaren komentu hori hondakin pila bat besterik ez da gaur egun, eta sastrapa batzuk eta zenbait landare usaindun agertzen dira han-hemenka zabor artean; baina eraikuntza hori ez du denboraren joanak galdu. Esku are azkarrago eta errukigabeago batek, iraultzaren eskuak, bota eta hauts bihurtu zuen ia erabat monumen-

tu hori, orain dela urte gutxi. Maisu lana izan omen zen, bere oparotasunaren lekuko dira behintzat hondakinak, mosaiko aberatsaren zatiak, eta oraindik zutik dirauten zenbait arku arin, eskeleto baten antzera hutsean jasoak.

Espainia osoan arte katolikoaren santutegi horiek desegin izana haserre iturria da Mallorcka aristokraziarentzat eta atsekabe eragile zilegia artistentzat. Orain dela hamar urte nik neuk ere ezbehar handiagoa hartuko nukeen agian hondamendi horren bandalismoagatik gertaera horrek adierazten duen une historikoagatik baino.

Baina, Marliani jaunak *Espainia Modernoaren Historia politikoa* lanean egin zuen bezala, nik ere arrazoiz deitoratu dezakedan arren dekretu horrek berarekin ekarri behar zituen neurrien ahulezia, eta bortxa, aldi berean, aitortu behar dut hondakinek sortu ohi duten tristura ez bezalako sentipen berezi bat sentitu nuela hondakin haien artean. Tximistak jo zuen han, eta tresna itsua da tximista, gizonaren haserrearen antzeko indar basa bat; baina, gauzak arautzen dituen eta gauza horien nahas-mahas itxurazkoan

nagusi den probidentziaren legeak ondotxo daki hondakinen errautsetan egoten direla ezkutaturik bizitza berri baten oinarriak. Komentu horiek erori ziren egunean izadiak bere astindu eman-korretan izaten duen berritzeko behar horren antzeko zerbait gertatu zen Espainiako giro politikoan.

Ez dut uste, Palman esan zidaten bezala, nahigabetu batzuek, mendeku edo heriotza nahiak harturik, egingo zutenik indarkeriazko ekintza hori herritar izutuen aurrean. Nahigabe asko behar dira eraikintzar bat horrela birrintzeko, eta herritarrek atxikimendu gutxi behar dute berez gogor kontra egingo lioketen dekretu bat horrela betetzen ikusteko.

Aitzitik, uste dut kupula horien gailurretik eraitsitako lehen harriek erauzi egin zituztela herriaren arimatik beldurra eta begirunea, sentimendu horiek ez baitzuten monasterioko kanpandorreak baino euskarri sendoagoa; eta guztiak, misteriozko eta ustekabeko bultzada batek barrua nahastu zielarik, hilotzari jazarri zitzaizkion kemenak eta beldurrak hartuta, haserreak eta errukiak hartuta. Fraidetzak gehiegikeria

asko babesten eta egoismo asko elikatzen zituen; debozioak indar handia du Espainian, eta zalantzarik gabe, aurreko egunean bere aterpetik egotzitako apaizarekin aitortzen zen suntsitzaile bat baino gehiago, damuak jota. Baina gizon ezjakin eta itsuenaren bihotzean ere bada zerbait zoramenaren zoramenez dardarazten duena patuak goreneko eginkizun bat ematen dionean.

Espainiako herritarrek beren diruz eta izerdiz eraiki zituzten araupeko apaizgoaren jauregi aparta horiek, eta mendeetan zehar joan izan zen eraikuntza horien atarira eske nagiaren sosak eta esklabotasun intelektualaren ogi apurrak jasotzera. Haren izugarrikerietan parte izan zuen, haien koldarkeriaz zipriztindu zen. Inkisizioaren sua piztu zuen. Arraza osoak esesteko eta errotik erauzteko helburuarekin egindako esetsaldi izugarrietan gaizkide eta salatari izan zen. Eta halako aberastasun handiak eman zizkioten juduen hondamena amaitu zuenean, ezen bere zibilizazioaren eta handitasunaren sortzaile izandako mairuak erbesteratu zituenean, orduan miseriaren eta ezjakintasunaren zigorra jaso

zuen zerutik. Egonarri eta kupida nahikoa izan zuen bere egintza, galbide eta zigor gertatu zen apaizgo horren kontra ez jazartzeko. Sofrimendu luzea izan zuen bere eskuez egindako uztarri haren azpian. Eta ondoren, egun batean, ahots arrotz batzuk burujabetasunaz eta askatasunaz mintzatu zitzaizkion, ausardiaz, belarrira eta kontzientziara. Bere arbasoen okerra onartu zuen, bere doilorkeriekin lotsatu zen, bere miseriarekin nahigabetu zen, eta nahiz eta oraindik imajinak eta erlikiak gurtzen zituen, apurtu egin zituen irudiak, eta gehiago sinetsi zuen bere eskubideetan bere gurtzetan baino.

Zein da, bada, belauniko zegoen elizkoia batabatean asaldatu zuen indar ezkutua, garai bateko bere fanatismoa betidanik gurtu izan zituen gauzen kontrako bihurtzera eraman zuen indar ezkutua? Ez da, segur aski, ez gizonen atsekabea, ezta gauzen nekea ere. Bere buruaren atsekabea baizik, bere ahalkeriaren nekea.

Eta espainiar herria uste dena baino handiagoa izan zen egun hartan. Behin betiko izango zuen zerbait egin zuen, eta bere erabakiaz damutzera eramango zuten bideetatik urrundu

zen, gizon bihurtu nahi duen mutikoak bere jostailuak puskatzen dituen bezala berriro haiekin jostatzeko tentaldiari ihes egiteko.

Juan Mendizabali dagokionez (merezi du bere izena aipatzea gertaera haiez hitz egitean), baldin eta bere bizitza politikoari buruz jakin dudana zintzoki helerazi badidate behintzat, legezko gizona baino egitezko gizona izan zen gehiago, eta horiexek dira, nire iritziz, haren alde esan daitezkeen laudoriozko hitz ederrenak. Eta estatu gizon honek Espainiaren egoera intelektualean itxaropen handiegia edukitzea batzuetan, eta hartaz zalantza gehiegi egitea besteetan, zenbaitetan neurri gogorregiak edo ahulegiak hartzea eta bere ideiak soro antzuetan ereitea hazia itozteko edo suntsitzeko arriskuan, bada arrazoi nahikoa egitasmo haiek berehalako arrakasta izango bazuten ezinbestekoak zitzaizkion trebetasuna eta kemena ez aitortzeko, baina, ez da arrazoi nahikoa historiak —historia hartu ohi den baino ikuspegi filosofikoago batetik begiratura—, egunen batean, Espainiako gizon eskuzabal eta progresistenetakotzat hartzeko.

Behin baino gehiagotan etorri zitzaizkidan gogoeta horiek burura Mallorcako komentuen hondakinetan; haren izena nola madarikatzen zuten entzuten nuen, eta ez zen, beharbada, egokia guk haren izena laudorioz eta begirunez gorestea. Eta halakoetan, esaten nion neure buruari, unean uneko arazo politikoak alde batera utzita —arazo horiek ez baititut gustuko eta ez baititut ulertzen, hala esan baneza—, banue-la gizonei eta are egiteei buruz ere iritzi sintetiko bat osatzea neure burua engainatzeko beldurrik gabe. Ez da uste eta esaten den bezain beharrezkoa herri bat bertatik bertara ezagutzea, hango ohiturak eta bizitza materialaren azterketa xehea egitea, hari buruzko uste zuzena izateko eta haren historiaren, haren etorkizunaren eta, hitz batean, haren bizitza moralaren benetako funtsa ezagutzeko. Giza bizitzaren historia orokorrean ereduizko lerro luze bat dagoela eta herri guztientzat berdina dela uste dut, eta herrien historia partikularren hari guztiak lerro nagusi horri lotuta daudela. Lerro hori idealaren edo, nahiago izanez gero, perfektogarritasunaren sentimendua eta ahalegin etengabea da,

gizonak bere baitan gorde duena, izan sen itsu gisa, izan teoria argi gisa. Benetan ospetsu izan diren gizon guztiak jabetu dira horretaz eta saiatu dira horretan, zein bere erara, eta ausartenak, ikuspenik garbiena izan dutenak eta etorkizunaren bilakaera bizkortzeko orainaldian ukaldi gogorrenak jo dizkiotenak dira beren garaikideek gehien gutxietsi dituztenak. Ezagutu gabe gutxietsi eta kondenatu dituzte; beren harroinetatik eraitsi dituzte zenbait hutsegite igarokorrek, zenbait ezbehar ulergabeek, eta ez dituzte berriro haietara igo, harik eta beren lanaren fruituak jaso diren arte.

Gure iraultzako zenbat eta zenbat gizon ospetsuren izenak ez ote dira beranduegi eta ez behar bezala garbitu! Eta zenbaten ekintzak eta lanak ulertzen eta azaltzen ote dira oker gaur egun oraindik! Espainian, Mendizabal izan da gogorren epaitu duten ministroetako bat, bera izan baitzen adoretuenetako bat, adoretu bakarra, agian; eta agintean egin zuen denboraldi laburraren oroitzapen ezabaezina utzi duen egintzak, komentuen erabat suntsitzeak alegia, halako arbuio gogorra jasan du, non erabaki

ausart haren eta espainiar herritarrek agindu hura onartzeko eta betetzeko erakutsi zuten gogo beroaren alde jarduteko beharra sortu zaidan.

Hori da, behintzat, hondakin haiek ikusi nituenean nire arima bat-batean bete zuen sentimendua: denborak belztu gabe zeuden artean, eta ematen zuen haiek ere iraganaren kontra zeudela eta herriarengan egia ernatu zela aldarrikatzen ari zirela. Ez dut uste artearen zaletasuna galdu dudarik; ez ditut, behintzat, mende-kuaren eta basakeriaren grinak nabaritzen neure baitan; ez naiz, azkenik, edertasunaren gurtza gauza alferrekotzat duen eta monumentuak suntsitu eta fabrika bihurtu behar direla dioen horietakoa ere; baina herritarren besoek birrindutako Inkisizioaren komentu bat ere garrantzi handiko gertaera da historian, erromatar akueduktu bat edo anfiteatro bat bezain garrantzisia, hura bezain argigarria, eta hura bezain hunkigarria. Gobernu administrazio batek onura ziztrina edo mozkin murrizta ateratzeko tenplu bat odol hotzean hondatzeko agindua emango balu, ekin-tza aski itsusia eta gaitzesgarria egingo luke;

baina, egun erabakior eta arrisku handiko batean, ondasun aberatsago batzuen mesedetan —arrazoiaren, justiziaren eta erlijio askatasunaren mesedetan— artea eta zientzia galbidera eramaten dituen buruzagi politikoak, batetik, eta sen errukitsukoa, arrandia katolikoaren zalea eta fraideekin begirunetsua izanik ere, deketru hori begi itxi-ireki batean betetzeko adina kemen eta beso biltzen duen herriak, bestetik, ekaitzak astindutako eskifaiaren antzera jarduten dute batak zein besteak: aberastasunak uretara jaurtiz salbatzen dute beren burua.

Nahi duenak egin beza negar, beraz, hondakinen gainean! Monumentu horiek suntsitu izana deitoratzen dugun arren, guztiak dira noizbait ziega izanak, eta bai gizadiaren arima, bai haren gorputza ahuldu dute mendeetan zehar. Eta datozela beren bertsoetan munduaren haurtzaroko egunen ihesa deitoratu ordez, urrezko txintxirrin eta zigor odolduen hondakinen gainean, egun haietatik askatu den gizakiaren gizaroa ospatuko duten poetak! Chamissok bertso eder batzuk egin zituen Frantziako iraultzan bere arbasoen gaztelua birrindu zutela eta. Bertso

horien amaieran bai poesian baita politikan ere oso berrizalea izan zen ideia bat agertzen da:

«Bedeinkatua zu, jauregi zahar hori, goldearen muturra gainetik igarotzen zaizun hori! Eta bedeinkatua goldea zure gainetik daramana!»

Poesia eder horren oroitzapena gogora ekarri ondoren, ausartuko al naiz, orain, domingotarren komentuak hartaratuta osatu nituen zenbait orri berridaztera? Zergatik ez, bere buruaganako maitasunari eta bere antzinako joerari uko egin ez egileak eskaintzen dion gogoeta bat epaitzean errukiz aritu behar badu irakurleak? Jar beza atal honek, edonolako dela ere, bizitasun pixka bat egin berri dudan eraikuntzen nomenklatura lehor horretan!

IV. kapitulua

INKISIZIOAREN KOMENTUA

Erortzeko bidean zegoen komentu baten hondakinetan bi gizonak topo egin zuten ilargi argi narean. Sasoi onekoa ematen zuen batak; bestea, berriz, urteen zamak okertua zegoen, eta hala ere, hauxe zen bietan gazteena.

Aurrez aurre elkar ikusi zutenean dardaratu egin ziren biak; izan ere gau berandua zen, kalea mortu zegoen eta katedraleko kanpandorra ordubata jotzen ari zen, goibel eta mantso.

Zahar itxura zuenak hitz egin zuen lehenengo:

— Zarena zarela —esan zuen—, ez izan nire beldurrik, gizona; akituta eta lurjota nago: ez ezazu, baina, nigandik ezer itxaro, pobrea naiz eta larrugorri nago munduan.

— Laguna —erantzun zion gazteak—, eraso egiten didatenak bakarrik ditut nik etsai, eta zu bezalaxe, neu ere pobreegia naiz lapurren beldur izateko.

— Anaia —esan zuen itxura zimeleko gizonak—, zergatik dardaratu zara, orduan, oraintxe zugana hurbildu naizenean?

— Sineskor samarra naizelako, artista guztiak bezala, eta jada existitzen ez diren fraide horietako baten mamutzat hartu zaitudalako, oraintxe zapaltzen ari garen hilobietako fraide horietako baten mamutzat. Eta zu, adiskidea, zergatik dardaratu zara ni hurbiltzean?

— Oso sineskorra naizelako, fraide guztiak bezalaxe, eta zu orain zapaltzen ari zaren hilobi horietako batean bizirik sartu ninduten beste fraide haietako baten mamutzat hartu zaitudalako.

— Zer diozu, anaia? Espainiako lurretan gogo biziz baina alferrik bilatu dudan gizon horietako bat al zara?

— Honezkero ez gaituzu eguzki argitan inon aurkituko; baina gauaren ilunbean bai, ikusi ahal izango gaituzu oraindik. Zure nahia bete da beraz; baina, zertarako nahi zenuen fraide bat?

— Berorri begiratu nahi nion, galdetu egin nahi nion, aita; berorren hazpegiak nire gogoan finkatu nahi nituen gero pinturan islatzeko; bero-

rren hitzak entzun nahi nituen gero nire erkideei hitz haiek esateko; eta berori ezagutu nahi nuen, fraidearen eta klaustroko bizitzaren misterioaz, poesiaz eta handitasunaz neure burua blaitzeko.

— Nondik sortu zaizu, oi bidaiaria, gauza hauei buruz duzun iritzi bitxi hori? Ez al da zure herrian deuseztu aita santuen nagusitasuna, ez al zaie esetsi fraideei eta ez al dira eraitsi klaustroak?

— Oraindik badira gure artean iraganari jaierra handia dioten arimak eta Erdi Aroaren poesiak hunkituriko irudimen sutsuak. Haren usaina ekar dakigukeen edozer miresten dugu, gurtzen dugu ia. Ai, ez beza pentsa, aita, profanatzailerak garenik guztiak. Guk, artistok, gorrotoa diogu ukitzen duen oro orbantzen eta hondatzen duen herri basati horri. Hilketarako eta hondamenerako ematen dituen aginduak berretsi ordez, ahalegina egiten dugu gure koadroetan, gure olerkietan, gure antzerkietan, eta azken batean, gure obra guztian, tradizio zaharrak berriro biziarazteko, ahalegina egiten dugu arte kristauak, izaki benetan miresgarri horrek, sorturiko mistizismoaren izpiritua berpizteko.

— Zer diozu seme nirea? Nola liteke zure herri aske eta oparo horretako artistek oraina ez den ezertan bilatzea goiargia? Hainbeste gauza berri dituzte kantatzeko, margotzeko, adierazteko! Eta, zuk diozun bezala, beren arbasoak lo dautzan lurrera makurturik biziko al dira? Hilobietako hautsean bilatuko al dute goiargi irribarretsu eta emankorra, hain bizitza gozo eta ederra eman dielarik Jainkoak bere zintzotasunarekin?

— Ez dakit, elizgizon zintzoa, zertan den gure bizitza berorrek irudikatu duen horren antzekoa. Gu, artistok, ez gara kezkatzen gertaera politiko- ez, eta are ardura gutxiago dugu gizarteko gertaerez. Alferrik gabiltza gure inguruan gertatzen diren gauzen poesiaren bila. Arteak ahitzen ari dira, goiargia itzali egin da, arrunkeria nagusitu da, bizitza materialak harrapatuta dauka gizakia; eta iraganaren gurtzarekin eta mendez mendeko fedearen monumentuekin berpiztuko ez bagina, hainbeste kostata iraunarazten diogun su sakratua sekula betiko galduko genuke.

— Hala ere, esan didate giza jeinuak sekula baino urrunago eraman dituela zuen herrialdean

zorionaren zientzia, industriaren miragarriak, askatasunaren onurak. Gezurra esan al didate, bada?

— Esan badiote, aita, aberastasun materiale-tatik sekula ez zela orain adinako luxua eta ongi-zatea atera eta antzinako gizartearen hondarretatik sekula ez zela halako gustu, sinesmen eta iritzi aniztasun beldurgarririk atera, egia esan diote orduan. Baina gauza horiek guztiek zoriona ekarri ordez gaiztotu eta doilortu egin gaituztela esan ez badiote, orduan ez diote egia osoa esan.

— Nondik etor daiteke, bada, halako emaitza bitxia? Zorionaren iturri guztiak kutsatu egin al dira zuen ezpainenetan; txiki eta miserable egin al zaituzte, akaso, gizadia handi, justu eta zintzo egiten duten ongizateak eta askatasunak? Azal iezadazu, arren, mirari hori.

— Aita, nik gogoratu behar al diot gizona ez dela ogiz bakarrik bizi? Fedea galdu dugularik, gainerako lorpen guztiak hutsalak zaizkio gure arimari.

— Eta azaldu iezadazu orobat, seme, nolatan galdu duzuen fedea eta ez duzuen, zure herrian erlijio esetsaldi guztiak eten direla baliatuta,

arima zabaldu eta begiak jainkozko argira zuzendu. Horixe zenuten sinesteko garaia, horixe baitzen jakiteko garaia ere. Eta une horretan egin duzue zalantza? Zein hodeik ilundu du, bada, zuen burua?

— Ahuleziaren eta giza miseriaren hodeiak. Azterketa ez al da fedeari kontrajarria, aita?

— Galdera hori fedea eta egia elkarri kontrajarriak ote diren galdetzea bezala da, gazte. Ez duzu, beraz, ezertan sinesten, seme? Edota gezurrean sinesten duzu, akaso?

— Ai! Nik ez dut artean beste ezertan sinesten. Baina ez al da hori nahikoa arimari indar, konfiantza eta gozamen gorena emateko?

— Ez nekien, seme nirea, eta ez dut ulertzen. Ba al da norbait zorionsua zuen artean? Eta zerorrek, zerorrek bilatu al duzu akidurari eta minari izuri egiteko biderik?

— Ez, aita, artistak dira gizon guztietan zorigaitzokoenak, etsituenak, oinazetuenak; beren gurtzaren gaia behera eta behera nola doan ikusten baitute egunez egun, eta eginahalak eginda ere ezin baitute berriro lehengora ekarri.

— Nola liteke halako gizon zuhurrek artea horrela hiltzen uztea, berriro bizi arazi ordez?

— Ez dute federik, eta federik ezean ezin arterik egon.

— Ez al didazu oraintxe esan artea erlijio bat zela zuretzat? Zeure buruari kontra egiten ari zara, seme; edo nik ez dizut ezer ulertzen, bestela.

— Eta nola ez diogu, bada, gure buruari kontra egingo, aita nirea, Jainkoak eman digun egitekhoa ukatzen badigu munduak, aintzaren, goiargiaren, bizitzaren ateak ixten badizkigu orainak, iraganean bizitzera behartuta bagaude, eta behartuta bagaude, halaber, hildakoei galde egitera edertasun betikoaren —zeinaren gurtza galdu eta zeinaren aldareak eraitsi baitituzte gaurko gizonek— sekretuez? Maisu handien obren aurrean, eta haiek berdintzeko itxaropenak irri egiten digunean, indarra eta kemena hartzen dugu; baina gure amets handinahiak egia bihurtu nahi ditugunean mundu sinesgogor eta mugaz beteriko honek gutxiespenaren eta isekaren hotza bidaltzen digularik, ezin dugu gure idealarekin bat datorren ezer ere sortu, eta

gure baitan hiltzen da pentsamendua, argitara atera aurretik.

Artista gaztea etsipenak jota mintzo zen, ilargiak haren aurpegi goibel harroa argitzen zuen, eta fraidea hari so zegoen harridurazko keinu inozo eta onbera batez.

— Eser gaitezen hementxe —esan zuen fraideak une bateko isiltasunaren ondoren, eta hiria, landa eta itsasoa ikusten ziren terraza bateko balaustrada gotorraren alboan gelditu zen.

Domingotarren komentuko bazter hori loreez, iturriz eta balio handiko marmolez beteta egon zen, aspaldi ez dela; gaur egun, aldiz, dago zeharo hondatuta eta hondakinetan halako indarrez eta bizitasunez hazten diren belar luze guztiez beteta.

Bidaiariak, asaldatuta baitzegoen, eskuarekin belar bat atera eta urrutira bota zuen, intziri eginez. Fraideak irribarre egin zion.

— Ziztada hau ziztada bizia da —esan zuen—, baina ez arriskutsua. Seme nirea, batere arretarik gabe ukitzen duzun eta mintzen zaituen arantza hori duzu oraintxe ahuenka jardutera eramane zaituzten gizon lotsagabe horien ikurra.

Jauregiak eta komentuak hartu dituzte. Aldare gainera igo dira eta mundu honetako antzinako oparotasunaren hondakinen gainean bizi dira. Begira ezazu nolako izerdiz eta indarrez bete dituen belar gaiztoak guk hain maitekiro lantzen genituen landare guri eta balio handikoen parterrak, zeinetan gure landare haietako bakar batek ere ezin izan baitu bizirik iraun! Bada, belar gaiztoak bezala bazterrera gelditu ohi ziren gizon arrunt eta ia basatiek ere horrelaxe berreskuratzen dituzte beren eskubideak eta ito dute ezkutuan hazten ari zen eta Inkisizio deitzen zuten landare pozoitsu hori.

— Eta ezin al zuten arte kristauaren santutegiak eta jeinu obrak hondatu gabe ito landarea?

— Ezinbestekoa zen landare madarikatua errotik ateratzea, landare bizikorra eta igokaria baitzen. Hondatu egin behar izan dira landare hark erroak eginda zituen klaustro hauen zimenduak ere.

— Baina, aita, haien lekuan orain hazten diren belar arantzatsu hauek zertan dira eder eta zertan dira on?

Fraidea pentsakor gelditu zen une batez, eta ondoren erantzun zuen:

— Margolaria zarela esaten duzunez, hondakin hauen marrazki bat egingo duzu, ezta?

— Jakina ba. Baina nora iritsi nahi du berorrek?

— Ez dituzu irudikatuko hondakinen gainean girlandak balira bezala jausten diren eta haizetan kulunka dabiltzan belar gaizto horiek? Ala, aitzitik, zure konposizioaren osagai zorioneko bihurtuko dituzu, Salvatore Rosaren koadro batean ikusi dudan bezala?

— Hondakinen adiskide bereizezinak dira, eta ez dago haietatik onura ateratzen ez duen margolari bakar bat ere.

— Badute edertasunik, beraz, badute esanahirik, eta horrenbestez, badute erabilgarritasunik ere.

— Berorren parabola ez da bidezkoa, aita; eser bitza harkaitz horien gainean eskaleak eta ijitoak, eta are zorigaiztokoagoak eta goibelagoak izango dira orduan harkaitzak. Koadroak irabazi egingo du horrekin, bai; baina zer irabaziko du gizadiak?

— Koadro eder bat agian, eta irakaspén bikaina, zalantzarik gabe. Baina zuek, irakaspén hori ematen duzuen artistok, ez zarete jabetzen zertan ari zareten eta amiltzen diren harri batzuk eta hazten den belarra besterik ez duzue ikusten hemen.

— Oso zorrotza da, gero; berorri, horrela mintzo den horri, erantzun liezaioke hondamen honetan ez duela berorren espetxe hondatu eta askatasun berreskuratua besterik ikusten; zeren, susmoa dut, aita, berorrek ez zuela komentua gustuko.

— Eta zuk, seme, sentitu al zenezake hemen kexu izan gabe bizitzeko adina maitasunik artearekiko eta poesiarekiko?

— Munduko bizitzarik ederrena izango nukeela iruditzen zait. Oi, bai handia izango zela komentu hau, eta zein arranditsua bere estiloa! Nolako oparotasuna eta dotoretasuna iragartzen duten hondakin hauek! Bai gozoa izango zela gauez hona etortzea, aire gozoa arnastera eta itsasoaren urruma entzutera galeria arin horiek mosaiko aberatsez estalita zeuden garaian, eta ur gardenak marmolezko ur asketan xuxurlatzen

zuen garaian, eta santutegiaren barrenean izar zuri bat bailitzan zilarrezko lanpara bat piztuta zegoen garaian! Hura bake sakona, hura isiltasun zoragarria izan behar zenutena gizonen begiruneak eta konfiantzak harresi garaitezin batek bezala biltzen zintuzten garaian, gizonek zuen atari misterioitsuaren aurretik igarotzen zirenero isilik-isilik aitaren egiten zuten garaian! Ai! Nork ez zukeen gizarte bizitzak dakartzan kezka guztietatik, neke guztietatik eta anbizio guztietatik askatu eta hemen gorde nahiko, patxada ederrean eta mundu guztiaren ahanzturan, artista izaten jarraitzearren: hamar urte, edo hogeitahi ere bai agian, igaro ahal izatearren koadro bakar bat margotzen, poliki-poliki diamante bat bezala landutako eta gerora aldare baten gainean jarrita —ez haren aurretik igarotzen den lehen ezjakinak epaitu edo kritika dezan, baizik eta Jainkoaren beraren adierazpena balitz bezala hari gur egin eta erregu egin diezaion— ikusiko lukeen koadro bat margotzen.

— Atzerritar hori —esan zuen fraideak, zorrotz—, harrokeriaz beterik daude zure hitzak eta handikeria hutsa dira zure ametsak. Hain

suhar goستن eta hainbeste ohoratzen duzun arte horretan zeure burua besterik ez duzu ikusten, eta zuk iritsi nahi zenukeen bakartasun hori ez litzateke, zure begietara, zure burua goratzeko eta jainkotzeko bide bat besterik. Orain konturatzen naiz nolatan sinesten duzun arte berekoi horretan, inongo erlijio edo gizartetan sinesmenik izan gabe. Litekeena da esan duzuna esan aurretik horri guztiari buruzko gogoetarik ez egin izana zure izpirituan; litekeena da ustelkeriaren eta izuaren zulo horietan zer gertatzen zen ez jakitea. Zatoz nirekin, nik erakutsiko dizudanak zure sentimenduak eta ideiak aldatuko ditu, agian.

Hondakin mendietan eta amildegi ezezagun eta arriskutsuetan zehar eramane zuten fraideak bidaiari gaztea —ez arriskurik gabe—, monasterio hondatuaren erdiraino; han, antzina ziegak egondako tokian, aitzurrak eta pikotxak oinarrietaraino arraildu zuten hamabost oin lodiko erai-kin gotor baten hormetan behera kontu handiz jaisteko agindu zion. Harri eta zementuzko estalki izugarri horren barruan ez airerik ez argirik gabeko ziegak ikusten ziren, lurraren baitan

zabaldutako zuloen antzera, haien ganga goibelen gainekoak bezain horma lodiez bata bestetik bereziak.

— Gazte —esan zion fraideak— hor ikusten dituzun osin horiek ez dira putzuak, ezta hilobiak ere; Inkisizioaren ziegak dira horiek. Hortxe hil dira, mendez mende, Jainkoaren aurrean errudun izan, hobengabe izan, bizioak hondamenera eramanez izan, suharrak galbidera eramanez izan, jeinuak eta bertuteak argituak izan, Inkisizioarenaz bestelako pentsamendua izan duten gizon guztiak.

»Aita domingotarrak jakintsu, letradun, are artistak ziren. Liburutegi handiak zituzten, eta teologiaren sotiltasunak, urrez eta larru apainduz josita, bere ertz perla eta errubiz apainduak erakusten zituen liburutegi haietako ebanozko apaletan. Eta, hala ere, bizirik hobiratzen zuten gizona, Jainkoak bere pentsamendua eskuz idatzi zuen liburu bizi hori, eta ezkututzen zuten lurraren errailetan. Bazituzten zilar zizelatuzko ontziak, harribitxiz apaindutako kalizak, koadro zoragarriak eta urre eta bolizko madonak; eta hala ere, heriotzaren hotzaren eta hilobiko ziza-

reen mende uzten zuten bizirik gizona, ontzi hautatu hori, zeruko graziaz beteriko kaliz hori, Jainkoaren beraren irudi dena. Larrosak eta nartzisoak lantzeko haur bat zaintzeko jar daitekeen adinako arreta eta maitasuna jartzen zuen hark berak kupidarik sentitu gabe ikusten zuen bere kideko bat, bere anaia, nola zurbiltzen eta usteltzen zen bere hilobiko hezetasunean.

»Horra hor fraidea zer den, seme, horra hor klaustroa zer den. Ankerkeria basa alde batetik, izu koldarra bestetik; jakinduria berekoia edo mamirik gabeko debozioa, horixe da Inkisizioa.

»Eta hobi ustelak zeruko argitara zabaltzean askatzaileek zutabe eta latoi bitxi batzuk aurkitu izana arrazoi nahikoa al da berriro hilobiko hila-ripean sartzeko hilzorian diren biktimak eta arrazoi nahikoa al da biktima horien borreroen patuagatik negar egiteko aurrerantzean urrea eta esklaboak falta izango zaizkielako?»

Artista hilobi batera jaitsi zen eta arretaz aztertu zituen hormak. Bizirik hilobiraturiko giza borondateak gatibualdi haren etsipen lazgarriaren kontra izango zuen borroka gogoan irudikatzen saiatu zen une batez. Baina koadro haren

irudia osatu orduko bereirudimen bizi eta hunki-beran, etsipenak eta izuak hartuta gelditu zitzaion erabat. Ganga izoztu haien astuntasuna nabaritu uste izan zuen bere arima gainean; besoak eta hankak dardaratu zitzaizkion, bularra airerik gabe gelditu zitzaion, amildegi hartatik ihes egin nahian akituta sentitu zen, eta oihu egin zuen, fraidea zegoen aldera luzatuz besoak, kanpoan gelditu baitzen hura:

— Lagundu aita nirea, hemendik irteten lagundu, Jainkoaren izenean!

— Imajina ezazu, seme —esan zion fraideak hari eskua luzatuz—, zure buru gainean izar distiratsuak ikusita oraintxe sentitzen ari zaren hori bera nola sentitu nuen nik hamar urteko oina-zeen ondoren berriro eguzkia ikusi nuenean!

— Zuk, fraide gaixo horrek —esan zuen bidaiariak, lorategirantz zihoala bizkor-bizkor—, hamar urtez aurre egin ahal izan zenion heriotza iragarriari burua edo bizia galdu gabe? Une bakar batez han egon banintz ergeldu edo erogaiztotu egingo nintzatekeela iruditzen zait. Ez, ez nuen uste ziega bat ikusteak halako izu bat-bateko eta sakona eragin zezakeenik, eta ez dut

ulertzen pentsamendua nola ohitzen den horretara eta nola ez duen amor ematen horren aurrean. Torturarako tresnak ikusi ditut Venezian, ikusi ditut, orobat, Dukearen jauregiko ziegak eta esku ikusezin batek jota jendea erortzen irteerarik gabeko kalek hura, eta odola aztarnarik batere utzi gabe ubidera erortzen zen harlauza zuloduna. Han heriotzaren ideia bakkarririk etorri zitzaidan gogora, heriotza azkarrago ala mantsoagoaren ideia. Baina jaitsi berri naizen ziega horretan, bizitzaren ideia izugarria da nire gogoak irudikatu duena. O, Jauna! Han egon eta ezin hil!

— Begira iezadazu, seme —esan zuen fraideak eta bere buru soil zimela agerian utzi zuen—; nik ez dut zure aurpegi adoretuak eta kopeta lasaiak erakusten dutena baino urte gehiago, eta, ziur nago aguretzat hartu nauzula.

»Ez dio axola nola irabazi eta nola gaintitu nuen atsekabe gorri hura. Ez dut zure errukia nahi; jada ez dut horren beharrik, hain sentitzen naiz zoriontsu eta gazte horma hauek hondatuta eta ziegak hutsik daudela ikusita. Ez dizut fraideen izua gorputzean sartu nahi, aske dira

haiek, eta aske naiz ni neu; Jainkoa guztiekin da ona. Baina, artista zarenez gero, osasungarria izango da zuretzat artistari, bere obra ulertuko badu, ezinbestekoak zaizkion emozio horietako bat bizi izana.

»Eta orain, margotu nahi izanez gero hondakin hauek, zeintzuen gainean aritu zaren orain-txe iraganagatik negarrez eta zeintzuen gainean jartzen naizen gauero ahuspez Jainkoari orainagatik eskerrak emateko, nostalgia doilor edo lilura antzu bat baino pentsamendu gorenago batek bizituko ditu, agian, zure eskua eta jeinua. Zaharinen bildumazaleentzat balio infinitua duten monumentu askoren merezimendu bakarra gizadiak monumentu horiek eraikitzeke izandako arrazoia gogora ekartzea da, eta askotan gertaera bidegabeak edo funtsgabeak izan ziren gainera. Bidaia asko egin dituzunez, ikusi duzu Genoan amildegi baten gainean zubia, kaia erraldoiak eta ibaia zeharkatu nahi ez zuen eta bere parrokiako sinestunekin eliza berean belau-nikatu nahi ez zuen patrizio baten harrotasunagatik mortu gelditutako auzo batean neke handiz eraikitako eliza astun eta aberatsa. Ikusi ditu-

zu, agian, herrien esklabotasunaren erakusgarri gelditu diren Egiptoko piramide izugarriak, edo jainko barbaroen egarri aseezina asetzearen gizonaren odola ibaika isuri zeneko dolmenak. Baina zuek, artistak, gizonaren obretan obra horren edertasuna edo berezitasuna bakarrik hartzen duzue kontuan, eta ez zarete jabetzen obra horren forma zer ideiak sorrarazi duen. Horrela, ideia hartaz jabetuz gero, zuen bihotzak biziki gaitzetsiko zukeen sentimendu baten adierazpena gurtzen du zuen adimenak.

»Hona hemen zuen obrek bizitzaren benetako kolorea zergatik falta duten, batez ere gizadi eragilearen zainetan dabilen odolaren kolorea adierazi ordez, ulertu nahi ez duzuen hildakoena interpretatzeko ahalegina egiten duzuelako.»

— Aita nirea —erantzun zuen gazteak— ulertzen ditut zure irakaspenak eta ez ditut erabat baztertzen, gainera, baina artea filosofia horretan oinarritua izan daitekeela uste duzu benetan? Gure garaiko arrazoiari jarraituz azaltzen duzu gure arbasoen sineskeria burutsuak ameskeria poetikoan sortu zuena. Baina, Greziako jainko irribarretsuen ordez haien forma biribil-

duek ezkutatzen dituzten alegia hutsalak jarriko bagenitu, florentziarren madonaren ordezkariak tabernako neska sendo bat margotuko bagenu, holandarrek bezala, edota Platonen eskolako filosofo sineskor bihurtuko bagenu Jainkoaren seme Jesus, orduan, gizonak bakarrik izango genituzke jainkoen ordezkariak, hemen ere tenplu kristau baten ordezkariak harri pila bat baino ez dugun bezalaxe.

— Nire semea —esan zuen fraideak— florentziarrek jainkoen ordezkariak eman badizkiote Ama Birjinari, oraindik hartan sinesten dutelako izan da; eta holandarrek ordezkariak arruntak eman badizkiote, berriz, hartan sinesten ez dutelako izan da. Eta zuek harro zaudete gai sakratuak pintatzen dituzuelako, zuek, artean baino, hau da, zuegan baino sinesten ez duzuenok! Sekula ez duzue halakorik lortuko. Ez zaitezte gehiago ahalegindu, beraz, zuentzat ukigarria edo bizia ez den ezer irudikatzen.

»Ni margolaria izan banintz, nire askapenaren eguna deskribatuko zuen koadro eder bat egingo nukeen; gizon adoretu eta sendoak irudikatuko nituzkeen, esku batean mailua eta

zuzia bestean, erakutsi berri dizkizudan inkisizio-aren linbo horretan sartzen, hilarri usteletik begi itzaliko eta irribarre izutuko mamuak altxatzen. Aureola bat bezala ikusiko zen zeruetako argia buru horiek guztiak argitzen ganga hautsien pitzaduretan zehar, eta nire garairako aski gai ederra, aski egokia izango litzateke, Michelangeloren Azken Judizioa bere garairako izan zen bezain eder eta egokia: izan ere, herriko gizon horiek, hain baldar eta gutxiesgarriak hondamenaren obrarentzat, zeruko aingeru guztiak baino ederragoak eta zintzoagoak iruditu zitzaizkidan niri; eta hondamen hau, zuri tristura eta nahigabea ematen dizuna, eraitsi aurretik sekula izan zena baino monumentu erlijiosoagoa iruditzen zait niri.

»Etorkizuneko belaunaldiei gure belaunaldia-
ren handitasunaren eta indarraren lekuko gisa
aldare bat eraikitzekeo ardura neure gain izan
banu, ez nukeen nahi izango hondakinezko
mendi hau besterik, zeinaren gainean idatziko
nukeen, harri bedeinkatuan, ondoko idazki hau:

»Ezjakintasunaren eta ankerkeriaren aroan,
gizonek mendekuaren eta pairamenaren Jainkoa

gurtu zuten aldare honetan. Justiziaren egunean, eta gizadiaren izenean, gizonek aldare odolgiro hauek eraitsi zituzten, arras gorrotagarriak baitziren urrikiaren Jainkoaren begietan.»

V. kapitulua

Ziega haiek ez nituen Palman ikusi, Bartzelonan baizik, Inkisizioaren etxeko hondakinetan, hamalau oin lodiko hormetan zulatuta. Seguru asko Palmako ziegetan ez zen presorik izango herritarrak hara sartu zirenean. Hortaz, mallorcarren sentikortasunari barkamena eskatzen diot irakurri berri den testu horretan hartu dudana *lizentzia poetikoagatik*.

Dena dela, esan behar dut, egiaren arrastorik ez duen ezer ezin asma daitekeenez, ezagutu nuela Mallorcan abade bat, gaur egun Palmako parrokia bateko erretore, zeinak Inkisizioaren presondegian igaro baitzituen bere bizitzako zazpi urte, *bere gaztaroko onenak*, eta zeina berarekin liluraturik zegoen dama baten babesari esker bakarrik irten ahal izan baitzen handik. Sasoi betean zegoen gizona, begiak zituen bizi-biziak eta manera atseginak. Ez zuen, itxuraz, ofizio santuaren errejimena asko ere deitoratzen.

Domingotarren komentu horri dagokionez, Grasset Saint-Sauveurren pasarte bat aipatuko dut; ezin leporatu zaio alderdikeriaz jokatu izana, hasieran biziki gorai patzen baititu inkisidoreak, zeintzuekin harremanak izan baitzituen Mallorcan:

«Baina, oraindik ere, juduen kontra garai batean egindako basakeriak gogora ekartzen dituzten pinturak ikus daitezke Santo Domingo-klaustroan. Sutan erretako dohakabe bakoitza koadro batean agertzen da, oinean jarrita dagoela dohakabearen izena, adina, eta hil zuten garaia.

»Esan didate, errukarri haien ondorengoek, gaur egun Palmako biztanleen artean *chouettes* izen barregarria duen talde berezia osatzen dutenek, diru kopuru handiak eskaini zituztela, alferrik ordea, monumentu samingarri haiek ezaba zitzaten. Ez nuen halakorik sinetsi...

»Dena dela, ez dut sekula ahaztuko domingotarren klaustroan nenbilen egun batean pintura triste haiei nola begiratu nien samintasunez: fraide bat hurbildu zitzaidan eta koadro haietako asko gurutzean jarritako hezurrez markatuta

zeudela ohartarazi zidan. «Erretratu hauek, esan zidan, errautsak lurretik atera eta haizetara barreiatu zituztenen erretratuak dira».

»Odola izoztu zitzaidan; korrika irten nintzen handik, ikuskizun hark bihotza erdibitu baitzidan eta izpiritua zauritu.

»Patuak zerrenda bat ekarri zidan eskura, 1755ean argitaratu zena Inkisizioaren aginduz: 1645etik 1691 arte Mallorcan kondenatu zituzten zoritzarrekoen izenak, abizenak, ezaugarriak eta delituak azaltzen ziren zerrenda hartan.

»Dardara batean irakurri nuen idatzi hura: lau mallorcar aurkitu nituen, emakume bat tartean, bizirik erreak judaismoa zela eta; beste hogeita hamabi, Inkisizioaren ziegatan arrazoi beragatik hilak eta hil ondoren erreak; hiruren errautsak lurretik atera eta barreiatu zituzten haizetara; holandar bat zegoen luteranotzat salatua; mallorcar bat, mahometanotzat salatua; sei portuges, tartean emakume bat, eta sei mallorcar, judutzat akusatuak, irudian erreak, ihes egiteko zori ona izan baitzuten. Beste berrehun eta hamasei biktima kontatu nituen, mallorcarrak eta atzerritarrak, judu, heretiko edo

mahometanotzat salatuak izan arren espetxetik irten zirenak jendaurrean damua agertu zutelako eta Elizaren altzora itzuli zirelako.

»Katalogo izugarri hori Inkisizioaren dekretu ez gozoago batekin amaitzen zen».

Grasset jaunak gaztelerazko testua ematen du ondoren; hona hemen haren hitzez hitzeko itzulpena.

«Zerrenda horretan aipatutako errudun guztiak jendaurrean kondenatu zituen ofizio santuak, heretikotzat ezagututa; haien ondasun guztiak bahian hartu eta errege altxorak beretu zituen; eta ezgai eta ezgauzatzat hartu zituzten aginte edo ondasun elizakoak zein sekularrak edukitzeko edo lortzeko, eta orobat beste ofizio publiko edo ohorezkorik betetzeko ere; ezin eraman zuten soinean, eta ezin zieten beren mendekoei eramanarazi, ez urre eta ez zilar, perla, harribitxi, koral, seda, artile, edo oihal finik; ez zeukaten zaldiz ibiltzerik, ezta armarik eramaterik ere, eta ezin zuten erreinu horretako zuzenbide orokorrak, legeak edo pragmatikak, eta ofizio santuaren aginduek eta estiloak, era horretan mailaz beheratutakoei debekatzen zien beste

edozer egin edo erabili; debeku hori bera zego-
kien erreta hiltzera kondenatutako emakumeei,
haien seme-alabei, eta erreta hiltzera kondenatutako
gizonezkoetan, berriz, haien semeen seme-alabei;
zigortu zen, era berean, irudian erretakoen oroitzapena,
agindu eman zen beren hezurak (kristau fidelen hezurretatik bereiz
baitzitezkeen) lurretik atera, eta justiziaren eta
aginte sekularraren esku utz zitezzen, erre eta
errauts bihurtzeko gero; ezabatu eta karrakatu
ziren haien hilobietako idazkun guztiak eta edozein
lekutan jarrita edo margotuta agertzen ziren
haien armariak, halako eran, ezen ez *baitzen
lurrean haien arrastorik batere geldituko, salbu
haien kontrako epaiaren eta hilketaren oroitzapena.*»

Era horretako agiriak irakurtzen direnean,
gure garaian hain hurbilekoak izaki, eta ikusten
denean juduak kristautu zirenetik hamabi edo
hamabost belaunaldi igaro ondoren ere nolako
gorroto garaitezinak esesten duen gaur egun
Mallorcako arraza errukarri hori, ezin sinets
daiteke Inkisizioaren izpiritua Mendizabalen

dekretuaren garaian esan zen bezala erabat iraungia zenik.

Ez dut artikulu hau amaituko eta ez naiz inki-sizioaren komentutik irtengo irakurleari aurki-kuntza ikusgarri baten berri eman gabe. Aurki-kuntza horren ohore guztia Tastu jaunarena da; aurkikuntza horrek ospea ekarriko zion orain dela hogeita hamar urte jakintsu hari, baldin eta, bihotz onez, munduaren nagusiaren esku utzi ez balu behintzat, bere buruaren onura bilatu gabe, eta uste hau egokitzen zaio bestea baino hobeto Tastuk zuen artista axolagabe eta ardurabearen izakerari.

Idazki hori interesgarriegia da nik oso-osorik ez emateko. Hona hemen, beraz, niri eskura eto-rrri bezalaxe, argitaratzeko baimenarekin.

Santo Domingo komentua Palman

Santo Domingoren kide batek, Miguel de Fabrak, sortu zuen anaia predikarien ordena Mallorcan. Gaztela Zaharrekoa zen jaiotzez, eta Jaime I.aren laguntzaile izan zen Balear nagusia-ren konkistan, 1229an. Gizon ikasia eta argia zen, eta debozio gartsukoa; eta itzal handia

ematen zion horrek Conquistador-aren, bere kide nobleen, eta are bere soldaduen aurrean. Sutsu mintzatzan zitzaien gudariei, meza ematen zuen, komunioa ematen zien eliztarrei eta gogor hartzen zituen fedegabeak, garai hartan elizgizonek egin ohi zuten bezala. Arabiarrek esaten zuten Ama Birjinak eta aita Miguelek biek bakarrik konkistatu zituztela. Soldadu aragoitar eta kataluniarrek Jainkoari eta Ama Birjinari erregutu ondoren Miguel Fabra aitari erregutzen zioten, hala esaten da behintzat.

Domingotar ospetsu honek bere adiskide Domingoren eskutik hartu zituen bere ordenako fraide jantziak Tolosan: Domingok Parisa bidali zuen beste bi kiderekin batera garrantzizko egin-kizun bat betetzera. Miguelek sortu zuen lehenengo komentu domingotarra Palman, Mallorcake gotzain nagusiaren prokuradore D.J.R. de Torellak emandako laguntza baten bidez: 1231. urtean izan zen hori.

Meskita bat eta meskita horren mendeko zenbait kana lur erabili ziren hastapenetan. Anai predikariek komunitatea handitu zuten geroago, era guztietako gaien salerosketa aberasgarriari

eta eliztarrek maiz samar egiten zituzten diru emateei esker. Dena dela, lehenengo fundatzailea, Miguel de Fabra anaia, Valentziara joan zen hiltzera, berak konkistatzen lagundu zuen lurraldera hain zuzen.

Jaime Fabra izan zen domingotarren komentuko arkitektoa. Ez da inon aipatzen aita Miguelen senide zenik, abizen berekoak izan arren; planoak 1296. urte inguruan eman zituela eta handik urte batzuetara Bartzelonako katedralekoak (1371) eta Aragoiko erregeen lurraldeko beste hainbateko planoak marraztu zituela, beste ezer ez da ezagutzen.

Komentuak eta elizak hainbat aldaketa jasan dituzte denboraren joanean, une batez alderatzen badira, guk egin dugun bezala, minek hondatutako monumentuen zatiak. Hemen ez da hamalagarren mendeko estiloko ataurre eder bat besterik gelditzen; baina harantzago, hondakinen artean dauden arku hautsiek eta ganga etzanek —monumentuaren osagai, hauek ere— Jaime Fabraz gainera beste arkitekto batzuk aritu zirela erakusten dute, hura baino maila apalagoko arkitektoak halere.

Hondakin hedadura handiko horietan —zeinetan zutik irau duen gauza bakarria mendeetan han egondako palmondo batzuk, gure erregei esker gordeak, baitira— deitoratu ahal izan dugu Bartzelonan Santa Katalina eta San Franziskoren komentuetan egin genuen bezala, irizpiderik gabeko suntsitze horiek politika hotzak bakarrik eraginak izana.

Hala da, arteak eta historiak ez dute ezer ere galdu Palmako San Jeronimoren komentua erortzen ikustearekin, edo Bartzelonako San Franziskoren komentua, *muralla del Mar* inguratzen zuena eta traba besterik egiten ez zuena, erortzen ikustearekin; baina, historiaren izenean, eta artearen izenean, zergatik ez ziren gorde behar, monumentu gisa bederen, Bartzelonako Santa Katalinaren komentua eta Palmako Santo Domingorena, zeinetako habeartean gordetzen baitziren jende zintzoaren hilobiak, *las sepulturas de personas de be*, gure eskuetara iritsi den eta komentuko artxiboetakoa zen koaderno txiki batek dioen bezala? N. Cotoner, Maltako Ordenako Burua, izenaren ondoren beste hauek irakur zitezkeen han: Dameto, Muntaner, Villalonga, La

Romana, eta *Bonapart!* Liburu hau, komentua-
ren gainerako guztia bezalaxe, komentua irauli
zuen enpresarioarena da gaur egun.

Gizon hori, mallorcar petoa bera —lehenengo
begi kolpean harritu egiten zaitu, baina bereha-
la liluratzen eta lasaitzen zaitu— ikusirik honda-
kin haiek, historiaren oroigarri haiek, sortzen
ziguten jakinmina, eta, herri gizona izaki, Napo-
leon handiaren jarraitzailea zenez, lehiatsu etorri
zitzaigun *Bonapart* armarría zuen hilobia, bere
arbasoena, erakustera, hori baita mallorcarren
ohitura. Hilobi hura zenbait azterketa egiteko
modukoa iruditu zitzaigun; baina beste eginbe-
har batzuk genituen, eta ez genuen denbora
nahikoa izan azterketa haietan sakontzeko.

Bonapart-en armarríak bildu ditugu, eta
hauek dira:

Parte urdin ilunean, urrezko sei izar, seiná
puntakoak, bi, bi eta bi; parte gorrian, urrezko
lehoia ibilian, eta urrezko buruan, arrano beltz
bat, ateratzen ari dela:

1) Montenegroko konde jaunaren liburute-
gian gordetako aberastasunen parte den noble

edo armarri liburu batean, armarri horien *faksimile* bat lortu genuen.

2) Bartzelonan, Aragoiko koroaren artxibozain jakintsu batena zen beste noble liburu espainiar batean —egitez ez aurrekoa bezain ederra—, zeinetan agertzen baitira 1549ko ekainaren 15eko datarekin, Fortuny familiaren nobletasunaren ikurrak, eta horietako laurden batean amaren aldeko amonarena, zeina baitzen Bonapart etxekoa.

Aragoiko koroaren artxiboetako II. alean, *Indice: Pedro III* atalean, 1276ko bi akta aipatzen dira, *Bonpar* familiako kideei buruzkoak. Garai hartako beste hainbat izen bezala, izen hori ere, Proventzako edo Languedoc-ekoa jatorriz, mallorcar erara aldatuko zen eta *Bonapart* bihurtuko zen horrela.

1411n, *Hugo Bonapart*, mallorcarra jaiotzez, Kortsikako uhartera joan zen Martin Aragoikoaren errejente edo gobernadore gisa; eta hura hartzen da *Bonaparte*-tarren, edo geroago esan zen bezala, *Buonaparte*-tarren, arbasotzat; hala, *Bonapart* da erromantze izena, *Bonaparte* italierra zaharrekoa, eta *Buonaparte* italierra moderno-

koa. Gauza jakina da Napoleonen senideek berdin-berdin sinatzen zutela *Bonaparte* edo *Buonaparte*.

Zeinek daki aztarna sotil horiek, urte batzuk lehenago aurkitu izanez gero, zenbateko garrantzia izango zuten baldin eta Napoleoni, frantsesa izateko grina handia baitzuen, baliagarri izan balitzaizkio bere familia jatorriz frantsesa zela frogatzeko?

Gaur egun halako balio politikorik ez duen arren, ez du horregatik interes gutxiago Tastu jaunaren aurkikuntzak, eta Frantziako gobernuak letretarako gordeta duen diruaren banaketaren gainean erabakitzeke ahalmenik banu, aurkikuntza amaitzeko behar dituen baliabideak emango nizkioke bibliografo hari.

Gaur egun ez du garrantzirik, eta horrekin bat nator, Napoleon jatorriz frantsesa zela ziurtatzeak. Kapitain handi hark, zeina ez baitzen hain printze handia izan nire ustez (eta barkamena eskatzen diot modari), baina bai gizon handia, berez zuen izaeragatik, ondo asmatu zuen Frantziaren semetzako bihurtzen, eta etorkizunak ez dio galdetuko bere arbasoak florentziarrak, kor-

tsikarrak, mallorcarrak edo languedoctarrak ziren; historia, ordea, beti saiatuko da arraza hautatu hori, zeinetan Napoleon ez zen ustekabea edo gertaera isolatua izan, estaltzen duen oihala altxatzen. Seguru nago ondo bilatuz gero, familia horren aurreko belaunaldietan hainbat gizon edo emakume aurkituko direla ondorengotza horren duin, eta armarriak —berdintasunaren legeak zigortu dituen arren, historialariak beti oso kontuan hartu beharrekoak monumentu adierazgarri gisa— aski argigarriak izan daitezke horretan, antzinako Bonapartetarrek borrokazaleak edo handinahiak ziren jakiteko.

Izan ere, izan al da inoiz mallorcar zaldun hauena baino armarri harroagorik eta sinbolikoagorik? Oldarrerako jarreran dagoen lehoi hori, izarrez betetako zero hori, zeinetatik ihes egin nahi baitu arrano igarleak, ez al dira ohiz kanpoko patu baten hieroglifo misterioetsua? Napoleonek, zeinak izarren poesiaren aldeko sineskeria moduko maitasun bat baitzuen eta Frantziako armarriari arranoa eman baitzion, ba al zuen bere armarri mallorcarraren berri? Eta bere jatorrian Proventzako *Bonpar*-tarretaraino atzera

egin ezin izan zuenez, isilpean gorde al zuen
aiton-amonak espainiarrak zituela? Horixe da
gizon handien hil ondoko zoria, nazioak haien
sehaskari edo hilobiari buruz eztabaidan aritzea.

HIRUGARREN ATALA

I. kapitulua

Abendu erdialdean abiatu ginen Valldemossa aldera, goiz nare batean, guretzat gero eta bakana izango ziren udazkeneko eguzki irraden artean, gure Kartujaren jabetza hartzera. Establimentsko zabaldi emankorrek igaro ondoren, landu gabeko larre haietara iritsi ginen: zuhaitzez estalitako lurrak agertzen ziren hemen, lur lehor eta harritsuak han, eta lur heze eta hotz samarrak harantzago, ezeren antzik ez zuten zeharbide malkartsuek etenak alde guztietan.

Inon ez zitzaidan agertu izadia, Pirinioetako bailara batzuetan izan ezean, Mallorcako sasitza haietan agertzen zen bezain aske; eremu zabal samarrak ziren, eta horrek nolabaiteko zalantza eragin zidan mallorcarrek beren lurralde guztian lortu omen duten eta harrotasunez gorai patzen duten lanketa bikainari buruz.

Ez zitzaidan bururatu, dena den, horregatik kontuak eskatzea, ez baitago lur utzi horiek baino gauza ederragorik, nahi den guztia ematen baitute eta ez baitute ezeren faltarik: zuhaitz

okerrak, makurrak, baldarrak; sasi izugarriak, lore zoragarriak; belar eta ihizko tapizak, kapar arantzatsuak, anbulo fin liluragarriak eta Jainko-ari gogoak eman dion itxura hartu duten beste hainbat gauza: amildegia, muinoa, ustekabean harrobi batean amaitzen den bidexka harritsua; gezurrezko erreka batean murgiltzen den bide berdez-zipriztindua, edozeri zabaldutako larrea, pikotxez ebakitako mendi batean bat-batean amaitzen dena; gero, zerutik eroriak ematen duten harri lodiz beteriko basoak, erreka bazterrean mirto eta sasiama artean zulatutako bideak; eta azkenik, landetxe bat, basamortu erdian botatako oasi bat bezala, bere palmera duela beilari, ibiltariaren gidari bere bakardadean.

Suitzari eta Tiroli ez nien hartu Mallorcan hainbeste liluratu ninduen sormen aske eta pribimitiboaren itxura. Iruditu zitzaidan Helbetiako mendietako paraje basatienetan izadia, eguraldiaren eraso zakarregien mende, gizonaren eskutik aske zebilela baina ez zuela zeruaren eskutik eraso are gogorragoa besterik jasotzen eta bere kasa utzitako arima sutsu batek bezala

sofritzen zituela bere baitako zarratadak. Mallorcaren zeru kiskalgarri baten musuekin loratzen da izadia eta irribarre egiten du itsasoetan barrena igarotzean laztan egiten dioten ekaitzen erasoen pean. Lore hautsia bizikorrago ernatzen da, enbor apurtuak kimu sendoagoak ematen ditu mendebalaren ondoren, eta egia esan, uharte honetan leku morturik ez dagoen arren, biderik ezak utzikeria edo jazarpen itxura ematen dio, Luisianako sabana bikainetan gertatzen denaren antzera, nire gaztaroko amets maiteetan Renéri segika Atala edo Chactasen aztarnen bila ibili nintzen sabana haietan gertatzen den antzera.

Erabat ziur nago Mallorcaren goratzarre hau ez dutela gustukoa izango mallorcarrek eta harro daudela oso bide atseginak dituztelako ustean. Atseginak dira ikusteko, ez dut hori ukatuko; baina gurdiz ibiltzeko egokiak diren, erabaki beza irakurleak.

Herrialde hartan *tartana* da *borondatez* hartzen duten gurdia, *coucou-omnibus* moduko gurdi bat, zaldi edo mando batek tiratua eta batere malgukirik gabea; edo *birlocho* delakoa bestela, lau eserlekukoa, tartana bezala finkatua

eta gurpil sendoez, ferra trinkoez hornitua hura bezala, barnealdea ahuntz ilez estalia duela. Estalki horrek zer pentsatu handia ematen dio lehen aldiz hain itxura arineko ibilgailu batean esertzera doanari. Gurdizaina oholtxo batean esertzen da, hori da haren eserlekua; oinak gurdi hagetan jartzen ditu zabal-zabal eginda eta zaldi bizkarra hanken artean gelditzen zaio, halako eran ezen bere gurdi zaharraren astinduak ez ezik aberearen astinduak ere sentitzen baititu eta aldi berean gurdian eta zaldi gainean ibiliko balitz bezala joaten baita. Ez dirudi, ordea, inola ere asko larritzen denik horrela joan beharrarekin, kantari joaten baita beti, direnik eta astindu izugarrienak hartzen dituela ere, eta ez baita sekula isiltzen, non eta ez den bere doinu patxadatsuarekin zaldiari izugarrizko biraoak botatzeko zaldi gaixoa amildegira jausteko edo harrizko horma batean gora igotzeko trantzean dagoenean.

Horrelaxe bidaiatzen dute han, izan ere: ezdeusak dira amildegia, uharreak, sasitzak, ezpondak; ez dira halako huskeriengatik geldi-

tzen. Gainerakoan, bide esaten zaio han horri guztiari.

Abiatzerakoan oztopo lasterketa hori apustu baldar bat bat dela iruditzen zaio berorri eta zer haizek jo duen galdetzen dio gidariari.

— Hau da bidea —erantzungo dio.

— Eta, ibai hau?

— Hau da bidea.

— Eta zulo sakon hau?

— Bidea hori ere.

— Eta sasitza hau ere bai?

— Dena da bidea.

— Bejondeiola!

Orduan ez zaio berorri beste irtenbiderik gelditzen: zaindu berorren burua, bedeinkatu gurdiaren kutxa estaltzen duen lastaira, harengatik ez balitz gorputz guztia txikituta izango bailuke ordurako, gomendatu berorren arima Jainkoari eta paisajea behatu, heriotza edo mirari bat etorri bitartean.

Eta, hala ere, bidaiatik onik irtetea lortzen da batzuetan, gurdiak balantza handiak egiten ez baditu, zaldiak zango sendoak baditu, edo agian, gurdizainaren axolagabekeriari esker, hau da

zaldia bere kasa utzita besoak gurutzatu eta zigarroa errez lasai ederrean joaten bada, gurdiaren gurpil bat doala menditik eta bestea amildegitik.

Berehala ohitzen zara arrisku batekin, ingurukoek batere garrantzirik ematen ez diotela ikusita; eta hala ere, bene-benetakoa da arriskua. Gurdiak ez dira egunero iraultzen, baina iraultzen direnean, ez da erraza izaten onik irtetea. Tastu jaunak halako istripu bat izan zuen aurreko urtean Establimentsko gure bidean eta hiltzat jo zuten hantxe bertan. Buruko min izugarriak gelditu zitzaizkion istripu hartatik, baina horrek ez dio, alajaina, Mallorcara itzultzeko gogo bizia epeldu.

Herrialde hartako jende gehienek dute zeinek bere gurdia, nola halakoa, eta nobleek Luis XIV.aren garaiko karrozak dituzte, kutxa zabaleko karrozak, zortzi beirakoak batzuk eta oztopo guztiak gainditzeko gai diren gurpiltzarrekikoak. Lau edo sei mandok arin-arin eramaten dituzte makina astun eta gaizki eseki horiek, zabartasun harrokoak baina leku askokoak eta oso gotorrak, zeintzuetan trostan eta ausardia handiz igaro-

tzen baitira diren amildegirik izugarrienak, ez halere mailadura, buruko kolpe edo, gutxien gutxienera, giharretako min handiak jasan gabe.

Miguel de Vargas gizon txit serio eta espainiar petoak, zeinak ez baitu sekula txantxarik egiten, ondoko aipamen hau egin zuen Mallorca-ko *horrorosos caminos* omen diren horiei buruz: «*En cuyo esencial ramo de policía no se puede ponderar bastantemente el abandono de esta Balear. El que llaman camino es una cadena de precipicios intratables, y el tránsito desde Palma a los montes de Galatzó presenta al infeliz pasajero la muerte a cada paso*» etab.

Herri inguruetan bideak ez dira hain arriskuetsuak, baina eragozpen handi bat dute, eta da bi harresi edo ezpondaren artean egoten direla eta ez direla bi gurdi batera sartzen tarte horretan. Halakorik gertatuz gero, idiak orgatik edo zaldiak gurditik askatu behar izaten dira bietako batek atzera egin dezan, bide puska luzean askotan. Eztabaida amaigabeak sortzen dira halakoetan, bietatik zeinek atzera egin, eta bidaiari berandutuari ez zaio gelditzen bitarte horretan mallorca-

rren esapidea bere buruari behin eta berriro esatea besterik: *mucha calma*, bere onbiderako.

Mallorcarrek beren bideak zaintzeko egiten duten gastuaren murrizta kontuan harturik, abantaila dute horrelako bidexkak nahi adina izatea. Ongi aukeratzea da zaila. Hiru aldiz bakarrik egin nuen Kartujatik Palmarako joan-etorria; sei aldiz egin nuen bide desberdina eta sei aldiz galdu zen *birlochoa* eta eraman gintuen mendi eta haranetan noraezean, haren esanetan onena omen zen baina sekula aurkitu ez zuen zazpigarren bide baten aitzakian.

Palmatik Valldemossara hiru legoa daude, baina hiru legoa mallorcar, trosta luzean ere hiru ordu baino denbora laburragoan ezin egin direnak. Lehenengo bi orduetan gora egiten du bideak, ia oharkabean; hirugarrenean, ordea, mendian sartzen da eta ongi zolaturiko malda batean gora egiten du (kartujoek antzina egindako lana seguruenik), malda estu eta izugarri laster bat da ordea, harainoko bidea baino are arriskutsuagoa.

Han hasten da Mallorcako parte menditsuaren ikusmira. Baina alferrik da amildegiaren alde

batera eta bestera mendiak egotea eta errekas-
toak harkaitzez harkaitz jauzika jaistea; negu
minean bakarrik hartzen dute paraje horiek
mallorcarrek esan ohi duten itxura basatia.
Abenduan, euri uholdeak egin berritan bazen
ere, ur jauzia errekas-toa txiki bat baino ez zen,
belar eta lore artean irristaka zetorren errekas-
toa; mendia alaitsua zen eta Valldemossako
haran meharra udaberriko lorategi bat bezala
agertzen zen gure begien aurrean.

Kartujara iristeko gurditik jaitsi beharra dago,
haraino doan harrizko bidean gora inolako gurdi-
rik ezin baita igo; oso bide atsegina da, bestela-
koan, begien gozamenerako, bere bihurtura
ausartak, zuhaitz ederren artean eratzen dituen
bihurguneak eta urratsez urrats agertzen diren
ikuspegi zoragarriak direla eta —zenbat eta
gorago orduan eta ederragoak—. Ez dut ikuspe-
gi haiek baino gauza alaituago eta, aldi berean,
malenkoniatsuagorik ikusi: arte, algarrobo, pinu,
olibondo, makal eta nekostek beren nabardura
ugariak nahasten dituzte adartza sarrietan; ber-
detasunezko benetako amildegia, zeinetan
behera baitu amiltzen uherrak bere bidea, abe-

rastasun oparoko eta grazia paregabeko sasi-
tzen artean. Ez dut sekula ahaztuko amildegiko
bihurgune bat, zeinetatik, atzera begiratzuz gero,
ikusten baita, mendi baten gailurrean, dagoene-
ko deskribatuak ditudan etxetxo arabiar horieta-
ko bat, indipikondo hostoen artean erdi ezkuta-
turik, eta palmondo handi bat, bere irudia airean
marratzuz amildegirantz makurtua. Parisko
lohiaren eta lainoaren ikusmirak gogaitzen naue-
nean, ixten ditut begiak eta berriro ikusten dut,
ametsetan bezala, mendi berdatu hura, harri
basati haiek eta palmondo bakarti hura, zero
gorrixkan galdua.

Valldemossako mendilerroa ordokiz ordoki
igotzen da harik eta mendi garaiez inguraturiko
inbutu moduko bat —azken ordokiaren isural-
deak itxia iparraldetik— osatuz ixten den arte;
azken ordoki horren sarreran dago, hain zuzen
ere, monasterioa.

Kartujoek leundu egin dute, ondo kostata
leundu ere, paraje erromantiko honen gogorta-
suna. Harresiz inguraturiko lorategi handi bat
bihurtu dute mendikatea amaitzen den ibarra,
harresiek ikusmirari enbarazurik egiten ez diote-

la. Lorategiari operako hlerri baten itxura arauzkoa ematen dio maila desberdinetan binaka jarritako nekosta piramide formakoez osaturiko hesi batek.

Palmonduez eta almendrondoez betetako lorategi honek hartzen du ibar txikiaren hondo maldatsua oso-osorik eta maila zabalak eratzen ditu mendiaren aurrealdean. Ilargi argitan, eta maila horien gorabeherak itzal artean ezkutaturik daudela, erraldaien borrokek zizelaturiko anfiteatro bat dela esan liteke. Erdian, palmondo sail eder baten azpian, harrizko urmael batek mendian sortzen den iturburuko urak jasotzen ditu eta behealdeko zapaldetara isurtzen ditu ondoren, ubide lauzatuetan behera, Bartzelona inguruak ureztatzen dituztenen antzeko ubideetan behera. Lan handiegiak eta bikainegiak dira horiek Mallorcan, Katalunian bezala, arabiarrek eginak ez izateko. Uhartearen barnealde guztia zeharkatzen dute, eta Kartujoen baratzetik abiatzen direnek errekaen uberka guztia igaro eta dabilen ura eramaten dute Palmara urte sasoi guztietan.

Arroila horren hondoan dago Kartuja. Ibar zabal batera ematen du iparraldetik; ibarra zabalagotu eta malda leunetan igotzen da itsasoak jotzen eta urratzen duen kostalde malkartsuraino. Mendikatearen beso bat Espainia alde-
ra doa, eta ekialdera, berriz, bestea. Kartuja bitxi honen bi aldeetatik ikusten da, beraz, itsasoa. Iparraldean entzuten den bezala haren marrua, halaxe ikusten da, lerro distiratsu lauso bat bezala, beherantz doazen mendiez eta hegoaldean zabaltzen den lautada handiaz haraindi; koadro ezin ederragoa, inondik ere, aurrealdean pinuz estalitako harkaitz beltz handiek mugatua, ondoren dituela soslai bihurriko eta zuhaitz tantaiek ertzaturiko mendiak eta hirugarren eta lau-
garren mailan ikusten direla erro biribilduak, sartalde eguzkiak direnik eta nabardura epelenez argituak, eta zeinaren gainean ikusten den, legoa bateko distantzian, zuhaitzen inguru mikroskopikoa, tximeleten antenak bezain fina, urre distiratsuzko hondo baten gainean tinta txinatarrez bustitako lumekin egindako lerroa bezain beltz eta argi. Hondo argitsu hori da zabaldia; eta distantzia horretan, mendiko lurri-

nak usaintzen hasten direnean eta amildegia estalki garden batek estaltzen duenean, itsasoa dela pentsa liteke. Baina are urrunago dago itsasoa, eta eguzkia ezkutatzera doanean, zabaldia aintzira urdin bat bezalakoa denean, Mediterraneoak zilar biziko lerro bat irudikatzen du ikusmira liluragarri haren odaiertzean.

Ikusmira abailgarria da, zer desiatu, zer imaginatu uzten ez duten horietakoa. Olerkariak eta margolariak amestu dezaketen guztia sortu du izadiak gune horretan. Miltzo izugarria, xehetasun infinituak, oparotasun amaigabea, forma gandutsuak, isla koskadunak, sakontasun lausokak, dena dago han, eta arteak ezin erantsi dio ezer ere. Izpiritua ez da beti aski izaten Jainkoaren obra ederresteko eta ulertzeko; eta bere baitara begiratzen badu, ahalketasunaz jabetu eta horditzen eta liluratzen duen bizi handitasun horren adierazpen bat sortzeko da.

Niri dagokidanez, sekula ez nuen hain ongi sentitu hitzen hutsaltasuna Kartujan behaketan emandako ordu haietan baino. Erlijio sentipenek hartua nuen gogoia; baina ez zitzaidan hau beste

formularik bururatzen goratzarrerako: Jainkoa, bedeinkatua zu ikusmen ona eman didazulako!

Gainerakoan, iruditzen zait ezen ikuskizun paregabe horien gozamen ustegabekoa eraberritzaile eta osasungarria den bezala hala baita arriskutsua etengabe gozamen horren jabe izatea. Izan ere, sentipenen nagusitasunaren mende bizitzera ohitzen da bat, eta sumindura da sentipenaren gehiegikeria guztiak gidatzen dituen legea. Horrela azal daiteke, bada, monjeek beren monasterioen poesiari buruz erakusten duten axolagabekeria, eta nekazariak eta artzainak beren mendien edertasunari buruz erakusten dutena.

Guk ez genuen, ordea, horretaz guztiaz aspertzeko astirik izan, eguzkia ezkutatzean lainoa sartzen baitzenia arratsero eta azkarragotu egiten baitzuen inguru hartan bestela ere aski laburrak genituen egunen iluntzeak. Eguerdia arte ezkerreko mendiaren itzalpean egoten ginen, eta eskuinekoaren itzalpean gelditzen ginen hiruretarako. A zer nolako argi efektu ederak ordea, eguzki izpiak zeharka sartzen zirenean harkaitz artean, edo irristatzen zirenean

mendi gailurren artean eta iristen zitzaizkigunean urrezko eta purpurazko marrazkiak egitera gure bigarren planoetan! Batzuetan gure nekostek, koadroaren lehen planoan osatzen zuten obelisko beltz haiek, jariakari sugartu horretan murgiltzen zuten burua; gure palmondoetako datil sortek errubizkoak ematen zuten eta lerro ilun batek bi ataletan banatzen zuen ibarra, soslaian ebakitzen zuelarik alderik alde: udaren argitasunak blaitua zen bata, neguko paisaje bat bezala urdinxka eta hotza bestea.

Valldemossako Kartujan hamahiru erlijiojizozon bizi ziren, doi-doi, nagusia barne, kartujoen arauaren arabera, eta horrela itzuri zen 1836ko dekretuaren bidez hamabi pertsona baino gutxiagoko komunitatean bizi ziren monasterioak eraisteko agindutik; baina komunitate hau, beste guztiak bezala, banatu egin zuten eta komentua suntsitu, hau da, Mallorcako estatua- ren jabetzako bihurtu. Mallorcako estatuak eraikin handi horiek nola erabili ez zekienez, erabakia hartu zuen gelaxkak alokairuan emateko — eraikina erabat hondatu bitartean— han bizi nahi zutenei. Prezio izugarri merkeak ziren arren,

Valdemossako herritarrek ez zituzten baliatu nahi izan, neurritz gaineko fedeagatik eta monjeen oroitzapenagatik, edo agian, sineskerien ondorioz sorturiko beldurragatik: horrek ez zien eragozten inauterietako gauetan dantzara hara joatea, gero azalduko dudan bezala, baina, aldiz, ez zuten begi onez ikusten gure presentzia lotsagabea harresi haien barruan.

Dena dela, udaminean, zabaldikoa edo hiri-koa baino giro freskoagoaren bila Kartujako lur garai eta ganga astun haietara joandako burges palmatarrak bizi izaten ziren han. Negua hurbiltzean, ordea, hotzak uxatzen zituen handik eta gu han izan ginen garaian, Kartujak ez zuen ni eta niretarrez gainera, botikaria, sakristaua eta Maria Antonia beste egoiliarrik izan.

Maria Antonia hori neskame giltzain moduko bat zen, miserietatik ihes egitearren Espainiatik hara joana, hala uste dut, eta han gelaxka bat hartu zuena Kartujan bidez ziren ostalariei alokatzeko. Gure gelaxkaren alboan zegoen harena, eta sukalde gisa erabiltzen genuen: andrea berriz neskame genuen, ustez. Gaztetan emakume ederra izana, fina, itxuraz garbia, gozoa zen;

etorki handikoa zela zioen eta manera atseginak, ahots doinu harmoniazkoa eta aire maltzurra zituen, eta oso adeitasun bitxia zen berea. Iritsi berriei bere zerbitzuak eskaintzeko ohitura zuen eta haien truke ordainen bat eman nahi izanez gero muzin egiten zion, haserre eta aurpegia ezkutatzuz ia. Jainkoaren maitasunagatik eta por l'asistencia jokatzan omen zuen horrela—hala esaten zuen berak—, bere auzokideen adiskidetasuna lortzeko beste asmorik gabe. Altzariei dagokienez, ohexka bat, sutontzi bat, lastozko bi aulki, gurutze bat eta buztinezko plater batzuk besterik ez zuen. Hori guztia jartzen zuen zure esku, eskuzabalki, eta haren etxera eramanez zenitzakeen neskamea eta eltzea.

Baina zure errediza guztiak eskuratu bezain pronto beretzat hartzen zituen zure arroparik eta jakirik onenak. Sekula ez dut ikusi atso harena baino aho fededun jakizaleagorik, ez hatz trebeagorik azala erre gabe irakiten zeuden eltzeen hondoa garbitzeko, ez zintzur elastikoagorik kantu edo bolero bat kantatzen zuen bitartean bere ostalari maiteen azukrea eta kafea ezkurtuan irensteko gaitasuna zuenik. Gauza bitxia

eta dibertigarria izango zen, arazo harekin hain kezkatuta ez bageunde, Antonia zintzo hura, eta Katalina —gure ganbarazain aritzen zen sorgin valldemossar handi hura— eta niña, mandatari genuen mamu txiki tximaduna, gure janariaz arduratzen ikustea. Angelusaren ordua zen eta hiru kateme haiek etengabe esaten zuten errezoa behin eta berriro: bi atsoak batera, eskua plater guztietan sartzen zutela, eta txikiak *amenka*, trebestasun paregabez saiheski bat edo fruitu azukrezturen bat osten zuen bitartean. Pintatzeko moduko koadroa zen eta ondo merezi zuen ez ikusiarena egitea: baina euri jasen ondorioz Palmarekiko komunikazioa sarritan etenda gelditzen hasi zenean eta elikagai falta sumatzen hasi ginenean ez zen, ez, hain atsegina gertatzen Maria Antoniaren eta haren adiskidearen *l'assistencia* hura eta horrela, txandak egin behar izan genituen, seme-alabek eta nik, elikagaien zaindari aritzeko. Gogoan dut nola gorde behar izan genituen, oheburuan gorde ia, hurrengo goizean gosaritarako oso beharrezkoak genituen bizkotxo saski batzuk, eta nola ibili behar izan genuen putreak bagina

bezala arrain plater batzuen inguruan, aire zaba-
lean jarritako gure labeetatik hezurak besterik
utziko ez zizkiguten txoritxo harrapari horiek
uxatzeko.

Sakristaua haurtzaroan agian kartujoekin
meza-mutil ibilitako gizon mozko bat zen, eta
komentuko giltzen arduraduna izango zen aurre-
rantzean. Eskandaluz beteriko historia bat zuen
bizkarrean: aitortu egin zuen eta zigorra ezarri
zioten gurasoekin aldi batez Kartujan egondako
neskatxa bat limurtu eta egoera txarrean utzi
izanagatik, eta esaten zuen, horren aitzakia gisa,
estatuak berari eman zion ardura bakarra koa-
droetako Ama Birjinak zaintzea izan zela. Ez zen
gizon ederra, ezta hurrik ere: baina dandi baten
harrotasuna zuen. Bere klaseko jendeek eraman
ohi duen traje arabiar tankerakoaren ordeztan,
inguru hartako neskatxak liluratzen zituzten
europar tankerako galtzak eta tiranteak janzen
zituen. Haren arreba sekula ikusi dudana neska
mallorcarrik ederrena zen. Ez zen komentuan
bizi, aberatsak ziren eta harropuzak, eta etxe
bat zuten herrian: baina egunero egiten zuten
osteratxoa eta etortzen ziren Maria Antoniari

bisita egitera: Maria Antoniak gure janaria eskaintzen zien, bera gose ez zenean, noski.

Botikaria, kartujoa hura ere, bere gelaxkan sartuta aritzen zen bere ofizioak bakarka esaten, bere estalkia —garai batean zuria izan bide zena— soinean, gala handiko janzkeran. Malba zuri edo aski-sustraien eske haren atea jo orduko (horiek ziren hark zituen berariazko sendagai bakarrak) berehala ezkututzen zuen bere eliz jantzia ohe azpian eta agertzen zen praka beltz, galtzerdi eta galtza motzez jantzita, Molièreren saioetako atsedendietan balleta dantzatzen zuten antzezleak bezala. Agure fidakaitza zen oso, sekula ez zen ezertaz kexu eta Don Karlosten garaipenaren eta Inkizisio Santuaren itzuleraren itxaropenetan bizi zen, inori kalterik opa gabe halere. Urre prezioan saltzen zigun bere askia, eta hobari horiekin kontsolatzen zen txirotasun bototik gabetu izanaz. Haren gela guretik oso urrun zegoen, monasterioaren sarreran, zoko ziztrin batean, eta akain-belarrezko eta itxura atseginagoko beste sendabelar batzuen atzean ezkutatuta atea zeukan. Hantxe itxita bizi zen, zakurrak bere zelatan jarri nahi ez dituen

erbi zahar bat bezala; gutxitan ikusten zuen inork, eta haren edabeen bila joan ez bagintzaizkio sekula ez genuen pentsatuko Kartujan kartujoren bat bizi zenik artean.

Kartuja honek ez du batere edertasunik, arkitectura apaingarriei dagokienez, baina eraikin gotorrez osaturiko multzoa da, oso zabala gainera. Horrelako esparru eta harri landuzko masa handi batean ondo erraz sartuko litzateke gudarosteko gudatalde oso bat, eta, aldiz, hamabi lagunentzako bakarrik eraikia zen. Klaustro berrian bakarrik (garai desberdinetan batzuk besteei erantsitako hiru Kartujaz osatua baita monasterio hau) badira hamabi gelaxka, klaustroaren alde batera ematen duten hiru gela handiz osatuak horietako bakoitza. Alboetako bi fatxadetan hamabi kapera daude. Monje bakoitzak zuen berea, eta han egiten zituzten beren bakar-otoitzak. Kapera guztiak bakoitza era batean apainduta daude, urre kolorez eta margo zabarez hornituak, zur margotuzko santuekin, hain santu itsusiak ezen aitortu behar baitut ez nituzkeela ikusi nahi gauean beren horma-konketatik kanpo. Otoitz gela hauetako zorua adrei-

lu esmaltatuzkoa da, eta adreilu horiek itxura ederreko mosaikoak osatzen dituzte. Arabiar estiloa nabarmena da oraindik horretan, eta horixe da Mallorcan mendeetan iraun duen gustu oneko tradizio bakarra. Kapera bakoitzak iturri edo aska bat du, bertako marmol ederrez egina, eta monjeek ur horrekin garbitu behar zuten egunero bere otoitz gela. Areto gangadun, ilun eta adreilu esmaltatuzko horiek hain dira freskoak ezen udamineko egun sargorietan ongi asko bihur zitzaketen otoitzari eskainitako ordu luzeak atseginerako ordu.

Klaustro berriaren laugarren aldearen erdian patio txiki bat dago, eta patio horretan monjeen guraizeek emandako piramide tankera erabat galdu ez duten ezpel batzuk, simetrikoki landuta. Klaustroa eliza polit baten aurrez aurre dago. Han organoa aurkituko genuela uste izan genuen; baina ahaztu egin zitzaigun kartujoen arauak musika tresna oro baztertzen zuela, luxuaren erakusgarri eta zentzuen plazer hutsal gisa hartzen baitzituen. Elizak nabe bakarra du, axuleiuz lauzatua; tapiz batean bezala artistikoki ezarritako lore sortekiko irudi finez apainduta

daude axuleiuak. Sabaiko zurezko apaingarriak, aitorlekuak eta ateak oso soilak dira; baina zainen bikaintasunak eta apaingarri neurritsuez eta apaindura finez hornituriko lan garbiak gaur egun Frantziako zurgintzan aurkitzen ez den moduko esku lanaren trebetasuna ageri dute. Zoritxarrez egikera burutsu hori galdua da Mallorcan ere. Tastu jaunak esan zidanez, Mallorca guztian bi langile bakarrik gelditzen dira lanbide hori arte moduan irauarazi dutenak. Kartujan guretzat jardun zuen zurgina artista petoa zen izatez, baina musikan eta pinturan bakarrik. Egun batean zur zurizko apal batzuk jartzera gure gelaxkara etorri zelarik, gure artista-ekipaia txikia begiratu zuen, antzina greziar-eslabiarretan antzeman nuen jakinmin tolesgabe eta begiluze berarekin. Monjeak olgetan irudikatzen dituzten Goyaren marrazkiak kopiatuz nire semeak egindako zirriborroak, zeintzuekin apaindu baitzuen gure gela, harritu egin zuten apur bat zurgina; baina Rubensen arabera grabaturiko *Gurutzeko jaitsiera* ikusi zuenean denbora asko igaro zuen kontenplazio bitxi batean murgilduta. Zer iruditzen zitzaion galdetu

genion: «Ez dago Mallorca guztian, erantzun zigun bere dialektoan, hain gauza eder eta *naturalik*».

Txundituta gelditu ginen *natural* hitz hori basati baten tximak eta manerak zituen baserri-tar baten ahotik entzun genuenean. Pianoaren soinuak eta artistaren trebetasunak estasi moduko batera eramaten zuten. Bere eginbeharrak utzi eta jotzailearen eserleku atzean jartzen zen, ahoa erdi zabalik eta begiak beren zuloetatik irten beharrean. Sen goren haiek gorabehera ordea, lapurra zen bera ere, nekazari mallorcar guztiak atzerriarrarekin diren legez; eta hori inolako barne zimikorik gabe, nahiz eta leialtasun erlijiozkoa gordetzen duten beren arteko harremanetan, hala esaten dute behintzat. Prezio izugarri garestia eskatzen zuen bere lanaren ordainetan, eta eskuak irrikaz luzatzen zituen Frantzian egin eta guk erabiltzeko eramanez. Txiki guztietarantz. Neureak eta bi egin behar izan nituen bere patriketatik libratzeko garbiketarako nire gauzakiak. Gehien-gehien erakartzen zuena beira tailatuzko ontzi bat zen, edo haren barruan egoten zen hortz eskuila

agian, nahiz eta seguru asko ez zuen jakingo zertarako erabiltzen zen ere. Gizon hark italiar baten behar artistikoak eta malaisiar edo kafre baten sena zuen.

Bazter solas honek ez dit ahaztaraziko Kartujan aurkitu genuen arte lan bakarraren aipamena egitea. San Brunoren zur margotuzko estatua bat zen, elizan zegoen. Marraskia eta kolorea bikainak zituen; eskuak zehatz-mehatz ikasiak ziren eta erregu errukarria eta lazgarria adierazten zuten beren mugimenduaz; buruaren keinua benetan fede goienekoa eta pairamenezkoa zen. Eta hala ere, egile ezjakin baten lana zen; izan ere, haren aurrez aurre zegoen estatua, artista berak egina, penagarria zen alde guztietatik; baina inspirazio une bat izango zuen nonbait San Brunorena egiteko, bere buruaz gaindi goretsi zuen erlijio bulkada bat agian. Ez dut uste Grenobleko santu fanatikoa beste inork sekula hain ongi ulertu eta halako sentimendu sakon eta suharrez adieraziko zuenik. Kristau aszetismoaren irudia bera zen. Baina, Mallorcan ere, antzinako filosofia horren ikurrak bakardadean dirau zutik.

Klaustro zaharra, zeinetatik nahitaez igaro behar baita berrira sartzeko, ingurubira soila egin ez iristen da klaustro berrira, hain soila ezen lekuetarako dudan oroimen kaskarra dela-eta ezin izan bainuen hirugarren klaustroan galduta ibili gabe sekula aurkitu.

Hirugarren eraikin hau, zeina esan beharko nukeen dela lehenengoa, bera baita zaharrena, da orobat txikiena ere. Lehenengo begiratuan zoragarria ematen du. Eraikin honetako horma hautsiek inguratzen duten patioa monjeen hilerri zaharra da. Ez dago idazkun bereizgarririk kartujoek beren bizitzan zehar zulatzen zituzten hilobi horietan, zeinetan ezerk ez baitzion lapurtuko haien oroitzapena heriotzaren ezerezari. Hilobiek ez dute ikur berezirik, beraz, beste guneetan baino belar gehiago hazten dela ez bada. Laurens jaunak marrazki polit batean erakutsi du klaustro honen eitea eta marrazki horretan atsegin izugarri aurkitu dut estalki punta-zorrotzeko putzu txiki bat, harrizko leiho gurutze-formakoa, zeinetatik txirikorden moduan zintzilikatzen baitiren hondakinetako belar alderrai guztiak, eta gaez zur zurizko gurutzearen inguruan

mamu beltzak bezala agertzen diren nekosta garaiak. Atsekabetu egiten nau Ilargia ikusi ez izanak klaustroaren gaineko harea anbar koloreko mendi gainean, eta ez irudikatu izana aurreaurrean ereinotz bat, enbor lodi eta buru lehorrrekoa, baina agian ez zen han egongo bera Kartujara joan zenerako. Aurkitu dut, dena den, nire seme-alaben suhartasun naturalistaren aurrean babestu nuen palmondo nanoa (*chamoerops*), Europa guztian dagoen mota horretako sendoen izango dena seguruenik.

Klaustro honen inguruan daude XV. mendeko kartujoen kapera txikiak. Itxita daude, eta sakristauak ez dizkio inori ere zabaltzen; gure jakinmina piztu zuen horrek. Paseatzera ateratzen ginean sarraila-zulotik begira eta begira ibilian, oso antzinako zurezko altzari eta eskulturen aztarna ederrak ikusi uste izan genituen. Mallorcako inork sekula hautsa kenduko ez dien aberastasun asko egongo dira, agian, ganbara horietan ezkutatuta.

Bigarren klaustroak hamabi gelaxka eta kapera ditu, besteek bezala. Honen arkuteriek izaera arranditsua dute, beren hondatuan. Jada

ez dute euskarririk, eta arratsean arku artean bide puska bat egiten genuenean Jainkoari gomendatzen genion gure arima; ez baitzen urakanik igarotzen Kartuja hartatik horma zati bat edo ganga puska bat erorarazten ez zuenik. Sekula ez nuen entzun haizea galeria huts eta zoli haietan adinako oihu mingarriak egiten eta halako intziri etsiak botatzen. Uharren zarata, hodeien ibili lasterra, itsasoaren zurrumurru beti berdinak, ekaitzaren txistu etenak, eta haize boladetan izututa eta noraezean igarotzen ziren itsas hegaztien intziriak; eta ondoren, bat-batean arkuteria hautsien gainetik oihal bat bezala jausten ziren eta ikusezin bihurtzen gintuzten laino handiak eta galerietan noraezean zebilen iratxo bat ematen zuen gure lanpara eta monasterioko bizitza hartako beste mila xehetasun, oroimenean pilatuta ditudanak: horrek guztiak Lurreko bizitokirik erromantikoena bihurtzen zuen Kartuja hura.

Ez ninduen atsekabetzen bere osotasunean ikustea, eta aurrez aurre behingoz, ametsetan edo boladan zeuden baladetan eta Operan *Roberto Deabrua* obrako mojen ekitaldian baino

ikus ez nuen hura. Izan genuen agerpen fantastikorik ere, orain azalduko dudan bezala. Eta han iragartzen zitzaidan erromantikotasun hura guztia gorabehera, erromantikotasunari buruzko gogoeta orokor batzuk ere egin nituen.

Lehen adierazitako eraikin multzo horri erantsi behar zitzaizkion abade nagusiaren partea, zeina ezin izan baikenuen bisitatu, eta beste zenbait atal misterioitsu; anaia konbertituen gelaxkak, Kartuja zaharrarena izandako eliza txiki bat eta beste hainbat eraikin, bakardade bila edo penitentziako debozioak egitera hara bildutako handikientzat gordeak; patio txiki asko, komunitatearen abereentzako ukuiluez inguratuak, bisitarien jarraigo handiarentzako gelak; eta azkenik, falansterio handi bat —gaur egun esango litzatekeen bezala—, Ama Birjinaren eta San Brunoren babespekoa.

Eguraldi oso txarra egiten zuenean eta mendira joaterik ez genuenean komentuan zehar egiten genuen gure ibilalditxoak, aterpean, eta hainbat ordu behar izaten genuen jauregitzarra aztertzeko. Ez dakit zer jakinminek bultzatzen ninduen horma abandonatu haietan monasterio-

ko bizitzaren sekretu gordea bilatzera. Hain zen berria haren arrastoa, ezen beti entzun uste bainuen sandaliaren hotsa zolan edo otoitzen zurrumurrua kaperetako gangen azpian. Gure gelaxketan latinezko otoitz irarriak ikus zitezkeen paretetan atxikita, irakurtzeko moduan artean, baita *oremus* otoitza esan daitekeenik imaginatu ezingo nukeen toki ezkutuetan ere.

Egun batean, goiko galerietan aurkikuntza bila genbiltzala, tribuna eder bat agertu zitzai-gun; gure begirada kapera handi eder batera jausi zen ondoren. Hain altzari egokiak zituen eta hain zen txukuna, ezen aurreko egunean abandonatu zutela baitzirudien. Monje buruaren jargoia behinolako tokian zegoen eta asteko erlijio jardunen ordena, zur beltzeko marko batean finkaturik, koruko eserlekuen arku zentraletik zintzilik zegoen. Eserleku bakoitzak santu imajina bana —erlijioegizon bakoitzaren zaindariarena seguruenik— zuen bizkarrean itsatsita. Artean erabat desagertu gabe zegoen hormak luzaz kirastu zituen intsentsu usaina. Aldareak lore lehorrez apainduta zeuden eta kandela erdi ahi-tuak beren argimutiletan zutik zeuden oraindik.

Ordenak eta gauza horien egoera onak ez zuen batere antzik kanpoaldeko hondamenarekin, leihoak estaltzen zituzten saszekin eta klaus-troetan mosaiko zatiekin txingoan jolasean zebil-tzan haur bihurrien oihuekin.

Nire seme-alabei dagokienez, harrigarriko aurkikuntzen jaiarak bultzatzen zituen, gu bul-tzatzen gintuen baino are grina handiagoz, behaketa urduri eta amorratu haietara. Zalan-tzarik gabe, nire alabak Kartujako ganbaran gauza zoragarriez beteriko maitagarri-jauregi bat aurkituko zuen uste osoa zeukan, eta semeak, berriz, hondakin haien artean ezkutatu-rik drama izugarri eta harrigarri baten aztarnak aurkituko zituen itxaropena zuen. Askotan bel-durtu egiten ninduen katuak bailiran habe oke-rretan eta terraza erdi erorietan gora igotzen ikusteak, eta urrats batzuk aurreratu eta zurubi kiribil baten bihurgunean desagertzen ziren orduko betiko galduak nituela uste izaten nuen, eta presaka abiatzen nintzen haien atzetik, bel-durrez, eta arrazoi ezjakinen bategatik, sineske-riaren batek eraginda.

Izan ere, nahita ere ezin dira sineskeriak desagerrarazi areto zorigaiztoko haietan, are gurtza zorigaiztoko bati eskainitako areto haietan; badute nolabaiteko eragina gure irudimeanean, eta bururik hotz eta lasaienari erronka botako nioke ezetz denbora luzean han iraun osasun betean. Beldur fantastiko txiki horiek, horrela dei banitza, erakargarriak ere badira; gure baitan gaintitu behar izateko bezain errealak dira ordea. Aitortu behar dut ia inoiz ez nintzela ibili klaustroan gauetz halako estuasun eta plazerraren arteko emozio bat sentitu gabe, eta ez nukeen nahi nire seme-alabek sentimen hori antzematerik, beraiek ere halakorik sentituko zuten beldur bainintzen. Eta hala ere ez zuen ematen horretarako prest zeudenik, pozik ibiltzen baitziren lasterka, ilargi argitan, arku hautsi haien artean, akelarrerako deia egiten ari zirela ematen zuen arku hautsi haien artean. Behin baino gehiagotan eraman nituen hilerrira gauerdia inguruan.

Bakarrik irteten ez nien gehiago utzi, ordea, laino artean gora eta behera ibiltzen zen agure batekin topo egin genuen gau batez gero. Komu-

nitatearen zerbitzari edo bezero zaharra zen, eta ardoak eta debozioak burua galarazten zioten sarritan. Mozkortzen zenean klaustroen artean ibiltzen zen hara-hona, gelaxka mortuetako atea joaz bere erromes makilarekin, arrosario luze bat zeramala makilatik zintzilik, monjeei deitzen zien oihu ardoz blaituekin eta ahots goibelaz otoitz egiten zuen kaperen aurrean. Gure gelaxkatik argi izpirik txikiena ikusi orduko, han etortzen zen mehatxuka eta birao izugarriak esanez. Maria Antoniaren etxean sartzen zen —izugarritzko beldurra zion gajoak—, eta sermoi luzeak esaten zizkion, tarteka arnegu lotsaga-beak botatzen zituen, eta sutontziaren ondoan eserita gelditzen zen azkenean, harik eta sakristaua agertu eta adeitasunez eta amarruz handik eramaten zuen arte: izan ere, sakristaua ez zen oso ausarta, eta berari etsaituko zitzaion beldur zen. Halakoetan, gizona guri etortzen zitzaigun ordu txikietan ate joka, eta Aita Nikolasi alferrik deika aritzeaz nekatzen zenean, hura baitzen bere burutapen betierekoa, Ama Birjinaren oinetan etzaten zen, gure atetik urrats batzuetara,

eta hantxe gelditzen zen lo, bere labana irekia esku batean, eta arrosarioa bestean.

Haren zalapartak ez gintuen gehiegi larritzen, ez baitzen bat-batean jendeari erasotzen dioten horietakoa. Bere oihu hasperenekin eta lurrean makuluaz egiten zuen zaratarekin urrutitik iragartzen zuenez bazetorrela, denbora aski izaten genuen animalia basati hura iritsi aurretik hanka egiteko. Gure gelaxkako haritzezko ate bikoitzak harena baino eraso bortitzagoa ere aise jasango zukeen; halere gau haietako eraso ez zen beti dibertigarria izaten, lur jota baikeenuen gure eria eta hari atsedan ordu batzuk lapurtzen baitzizkion. *Mucha calma* behar zen hura jasateko, zeren, jakina, ez genukeen herri-zainen aldetik inolako laguntzarik jasoko; gu ez ginen mezarara joaten, eta gure etsaia, berriz, sekula mezarara huts egiten ez zuen santu bat zen.

Gau batean beste era bateko larrialdi eta agerpen bat izan genuen, sekula ahaztuko ez dudana. Hasieran zarata ulertezin bat izan zen, zurezko zoruan itzulika zebiltzan milaka intxaurzakuren moduko zarata bat. Lasterka atera

ginen klaustrora, zer ote zen ikustera. Klaustroa mortu eta goibel zegoen, beti bezala, baina ete-nik gabeko zarata hura gero eta gero hurbilago entzuten genuen eta halako batean argitasun ahul batek argitu zuen gangen sakontasun itze-la; pixkana-pixkana argitu zen hainbat zuziren argitan, eta zuziek botatzen zuten lurrin gorritan agertzen ikusi genuen Jainkoaren eta gizonaren begietara higuigarri ziren gizon batzuek osaturiko aldra bat. Luzifer bera zen, hara, bere gorte guztia zuela lagun; halako deabru jaun beltz bat, adarduna, aurpegia odol kolorekoa zuena, eta haren inguruan hamaika deabrutxo, hegazti burua, zaldi buztana eta kolore guztietako urre antzeko apaingarriak zituztenak, eta emakume deabru edo artzainak, soineko zuri edo arrosa kolorekoek jantzita, deabruzko iratxo izugarriek bahituak bailiran. Oraintxe egin berri ditudan aitorpenekin, onartu behar dut minutu bat edo bitan, eta hura guztia zer zen jakin ondoren ere puska batean, borondatezko ahalegin handia egin behar izan nuela lanpara maskarada itsusi hartatik apartatu gabe eusteko; orduak, lekuak

eta zuzien argitasunak naturaz gaindiko ikuski-zuna osatzen zuten bene-benetan.

Herriko jendea zen, nekazari aberatsak eta burges txikiak; Astearte inautea ospatzen ari ziren, eta Maria Antoniaren gelaxkara zetozen beren dantzaleku oihesa han jartzera. Bere ibilaldian soinu bitxi bat zuten lagun, kriskitin hotsa; maskara zikin eta nazkagarriak zeramatzaten mutiko batzuek jotzen zuten kriskitina, aldi berean denak, baina ez erritmo eten eta neurtuaz, Espainian ohi den bezala, baizik eta etengabeko zalapartan, gudu zelaietako danborraren tarrapata bezala. Zarata hura, zeina beren dantzetan erabiltzen baitzuten, hain da lehorra eta zakarra, ezen egonarri handia behar baita ordu laurdenez hura jasateko. Jai martxan ari direnean, martxa bat-batean eten eta *coplita* bat botatzen dute denek batera, etengabe errepikatzen den eta sekula amaituko ez dela ematen duen musika esaldi baten gainean; ondoren beren tarrapatari ekiten diote berriro kriskitinek, hiruzpalau minutuko joaldian. Ez dago hura baino denborapasa ankerragorik: zuraren tarrapataz tinpanoa zulatzea. Musika esaldiak, bere

horretan ezdeusa den arren, tankera arranditsua hartzen du tarte luze horien ondoren, berez oso tankera berezia duten ahots batzuek esaten dutenean. Ahotsak lauso bezala entzuten dira pasarterik distiratsuenean, eta motel bezala bizi-tasun handieneko pasarteetan.

Arabiarrek horrela kantatuko zutela pentsa-tzen dut eta Tastu jaunak, zeinak gai horri buruz-ko zenbait ikerketa egin baititu, uste du mallor-carren erritmo nagusiak, beren apaindura gogo-koenak, hitz batean bere tankera, arabiar tanke-ra eta motakoak direla.

Deabru haiek guztiak hurbildu eta inguruan jarri zitzaizkigun gozotasun eta adeitasun han-diz, mallorcarrak ez baitira batere itsusiak eta oldarkorak, oro har, beren maneretan. Beltzebu erregeak espainieraz hitz egiteko ohorea egin zidan, eta abokatua zela esan zidan. Ondoren, bere pertsonaren iritzi jasoagoa ematearren, frantsesez hasi zitzaidan, eta Kartuja atsegin nuen ala ez galdetu nahi izan zidanean, cartuxa espainierazko hitzaren ordeztatu frantse-sezko hitza erabili zuen, kontraesan txikia,

beraz. Deabru mallorcarrak, dena den, ez du zertan hizkuntza guztietan hitz egiten jakin behar.

Dantza ez dute kantua baino alaiagoa. Haien atzetik joan ginen Maria Antoniaren gelaxkaraino, zeina baitzegoen huntzezko girlandetatik zintzilik gelan alderik alde jarritako paperezko lanpara txikiez apaindua. Haien orkestra —gitarra handi batez, gitarra txiki batez, biolin zoli batez eta hiruzpalau kriskitin parez osatua— bertako jotak eta fandangoak jotzen hasi zen; hango doinuek Espainiakoen antza dute, baina erritmo originalagoa eta errepika are ausartagoa dute.

Rafael Torres lurralde hartako lurjabe aberatsaren omenez ematen ari ziren jai hura; neska eder samar batekin ezkondu omen zen egun batzuk lehenago. Ezkonberria izan zen ia gau guztian emakume batekin aurrez aurre dantzan aritzera kondenaturiko gizon bakarra, eta horrela, bata bestearen atzetik atera zituen banan-banan dantzara. Bikotea dantzan ari zen bitartean lurrean kokoriko esertzen ziren inguruan bildutako guztiak, kopetilun eta isilik, ekialdekoak eta afrikarrak egoten diren bezala; horrelaxe egon zen alkatea bera, bere fraide kapa jantzita

eta zilarrezko heldulekua zuen eskumakila beltz handia hartuta.

Mallorcako boleroek arbasoen handitasuna dute eta Andaluzian miresten dituzten grazia profano horien falta dute. Gizon eta emakume, besoak zabalik eta geldi egoten dira denak, hatzekin kriskitinak tarrapataka eta etengabe jotzen dituzten bitartean. Rafael ederra kontzientzia lasaitzeko aritu zen dantzan. Bere egin-beharrak bete zituelarik, zakur bat bezala esertzera joan zen, besteak bezala, eta herriko *deabruak* hasi ziren orduan. Liztorra bezain argala zegoen gaztetxo batek mirespen unibertsala irabazi zuen bere aurpegian poz arrastorik txikiena ere agertu gabe mugimendu zurrinak eta jauzi galbanikoen moduko salto bertikalak eginez. Nekazari lodi bat ere bazegoen, oso dotorea eta harro tankerakoa; hankak luzatu eta besoak gerrian jarri nahi izan zituen, espainiar erara. Oihuka eraso zion jendeak, ondo merezita gainera: denik eta karikaturarik barregarriena zen. Dantza baserritar hark denbora luzean liluratuko gintuen, zaldun eta dama haiek botatzen zuten

olio kedar eta baratzuri kiratsagatik izan ez balitz, eztarrian itsatsita gelditzen baitzen.

Inauterietako mozorroak ez ziren jantzi indigenak bezain erakargarriak guretzat; bertako jantziak oso dotore eta xebreak dira. Emakumeek farfail edo muselinazko buruko zuri moduko bat eramaten dute, *rebozillo* deitua. Bi parte ditu bata bestearen gainean jarrita: lehena buruan eutsia da, atzealderantz eroria pixka bat, kokots azpitik igarotzen dela lekaimeen burukoa bezala, horrek *rebozillo en amount* du izena; bestea, berriz, sorbaldatik zintzilik eramaten da, bizkarreko baten modura, eta *rebozillo en volant* esaten zaio. Ilea zerrenda leundutan eramaten dute kopetan, eta lotuta atzean, rebosillotik txirikorda luze bat ateratzen dela bizkarrean behe-
ra, alboan berriro goratzen dena, gerritik gora. Eguneroko zarpailez jantzita daudenean bizkarretik zintzilik eramaten dute txirikorda, *estoffa-de* moduan. Gorontza, merino artilezkoa edo seda beltzekoa, leporik gabea eta mahuka motzekoa da, eta metalezko botoiak eta gustu eta aberastasun handiz botoietan pasatako zilarrrezko kateak ditu ukondo azpian eta bizkarre-

ko josturetan. Gerria dute estua eta lerdena, oina oso txikia, jai egunetan zapata txukunez jantzia. Herritar xaloenak ere eramaten ditu farfailezko galtzerdiak, satenezko zapatak, urrezko katea lepoan eta zilar katezko besaldi asko soinean eta gerritik zintzilik. Asko ikusi nituen gorpuzkera egokikoak, gutxi ordea politak; aurpegiera erregularra dute, andaluziarrek bezala, baina fisonomia xaloagoa eta gozoagoa. Soller ingurukoek eder fama dute, baina ez nintzen hara joan.

Ikusi nituen gizonak ez ziren ederrak, baina hala ematen zuten lehen begiratuan, beren janzkerak ederki ematen baitie. Igandetan seda nabardunezko gerruntze bat (*garde-pits*) jantzen dute, bihotz moduan ebakia eta oso irekia bularraldean; eta jaka beltz bat (*sayo*), laburra eta gerrian estua, emakumezkoen gorontza bezala. Alkandora zuri-zuria, lepoan eta mahuketan zerrenda brodatu batekin itxia, lepoa estali gabe duena eta bularrean oihal zuri eder batez apaindua, janzkera nabarmentzen duela. Gerrian koloretako gerriko bat eramaten dute lotuta, eta galtza luze lasaiak, turkiarrenak beza-

lakoak, bertan egindako kotoizko eta sedazko zerrendekiko oihalezkoak. Horrekin batera hari zuri, beltz edo nabarrezko galtzerdiak eramaten dituzte, eta tinte edo apresturik gabeko behi larruzko oinetakoak. Kapelu hegal-zabala, basakatuaren larruz egina (*moxine*), sedazko eta urrezko hariz egindako kordoi eta bolekiak da, eta hautsi egiten du gainerako jantzien ekialdeko kutsua. Etxean, foulard edo zapi indiar bat lotzen dute buruan, turbante modura, eta kape-luan baino askoz ere hobeto ematen die. Neguan, artile beltzezko txapel bat janzten dute, tonsura estaltzeko; izan ere, moztu egiten dute kalpar aldeko ilea, fraideek bezala, garbitasunagatik —eta Jainkoak badaki ez diela askorik laguntzen!— edo debozioagatik. Ilea sendo harroa, zakar eta kizkurra, lepo inguruan zintzilik eramaten dute beraz (zurda gelditzen den bezala). Guraizeekin kopetan egindako ebakiak osatzen du adats hori, Erdi Aroko modaren arabera doi moztua, eta aurpegi guztiei indarra ematen diena.

Landan erabiltzen duten janzkera, are baldarragoa, xelebregoa da oraindik. Hankak erama-

ten dituzte biluzik edo larru horizko azpantarrez belauneraino estaliak, urte sasoiaren arabera. Bero egiten duenean ez dute alkandora eta gal-tza harroak besterik janzten. Neguan, fraide janz-tziaren tankerako kapa gris bat janzten dute gai-netik, edo Afrikako ahuntz larru bat bestela, ilea kanpoalderantz jarrita. Taldean dabiltzanean, zerrenda beltz batek alderik alde zeharkaturiko lehoi tankerako larru horiek bizkar gainean jarri-ta burutik oinetaraino iristen zaizkiela, atzeko hanken gainean dabilen artaldetzat har litezke erraz asko. Landara doazenean edo etxerako itzuleran, aurretik joaten da bat, ia beti, gitarra edo flauta jotzen, eta atzetik joaten dira besteak, isilean, haren urratsari jarraituz, burumakur, aire inozo edo ergelaz. Eta hala ere, ez dute zorroz-tasunik falta, eta leloa litzateke haien itxurarekin fio dena.

Altuak dira, eta beren janzkerak are altuago egiten ditu, argal itxura ematen baitie. Lepoa ederra eta sendoa dute, eta ez dute sekula esta-lita eramaten; bularra zabala eta ongi eratua dute, eta ez dute gerruntze esturik eta tiranterik

eramaten; baina hanka okerrak dituzte gehienek.

Agureak eta gizon adintsuak, aurpegieraz ederrak izan ez arren, serioak dira bederen eta duintasun handiko tankera dute. Fraideak ematen dute guztiek, poetikoki adierazi izan dituzten bezala. Belaunaldi gaztea arrunta iruditu zitzaigun, eta tankera xelebrea; jatorriarekiko lotura eteten duela iritzi genion. Fraideek duela hogeit hamar urtez geroztik bakarrik utzi al diote etxeo intimitatean esku hartzeari?

— Bidaia-txantxa bat baino ez da.

II. kapitulua

Aurretik ere esan dut fraide bizitzaren sekretua ezagutzea bilatzen nuela nik leku horietan, bizitza horren arrastoak artean fresko baitzuden horietan. Horrekin ez dut esan nahi, ordea, Kartujari zegokion misteriozko gertaera berezirik aurkitzea espero nuenik; mendeetan zehar giza bizitzatik urrundu zituzten preso isil haien barru-barruko pentsamendua azal ziezadaten eskatzen nien, ostera, horma abandonatu haiei. Belaunaldiz belaunaldi Kartuja hartara holokausto batean bezala Jainko saiatu honi —jainko paganoek bezalaxe giza biktimak behar zituen Jainko honi— eskainitako arimen fede kristauren hari mehe edo etenari jarraitu nahi izango niokeen. XV. mendeko kartujo bat eta XIX. mendeko beste bat berpiztu nahi izango nituzkeen, orobat, beraiek jakin ez arren fede elkarren oso desberdina zuten bi katoliko haiek alderatu ahal izateko, eta batak besteari buruz zuen iritzia galdetu ahal izateko.

Irudipena nuen lehenengoaren bizitza nahiko erraz osatuko nuela neure gogoan egiantzaz. Erdi Aroko kristau hura goitik beherako kristautzat neukan: suharra zen eta zintzoa, bihotza erditurik zuen bere garaikideen gerra, liskar eta sofrimenduen ikuskizunaren ondorioz, gaitzen amildegi hartatik ihesi zihoan, eta behatze aszetikoa bilatzen zuen bizitzatik —masen perfektotasunaren ideia gizakientzat ezin iritsizkoa— ahal bezain beste bakartzeko eta askatzeko. XIX. mendeko elizgizonak, aldiz, begiak ixten zizkion gizadiaren urrats sentikor eta argiari, ez zitzaizkion gainerako gizonak axola, ez zituen jadanik ulertzen ez erlijioa, ez aita santua, ez eliza, ez gizartea, ezta bere burua ere, eta bere Kartujan ez zuen bizileku handi, atsegin eta seguru bat besterik ikusten; eta bere bokazioan, berriz, bizitza segurua, bere senen errugabetasuna, eta norberaren merezimendu propiorik gabe elizkoien, nekazarien eta emakumeen aintza eta begirunea lortzeko modua. Hemeretzigarren mendeko kartujo horren irudia ezin osatu nuen bestea bezain erraz. Ezin asmatu nuen zehatz-mehatz monje hark nolako damu, itsutasun,

hipokresia edo zintzotasuna izango zuen. Ezinezkoa zen gizon hark Erromako Elizan benetako fedea izatea, adimenik gabea ez bazen behintzat. Eta ezinezkoa zen orobat, ateismoaren jarraitzaile sutsua izatea; horrela bere bizitza guztia gezur gorrotogarria izango baitzen, eta nik ezin sinetsi dut erabat ergela edo erabat doilorra den gizon bakar bat badenik. Bere barru borroken irudia ikusten nuen neure begien aurrean, infernu bat balitz bezala; gatazkaren eta mendekotasunaren, zalantza filosofikoaren eta sineskeriaren lehia nuen orobat aurrez aurre; eta neure burua gela hartan ni baino lehen bizi izandako monje harengandik zenbat eta hurbilago ikusi, orduan eta indar handiagoaz sentitzen nituen nire irudipen hunkituan hari egotzitako larritasun eta ezinegonak.

Antzinako klaustroei eta Kartuja modernoari begiratu hutsarekin ikusi ahal dira anakoreta haien bizitzan poliki-poliki sartu ziren ongizate beharren, osasuntasunaren eta baita dotoretasunaren nondik norakoak, eta orobat antzeman ahal da monasterioetako ohituren, hilduraren eta penitentziaren lasaitasuna. Antzinako gela-

txo guztiak ilunak, estuak eta itxiak ziren; berriak, berriz, egurastuak, argiak eta ondo erai-kiak. Gu bizi ginen gelaren deskripzioa egingo dut eta horrela erakutsi ahal izango dut zenbate-raino zen zorrotza kartujoen araua, nahiz eta hartatik aldentzeko eta hura leuntzeko eginahak egin zituzten.

Bizitokia osatzen zuten hiru gelak zabalak ziren, ganga dotoreekikoak, eta atzealdean era askotako eta oso irudi ederreko errosetoiak zituzten, egurasbide gisa. Hiru gelen eta klaus-troaren artean igarobide bat zegoen, iluna eta haritzeko ate batez itxia. Horma hiru oin zen lodi. Erdiko gela irakurtzeko, errezatzeko, eta gogoetarako gela zen. Altzari bakarra zuen: eserleku luze bat, belaun-aulki eta bizkarduna, sei-zortzi oin garaia, horman sartua eta finkatua. Gela horretatik eskuinera kartujoaren logela zegoen: atzealdean ohea zuen, ohe baxu bat, harlauzaz estalia hilobi baten antzera. Ezkerreko gela lantokia, jangela, eta bakarzalearen biltegia zen. Gelaren atzealdean armairu bat zegoen: egurrezko ate bat zuen, klaustrora irekitzen zen lehiatila baten modukoa, eta ate hartatik sartzen

zizkieten jakiak. Bertako sukaldean bi labete txiki besterik ez zegoen; labetxoak ez zeuden gela barruan, baina ezta aire zabalean ere, arauak dioen bezala. Lorategian, ganga ireki batek babesten zuen euritik monjearen sukalde lana, eta horri esker fundatzaileak berak nahi izango lukeena baino denbora gehiago aritu zitekeen lan hartan. Bestalde, hirugarren gela horretan sartuta zegoen tximinia batek beste lasaikeria batzuk bazirela erakusten zuen, nahiz eta arkitektoaren jakintza ez zen tximinia hari erabilgarritasuna emateko adinakoa.

Bizitokiaren atzealdean, errosetoiaren parean, igarobide luze bat zegoen, estua eta iluna, gela egurasteko espreski eraikia, eta haren gainean, ganbara bat, artoa, tipulak, babak eta negurako beste hainbat janari eta edari gordetzeko. Hegoaldean, hiru atalek lorategi batera ematen zuten; bizitoki osoaren eremua hartzen zuen lorategiak. Lorategi horrek hamar oineko harresi bat zuen alboko lorategietatik bereizteko, eta egitura sendoko terraza batean finkatuta zegoen, laranjondo baso txiki baten gainean; mendiaren mailadia hartzen

zuen oso-osorik terraza hark. Hurrengo mailadia mahats sare eder batek estaltzen zuen guztiz; hirugarrena almendrondo eta palmondoek, eta horrela bata bestearen ondotik eta ibarraren hondoraino, non, lehen esan bezala, lorategi handi bat zegoen.

Gela bakoitzeko lorategi zatiak harlanduzko urasko bat zuen eskuinean, alderik alde. Hiruz-palau oin luzea eta beste horrenbeste sakona zen urasko eta mendiko ura jasotzen zuen terrazaren balaustradan egindako ubideetan; ondoren, lorategira isurtzen zuen lorategia lau zati berdinetan zatitzen zuen harrizko gurutze baten bidez. Ez dut sekula ulertu hainbeste ur biltzea gizon bakar baten egarria asetzeko, ezta halako ureztatze sistema izatea ere, hogeitau oineko diametroa zuen alor batentzako. Monjeek bainuari izu handia diotela eta gai horri dagokionez Mallorcan ohitura xuhurrak dituztela jakin ezean, pentsa zitekeen monje haiek eguna beren burua garbitzen igarotzen zutela, indiar apaizen antzerara.

Puni sagarrondoak, limoiondoak eta laranjondoak landaturik dauden sailari dagokionez,

bidexka ugari zituen inguruan; zorutik adreiluz goratutako bidexkak ziren eta adar usaintsuen gerizpean zeuden, urtegia bezalaxe. Lorez eta berdez beteriko areto eder bat zirudien: egun hezeetan hankak busti gabe ibil zitekeen monjea han, eta egun idorretan, berriz, ur geruza fin batez freskatu zezakeen belardia; laranjondoen lurrina usain zezakeen terraza eder haren ertetik, laranjondo horien buru adartsuek lore eta fruituzko kupula eratzen zutela bere begien aurrean; eta bake-bakean ikus zezakeen paisaje aldi berean garratz eta sotila, malenkoniatsu eta arranditsua, zeinari buruz hitz egin dudan dagoeneko; bere begien atseginerako lore bitxi eta ederrak landu zitzakeen, egarria asetzeko fruitu gozoak bildu, itsasoaren hots atseginak entzun, udako gauen distira ikusi zeru ederraren azpian jarrita, eta Betikotasuna gurtu gizakiak naturaren erdian eraiki duen tenplu ederrenetako batean. Horiexek iruditu zitzaizkidan hasieran kartujoaren esan ezinezko gozamenak, eta horiexek aitortu nizkion neure buruari gela haie-tako batean sartu nintzenean: poeta eta artista talde hautatu baten irudipenaren edo ametsen

apeta handiak asebetetzeko prestatuak ematen zuten.

Baina gure baitan adimenik gabeko, eta beraz, ametsik eta gogoetarik gabeko, eta beharbada, federik gabeko, alegia gogo bero eta bakartasunik gabeko gizon baten bizitza irudikatzen dugunean horma handi, mutu eta gorreko gela horretan zokoratuta; eta irudikatzen dugunean gainera, araudiak aginduriko gabezia zakarren mende, eta letrak behatzera behartuta haien izpiritua ulertu ere egin gabe; bakardadearen izugarrikeriara kondenatuta; gizakia urrutitik bakarrik, mendien gainetik, ibarrean behera irristatzen ikustera murriztuta, eta orobat, isiltasun berari loturiko, hilobi berean beti alboan eta beti banandurik —baita errezoetan ere— ehortzitako arima gatibuen axolarik ez izatera murriztuta; norberak, izaki aske eta pentsatzaile delarik, atxikimenduz zenbait izuetarako eta ahuleziarako joera hartzen duenean, triste eta ilun bihurtzen da hori guztia, ezerezaren, izuaren eta ezintasunaren bizitza izango balitz bezala.

Hala ulertzen da monje hark zuen higuin aseezina, naturak ikuskizun ederrenak agorturik

baitzeuzkan harentzat; eta ulertzen da monjeek haiekin ez gozatzea, bere gozamenen partaide egiteko beste gizonik ez baitzuen alboan; eta ulertzen da aitorle horren tristura basatia, abere batek bezala, landare batek bezala, hotza eta beroa besterik sentitzen ez duena; eta ulertzen da orobat kristau horren hotz hilgarria, ezerk ez baitu harengan aszetismoaren izpiritua ez pizten ez ernarazten. Bakarrik jatera, bakarrik lan egitera, bakarrik sofritzera eta bakarrik errezatzera kondenaturik, behar bakar bat izango du: itxitura izugarri horretatik ihes egitea. Eta esan didate azken kartujoak ez zirela oso zorrotzak, eta haien arteko batzuek hainbat aste edo hilabete-tarako alde egiten zutela Kartujatik eta prioreak ezin itzularazten zituela gero Ordenara.

Beldur naiz ez ote dudan gure Kartujaren deskripzio luze eta zehatzegia egin azalpenik ere eman gabe lehen unean liluratu gintuenaz, eta behin ondo aztertu genuenean gure begietara galdu zuen poesiaz. Nire oroitzapenei amor eman diet, beti egiten dudan legez, eta behin nire usteak ezagutzera eman ditudanean, hala neure buruari galdetzen diot zergatik ezin izan

ote dudan hogei lerrotan esan hogei orrialdetan esan dudana: alegia, izpirituaren atsedean sorgorra, eta atsedean horrek eragiten duen oro, atsegingarria dela arima akituarentzat, baina xarma hori desagertu egiten dela gogoetarekin. Jeinu batek beste inork ez du pintzelkada bakar batez marrazki bizi eta osoa osatzen. La Mennais jaunak Tivoliko kamaldolitarrek bisitatu zituenean, horren antzeko sentimendu bat izan zuen eta maisutasunez adierazi zuen, gainera:

«Taldea otoitzaren orduan iritsi ginen, dio, haienera. Edadetuak eta ohi dena baino altuagoak zirela iruditu zitzaigun. Nabearen alde banatara ilaran jarririk, elizkizuna amaitu zenean belauniko gelditu ziren, geldi-geldi, meditazio sakonean. Esan zitekeen ez zirela jadanik mundu honetakoak; beste gogoeta eta beste kezka batzuetara makurturik zuten beren buru soila; ez mugimendurik, ez bizitzaren seinale agerikorik; beren jantzi luze zurietan bilduta, antzinako hilotzetan otoitz jarreran izaten diren estatuak ematen zuten.

»Oso ondo ulertu genuen bizitza bakarti horrek zer-nolako erakarpina zuen munduko

zenbait arima akituentzat eta ametsak usteldurik dituzten zenbaitentzat. Nork ez du, inoiz, halako zerbaitekin amets egin? Nork ez ditu, behin baino gehiagotan, begiak basamortura zuzendu, eta amets egin basoaren bazter batean, edo mendiko haitzuloan, zeruko txoriek beren egarria asetzen duten iturri ahaztutik hurbil, atsedean hartzearekin?

»Hala ere, ez da hori gizonaren benetako xedea: ekintzarako jaioa da bera; badu eginbehar bat, eta bete egin behar du. Zer axola dio eginbehar hori neketsua izateak? Ez al da, bada, eginbehar hori maitasunera bideratua?» (*Affaires de Rome*).

Orrialde labur hori irudi, asmo, ideia eta gogoeta sakonez beterik dago, eta La Mennaisek Elizari buruz emandako azalpenen erdi-erdian halabeharrez bezala jarri zuen; betidanik hunkitu nauen pasarte da hori, eta seguru nago margolari handiren batek, egunen batean, lan bat egingo duela gai horren inguruan. Alde batetik, kamaldolitarrek otoitzean, monje ilunak, gozoak, betiko ezdeusak, betiko ahalgabeak, irudi goibelak, denbora laburrean iraganaren gauera itzuli-

ko den gurtzaren azken adierazpena, hilobiko harriaren gainean belaunikaturik, harria bezain hotz eta goibel; beste aldetik, etorkizuneko gizona, azken apaiza, Elizaren jeinuaren azken txinpartak adoretua, monje haien patuaz gogoeta egiten: artistak bezala die haiei begiratzen, filosofoak bezala ditu epaitzen. Hemen, heriotzaren lebitarrak, beren hiljantziaren azpian zurrun; han, bizitzaren apostolua, pentsamenduaren alderdi mugagabeetan dabilen bidaiari nekaezina, komentuko poesiari azken agur maitagarria ematen eta aita santuen hiriko hautsa hanketatik astintzen askatasun moralaren bide santuari ekiteko.

Neure Kartujari buruz gertaera historiko bat besterik ez dut bildu: San Bizente Ferrer Vallde-mossan predikatzen aritu zenekoa. Azalpen zehatza Tastu jaunari zor diot, oraingoan ere. San Bizenteren predikua izan zen Mallorcako gertaera handia 1413an, eta kontuan hartzekoa da garai hartan zenbateraino nahi zuten misiolari bat eta zenbateko hotsaundiaz hartu zuten.

«1409. urtean, mallorcarrek, biltzar handian bildurik, Bizente Ferrer —edo Ferrier— maisuari

idaztea erabaki zuten, Mallorcara predikatzaera etor zedin eskatuz. Luis de Prades Mallorcako apezpiku eta Benedikto XIII.a aita santuaren (Pedro de Luna antipaparen) kamarlengoak, Valentziako epaileei idatzi zien 1412an Bizente maisuaren apostolutza erregutuz. Eta hura bera izan zen handik urtebetera Bizente maisuari Barzelonan harrera egin ziona eta harekin batera Palmarako bidean itsasoratu zena. Misiolari santua Palmara iritsi eta hurrengo egunean bertan hasi zen predikuan eta gaueko prozesioak ere antolatu zituen. Sekula ez bezalako lehortea zuten uhartean; baina Bizente maisuaren hirugarren sermoiarekin batera, euria hasi zuen. Xehetasun horiek Fernando erregeari bidali zizkioten Pedro de Casadaguilaren bitartez, errege prokuradore baitzen hura:

«Printze txit gorena eta jaun Garailea, jakinarazten diot berorri Bizente maisua irailaren lehenengo egunean iritsi zela hiri honetara, eta harrera ospetsua egin zitzaiola. Larunbat goizean, jende saldo handi baten aurrean hasi zen predikuan, eta jendeak halako debozioz entzun zion, ezen prozesioak egin zituzten gaua joan

gaua etorri, eta bere burua zigortzen zuten gizon, emakume zein haurrek. Eta denbora luzean euririk egin ez zuenez gero, erreinu honek, zeina baitzen lehortearen ondorioz hiltzeko zorian, hirugarren sermoiarekin batera uharteko bazter guztiak bustiko zituen euri jasa ikus zezan nahi izan zuen Jainko Gure Jaunak, haurren eta herritarren erreguekin hunkiturik, eta horrek bozkarioz bete zituen biztanleak.

«Jainko Gure Jaunak urte askotan gorde dezala Jaun Garaile hori, eta gorenera jaso dezala berorren errege koroa.

Mallorca, 1413ko irailak 11».

»Hainbeste ziren misiolariaren hitza entzuteko irrikitan zeuden jendeak, ezen ez ziren Santo Domingoren komentuko eliza handian sartzen eta komentuko lorategi handia egokitu behar izan zen aldambioak eraikiz eta harresiak eraitsiz.

»Urriaren 3a arte aritu zen Bizente Ferrer Palman predikari; eta handik uhartean zehar bidaldia egitera abiatu zen. Lehenengo geldialdia Valldemossan egin zuen, ostatz hartu behar zuen monasterioa zegoen herrian hain zuzen ere; zalantzarik gabe, bere anaia Bonifazioren —

kartujotarren ordenako jenerala bera— ohoretan hautatu zuen monasterio hura. Valldemossako priorea etorri zen Palmara Bizenteren bila eta berarekin egin zuen bidaia. Valldemossan ere, Palman baino are gehiago, jendetza hura hartze-ko txikiegia zuten eliza.»

Hona hemen zer kontatzen duten kronikariek:

«Valldemossako herriak gogoan du Bizente Ferrerrek hitz santuak erein zitueneko garaia. Herri hartako lurretan bazen *Son Gual* izeneko etxalde bat, eta hara joan zen misiolaria jende saldo amaigabe bat atzetik zuela. Lur eremu zabala eta laua zen; olibondo zahar handi baten enbor zulatu bat hartu zuen sermoi ahulki gisa. Santua olibondora igota predikatzen ari zela, uholdeka hasi zuen euria. Deabruak, bera baita haize, tximista eta trumoien eragile, entzuleak zabaldi hartatik uxatu eta aterpean gordetzera behartu nahi zituela ematen zuen, eta horixe egin zuten batzuek; baina Bizentek handik ez mugitzeko agindu zien eta errezatzen hasi zen. Otoitzean hasi eta berehala, hodei bat jarri zen errezel baten antzera haren eta entzule zeuden

guztien ganean; aldiz, ondoko lurretan lanean jarraitu zuten haiek beren lana utzi beste erre-mediorik ez zuten izan.

»Enbor zahar hura leku berean egon zen orain duela mende bat arte, gure arbasoek zintzo zaindu baitzuten. Geroago, *Son Gual* etxaldearen jabeek ez baitzuten objektu sakratu hura zaindu, oroitzapena ezabatu egin zen. Baina Jainkoak ez zuen nahi izan San Bizenteren eserleku latz hura betiko galtzea. Jabetza hartako zerbitzariak egurra moztu nahian zebiltzala, olibondo zahar hartan jarri zituzten beren begiak eta txiki-txiki egiten saiatu ziren; baina, tresnak hautsi zitzaizkien lanean hasi orduko. Herriko zaharrek gertaera haren berri izan zutenean, miraria zela aldarrikatu zuten, eta hala gelditu zen olibondo sakratua bere lekuan. Baina gertatu zen geroago zuhaitz hura hogeita hamalau puskatan printzatu zela, eta hirira eramán zituzten arren, ez zen inor ausartu haiek ukitzera: erlikia gisa hartu zituzten.

»Predikari santua herriz herri ibili zen predikuan, herri txikienetara ere joan zen zorigaizto-koen gorputzen eta arimen sendalari. Vallde-

mossa inguruko iturri batetik zerion ura zen santuak agintzen zuen erremedio bakarra. Iturri edo iturburu hura *Sa bassa Ferrera* izenaz ezagutzen da gaur egun ere.

»San Bizentek sei hilabete eman zituen uhartean, eta bitarte horretan Aragoiko errege Ferdinandok deitu zion, Mendebalera hondamena ekarriko zuen zisma itzaltzen laguntzeko. Misio-lari santuak 1414ko otsailaren 22an Palmako katedralean emandako sermoiarekin agurtu zituen mallorcarrak. Entzuleak bedeinkatu eta itsasontzira abiatu zen, epaileak, nobleak, eta herritarrak lagun zituela, eta mirari ugari egin zituen; hala diote kronikek eta hala gorde du Balearretako uharteetako tradizioak gaur egun arte».

Fanny Elssler anderearen irribarrea eragingo lukeen kontakizun horrek Tastu jaunaren azalpen bati bide eman zion. Azalpen hori bi arrazoi-gatik da aipagarri: batetik, oso natural kontatzen duelako San Bizente Ferreren mirarietako bat; eta bestetik, hizkuntzen historiarako garrantzi handiko gertaera bat berresten duelako. Hona hemen ohar hori:

«Bizente Ferrerrek latinez idazten zituen bere sermoiak, baina esan, Limogesko hizkuntzan esaten zituen. Miraritzat hartzen zen predikariaren ahalmen hori, entzuleei bere esana ulertarazten baitzien atzerriko hizkuntzan mintzatzen zelarik ere. Baina gauza arrunt naturala da hori, Bizente maisua zein garaitan nabarmendu zen kontuan harturik. Garai hartan, iparraldeko, erdialdeko eta hegoaldeko hiru eskualde handietako erromantze hizkuntza berdina zen ia, desberdintasunen bat edo beste gorabehera; herri-tarrek eta, batez ere, epaileek oso ondo ulertzen zuten elkar. Bizente maisuak arrakasta handia izan zuen Ingalaterran, Eskozian, Irlandan, Parisen, Britainian, Italian, Espainian, Baleareetako uharteetan; eskualde horietan guztietan ulertzen zuten, nahiz eta ez zuten erabiltzen, erromantze hizkuntza, valentzieraren kide, senide edo aliatua, Bizente Ferrerren ama hizkuntza.

»Eta ez al zen, bada, misiolari ospetsua Chaucer poetaren, Jean Froissarten, Christine de Pisanen, Boccaceren, Ausias Marchen, eta beste hainbat eta hainbat europar ospetsuren garai berekoa?». ».

III. kapitulua

Ezin dut kontakizun honekin aurrera jarraitu Valldemossako eliz gertakarien azalpena egin gabe; izan ere, gurekin harremana izan zuten herritarren debozio gartsuaz hitz egiteko, ezinbestean aipatu beharrekoa dut haiek harrotasunez goستن duten santu bat, zeinaren bizileku xumea ere erakutsi baitziguten.

«Valldemossan jaioa zen Katalina Tomas, Pio VI.a aita santuak 1792an dohatsu aitortua. Neskatxa santu haren bizitza askotan idatzi dute, Antonio Despuig kardinalak azkenekoz. Bizitza lañoa eta zintzoa izan zuen. Jainkoak, dio elezaharrak, goizik eman zion arrazoia bere zerbitzariari; barauak zorrotz betetzen zituen, Elizak agintzen duena baino gazteagoa izanik ere. Gazte-gaztetan hasi zen egunean jatordu bakarra egiten. Hain zien debozio handia Salbatzailearen pasioari eta haren Ama Santuaren oina-zeei, ezen bere ibilaldietan etenik egin gabe errezatzen baitzuen arrosarioa, olibondoen eta legeltxorren hostoez baliatuz hamarrekoak kon-

tatzeko. *Viejecita*, atso xaharra, ezizena jarri zioten bakardadea eta erlijio ariketak gogoko zituelako, eta dantzetatik eta jai mundutarretatik urrun bizi zelako. Bere bakartasunak eta barauak, hala ere, bazuten saririk, aingeruak eta zeruko gorte guztia etortzen baitzitzaion bisitan: Jesukristo, Ama eta santuak zerbitzari bihurtzen ziren; gaixotzen zenean Mariak zaintzen zuen; erortzen zenean San Brunok jasotzen zuen; iluntzen zuenean San Antoniok laguntzen zion, pitxerra iturrira eramanez eta beteaz; Santa Katalina bere zaindariak orrazten zuen eta laguntzen zion gauza guztietan, ama zuhur eta erneak egingo lukeen bezalaxe; deabruarekin izan zituen borroketan sortutako zauriak —neskatxaren garaipena ez baitzen borrokarik gabe lortua— San Kosmek eta San Damianek sendatu zizkioten; azkenik, San Pedro eta San Paulo albo banatara izaten zituen tentazioetan laguntzeko eta defenditzeko.

»Katalinak Palmako Santa Madalenaren monasterioan hartu zuen San Agustinen ordena; penitenteen eredu izan zen, eta Elizak bere otoitzetan abesten duen bezala, zintzoa, pobrea,

garbia eta umila izan zen. Katalinaren historialariek igarkizunaren izpiritua eta mirarien dohaina aitortzen diote. Historialari horiek diotenez, Katalinak, behin, Pio V.aren osasunagatik Mallorcán otoitz egiten ari zirela, otoitzak etenarazi eta esan omen zuen ez zela gehiago otoitz horien beharrik, aita santuak orduantxe bertan utzia zuela mundu hau; eta hala gertatu zen gertatu ere.

»Katalina 1574ko apirilaren 5ean hil zen, Salmugilearen hitzak esaten ari zela: «Jauna, zure esku uzten dut nire izpiritua».

»Haren heriotza ezbehar handia izan zen ororentzat; ohore handienak eskaini zitzaizkion. Mallorcako dama errukitsu batek, Juana de Pochs andreak, santua lurperatzeko hasieran hartu zuten zurezko hilkutxa aldatu zuen, eta alabastrozko hilkutxa zoragarri bat eskatu zuen Genoara; horrez gainera, dohatsuaren translazio egunerako meza bat eta Santa Katalina egunerako beste bat, hura baitzuen zaindari, agindu zituen bere testamentuan; eta eskatu zuen, orobat, santuaren hilobian beti egon zedin lanpara bat, argi egiten.

»Gaur egun neskatxa santu haren gorpua Santa Eulalia parrokiako mojen komentuan dago; Despuig kardinalak aldare bat eta erlijio zerbitzu bat eskaini dizkio han.»

Atsegin handiz ekarri dut hona elezahar hau, ez baita nire asmoa, inolaz ere, inoren santutasuna ukatzea: arima sutsuen egiazko eta asmo oneko santutasunaz ari naiz noski. Nahiz eta Valldemossako neskatxa nekazari haren gogo beroak eta irudipenek ez duten kristautasunaren garai zoriontsuko santuen iragarpenen eta estasi-en balio filosofiko berbera, hala ere, Santa Jenobeba artzaintsa poetikoaren eta Juana Arc-ekoa artzaintsa handiaren kideko da *viejecita Tomasa*. Erromako elizak ez ditu inoiz herriko ume apalenak baztertu ohore handieneko lekue-tatik zeruetako erreinuan; baina iritsi da, aldiz, herritarrei lurreko erreinuan leku gehiago eman nahi dien apostoluak kondenatzen eta zapuzten dituen garaia. Katalina *pagesa zintzo, pobre, garbi* eta *umila* zen: Valldemossako *pagès*-ek ez dute onurarik atera, ordea, eredu horietatik, eta ez dute batere ulertu haien bizitza, hainbestera-ino ezen egun batean nire haurrak harrikatu nahi

izan zituzten nire semeakomentuko hondakinak marrazten ari zelako, itsuskeria handia omen zelako. Elizak egiten zuen gauza bera egiten zuten haiek ere: esku batekin fede zigorraren sua pizten zuten, eta bestearekin, berriz, beren santuen eta beren dohatsuen irudiak intsentsatzan zituzten.

Valldemossako herria, zeina hiri izateko eskubidea izateaz harro baitago arabiarren garaiaz geroztik, mendi magalean dago, Kartujaren maila berean; Kartujaren eranskina dela ematen du. Itsas antxeten habia pila bat da; ia ezin iritsizko paraje batean dago, eta bertako biztanle gehienak arrantzaleak dira, goizean goiz etxetik irten eta gauera arte itzultzen ez diren arrantzaleak. Egunez, beraz, herria emakumez beterik dago, munduko emakume berritsuenez beterik; etxeko atarian egoten dira senarren sareak eta frakak konpontzen, ahots betean kantari. Emakumeak gizonak bezain elizkoiak dira, baina emakumeen debozioa ez da gizonena bezain jasangaitza, zintzoagoa baita. Beste sexuarekiko duten nagusitasuna da hori, bai han eta baita munduko beste bazterretan ere. Ema-

kumeeek gurtzaren jardueretik duten lotura, oro har, gogo beroak, ohiturak edo sinisteak eragina da; gizonezkoengan, aldiz, handikeria edo onura kontua izaten da ia beti. Horren froga nahiko argia Frantziak erakutsi zuen, Luis XVIII.a eta Karlos X.a erregeen agindupean: administrazio-ko lanpostuak aitortza txartel baten edo meza baten truke lortzen ziren erreinaldi haietan.

Mallorcarrek fraideenganako zuten atxiki-menduak diruzalekeria du oinarri; eta hori ondo azaltzeko erarik egokiena Marliani jaunaren iritzia aipatzea izango dut. Iritzi horrek uste ona merezi du, eta are merezimendu handiagokoa, kontuan harturik gaur egungo Espainiako historialariak ez dutela onartzen 1836an fraideak kanporatzeko hartu zen neurria.

«Lurjabe onberak —dio— eta beren aberastasunekiko kezka handirik gabekoak ziren, eta benetako interesak sortu zituzten beraien eta nekazarien artean; komentuen lurrak lantzen zituzten maizterrek ez zuten zorrotasun handirik jasaten ez alokairuen zenbatekoari eta ez ordainketa maiztasunari dagokionez. Fraideek, etorkizunik ez zuten gero, ez zuten aberasta-

sun handirik biltzen, eta norberaren izate materialaren beharrak asetzeko ondasun nahiko biltzen zutelarik, adeitsu ziren gainerakoan. Fraideen espoliazioak min handia egin zion nekazari-erri alferkerian eta berekoikeriaz bizitzeko zuten asmoari: berehala ohartu ziren gobernu eta lur-jabe berria familia eta gizarte ardurarik gabeko bizkarroi talde bat baino zorrotzagoak izango zirela. Jantokiaren inguruan biltzen ziren eskaleek ez zuten aurrerantzean alfer asebate haien hondarrik bilduko.»

Nekazari mallorcarren karlismoaren funtsa materiala da soil-soilik, ez baita Espainiari buruz hark baino abertzaletasun sentimen ahulagoa duen probintziarik, ezta politikaren garrak hain gutxi asaldatzen duen biztanlerik ere. Antzinako ohiturak zuzpertzeko isilpeko botoak egiten bazituzten ere, nahasmendu ororen beldur ziren, edozein motatakoa zela ere; eta gu uhartean ginela, uhartea setio egoeran jarri zuen asaldurarekin berdin-berdin izutu ziren Karlosen aldekoak zein Isabelen aldekoak. Asaldura hark nahiko garbi erakusten du ez mallorcarren koldarke-ria (ez dut zalantzan jartzen soldadu onak izate-

ko gai direnik), baizik eta ondasunaren kezka eta atsedeen zalekeriak sortzen dien ezinegona.

Apaiz zahar batek etxean bidelapurrak sartu zitzaizkiola amets egin zuen gau batez; erabat aztoraturik jaiki zen, amesgaiztoaren zirrararen ondorioz, eta bere zerbitzaria esnatu zuen. Zerbitzariak, ugazabaren izua bere eginik eta zer gertatu zen ere jakin gabe, bizilagun guztiak esnatu zituen bere oihuekin. Herri osoan zehar zabandu zen izua, eta handik uharte osora. Karliten gudarosteak Mallorcan lur hartu zueneko berria guztiei josi zitzaien gogoan, eta kapitain jeneralak apaizaren azalpena entzun zuen; apaizak karlistak ikusi zituela baieztatu zuen, zela atzera egiteak lotsa ematen ziolako, zela bere izpiritu beldurtua sukar ametsak hartu zuelako. Berehala hartu ziren arriskuari aurre egiteko neurri guztiak: Palma setio egoeran ezarri zuten, eta uharteko gudarostea gudarako prestatu zen.

Baina han ez zen ezer agertu, ez zen laharrik mugitu, ez zen oin atzerritarren arrastorik gelditu itsasbazterreko hondarrean, Robinsonen uhartean bezala. Agintariek zigorra ezarri zioten apaizari, barregarri utzi zituelako, eta zoroekin

egiten den bezala haizea hartzera bidali ordez, espexera bidali zuten matxinatuekin egiten den bezala. Ez zituzten, ordea, hartutako neurriak indargabetu, eta guk Mallorca utzi genuenean, Marotoren hilketen garaian, indarrean zen oraindik setio egoera.

Gauza benetan bitxia zen mallorcarrek Espainia aldea astintzen ari ziren nahasmenduen berri elkarki ematerakoan erabili ohi zuten halako misterio moduko hura. Inork ez zuen kontu haietaz hitz egiten, ez bazen senitartean, eta ahapeka orduan ere. Ez gaiztakeriarik, ez tiraniarik benetan ez dagoen herri batean, ezin uler daiteke nolatan den nagusi halako mesfidantza irudikorra. Ez dut irakurri Palmako egunkariko artikulak baino gauza barregarriagorik, eta beti damutu izan zait aleren bat edo beste ez ekarri izana Mallorcako eztabaiden erakusgarri. Baina hona hemen, doi-doian, gertaera haien berri eman ondoren nolako iruzkinak egiten zituzten haien esanahiari eta egitasunari buruz:

«Aipatutako gertaerak egiazkotzat hartzeko modukoak irudituko zaizkie haiek onartzeko prest daudenei, baina guk gure aldetik ezin itzu-

ri dezakegu gure irakurleei gertaerak epaitu aurretik aurrerantzean zer gertatzen den azter dezaten gomendioa egitea. Era horretako gertaeren aurrean izpirituan ernatzen diren gogoe-tak umotu egin behar dira zalantzan jarri nahi ez dugun baina, era berean, funtsik gabeko egiaz-tapenetan oinarritu nahi ez dugun egitasun hori iritsi artean. Espainiaren etorkizuna oihal gisako baten azpian dago ezkutaturik, eta hemendik denbora gutxira kenduko zaio oihal hori, baina ez beza zuhurtziarik gabeko esku batek kendu dagokion garaia baino lehenago. Hori gertatu bitartean ez dugu gure iritzia emango eta izpiritu zentzudun guztiei aholku ematen diegu ez daitezen alderdi baten edo bestearen alde jarri harik eta egoera argitzen den arte», etab.

Zuhurtzia eta begiramena dira mallorcarren izaeraren ezaugarri nagusiak, mallorcarren beren iritzian. Nekazariak beti erantzungo dio zure diosalari mendian haiekin topatuz gero; baina haren adiskide izan gabe hitz erdi bat gehiago egiten badiozu, ongi asko begiratuko da zuri erantzutetik, bere dialektoan hitz egiten badiozu ere. Nahikoa da atzerritar itxura izatea

zure beldur izateko eta beren bidetik aldaratuko dira zurekin topo ez egitearren.

Hala ere, jende bihoztun haiekin elkar ondo ulertuko genukeen elizara joan izan bagina. Ez zuten horregatik guri imurtxi egiteko aukerarik galduko, baina haien soroetan lasai ibili ahal izango ginatekeen, sasi artetik harri koskor bat burura jaurtiko ziguten beldurrik gabe. Zoritxarrez, hasieran ez ginen ohartu hori izango genuela jarrera zuhurrena, eta gure egonaldia ia amaituta zegoen arte ez genuen ikusi zenbateraino zitzaien gure jokabidea eramanezina. Paganoak, mahometanoak eta juduak ginela esaten ziguten, eta horixe zen haien iritziz inor izan zitekeen gauzarik txarrena. Alkateak gaitzetsi egiten gintuen bere mendekoen aurrean; ez dakit apaizaren sermoietako hizpide ote ginen. Nire alabaren alkandorak eta galtzak ere eskandalugarriak iruditzen zitzaizkien. Eta begi txarrez ikusten zuten bederatzi urteko *neskatxa gazte bat gizonezkoz mozorrotuta* mendian korrika ibiltzea. Eta ez ziren nekazariak izaki itxurati bakar-rak.

Igandetan, elizkizunetara berandu zihoazenei deituz herrian eta bide guztietan entzuten zen tronpeta hotsa alferrik etortzen zitzaigun Kartujara bila. Gorrak ginen, ez baikenuen hura ulertzen, eta ulertu genuenean, are gorragoak izan ginen. Orduan, Jainkoaren aintza mendekatzeko, guztiz kristaua ez zen sistema bat aurkitu zuten. Elkar hartu zuten arraina, arrautzak eta barazkiak urre prezioan bakarrik saltzeko guri. Ezin genuen ez salneurrik ez araurik eskatu. Oharrik txikiena egin orduko *Ez duzu nahi* erantzuten zigun *pagèsak* Espainiako handikien harrotasunaz, eta han sartzen zituen berriro bere tipulak eta patatak zorroan; *bada ez dituzu izango*. Eta harro-harro joaten zen, eta alferrik genuen hura itzularazten saiatzea elkar aditzeko. Barau egitera behartzen gintuen, tratua egin nahi izateagatik.

Barau egin beharrean geunden, beraz. Sal-tzaileen artean ez zegoen ez lehiarik ez beherapenik. Lehenengoaren atzetik zetorrenak haren bikoitza eskatzen zuen, eta hirugarrenak, berriz, hirukoitza; hortaz, anakoretak bezala bizitzera

beharturik geunden, eta hala ere, Parisen printzeak bezala bizitzea baino garestiagoa zen.

Kontsularen sukaldariaren bitartez Palman hornitzeko aukera genuen; hura izan zen gure salbamena, eta Erromako enperadore izan banintz, konstelazioen zerrendan jarriko nukeen haren kotoizko txapela. Baina euria ari zuen egunetan, ezin izaten zen aurkitu eman daitekeen diru guztia emanda ere bide haietan arriskuan jarriko zen mezularirik; eta bi hilabetez aritu zenez euria, txibia baino ogi gogorragoa jan genuen eta kartujoek jaten zuten berbera afaldu behar izan genuen behin baino gehiagotan.

Eragozpen hutsala izango zitekeen hori baldin eta gu guztiok osasuntsu egon bagina. Janariari dagokionez, neurritzkoa eta gogorra naiz ni izatez. Nire seme-alaben goseitsuak edozer gauza bihurtzen zuen jaki gozo, eta atsegingarrira iruditzen zitzaaien limoi berdea. Nire semea ahul eta eri iritsi zen Mallorcara, baina mirariz bezala ari zen bizkortzen eta erreuma eritasun larri batetik sendatzen hasi zen, goizetik gauera aritzen baitzen korrika, ihesi doan erbi baten antzera, mendietako landareen artetik, gerrirai-

no busti-busti eginda. Probidentziak gaixo haren-
gan mirariak egiteko aukera ematen zion izadi
zintzoari; nahikoa genuen gaixo batekin.

Besteak, ordea, hezetasunarekin eta urritasunarekin onera egin orde zokerrera egiten zuen, era beldurgarrian egin ere. Palmako mediku guztiek kondenatu bazuten ere, hark ez zuen eritasun sendakaitzik; baina dieta sendogarririk ezak ezin gairidituko ahuldura egoeran utzi zuen hotzeri baten ondoren. Amor eman zuen, norberak amor ematen dakien bezala, bere kabuz; eta guk ezin genuen haren orde zokerrera eman, eta horrela ezagutu nituen lehenengo aldiz arazo txikiak sortutako nahigabe handiak; piper beltz gehiegi duen edo zerbitzariak *desagerrarazi* duten salda batek sor dezakeen haserrea; inoiz iristen ez zen ogi freskoak edo mando baten gainean uhar bat zeharkatzean belaki bihurtu den ogiak sor dezakeen larritasuna. Ez dut oroitzen Pisan edo Triesten zer jan nuen, baina ehun urte-tan biziko banintz ere, ez nuke inoiz ahaztuko horniduren zorroa Kartujara iristen zen unea. Zer ez nukeen emango gure eriak egunero bere kati-lu salda eta Bordeleko ardo pixka bat izan zezan!

Mallorcako jakiek, eta batez ere gu behar bezain adi ez geundenean jaki haiek prestatzeko zuten erak izugarrizko nazka ematen zioten gure gai-xoari. Nazka hori zenbateraino zen arrazoizkoa azaldu behar ote dut? Behin, oilasko ihar-ihar bat atera ziguten; oilaskoaren bizkarretik ateratzen zen ke artean *maître Floh* izugarriak ikusi nituen saltoka, Hoffmann-ek asmatutako izpiritu gaiztoak, baina hark saltsan jango ez zituzkeenak. Nire seme-alabak barre batean hasi ziren eta hainbeste barre egin zuten ezen mahai azpira erori ziren ia-ia.

Mallorcako sukaldaritzaren oinarrizko osagarria zerrikia da ia beti, diren era eta itxura guztietan prestatuta. Hemen primeran letorke saboiatar txiki batek bere taberna zuloa goretsiz eta gogo beroz esan ohi zuen esaera zahar hura, han bost haragi mota hauek jan zaitezkeela alegia: zerrikia, urdekia, gizena, urdaiazpikoa eta urdaia. Jakin badakit Mallorcan bi mila jakitik gora prestatzen direla zerrikiaz, eta berrehun hestebete gutxienez, baratxuri, piper, piper beltz eta era guztietako bizigarri erregarriz gazituak, halako eran non bizia arriskuan jartzen den

puska bati kosk egin orduko. Mahaian hogeitaziki ikusten dituzu mota guztietako jaki kristauen antzekoak: ez zaitez fio, baina; deabruak berak maneaturako infernuko drogak dira eta. Bukatzeko, postrerako, oso itxura oneko tarta gozobat dator, laranja azukreztatutak diruditen fruitu atalekin; zerrikizko opil bat da, eta baratxuria, *tomatigas* zatiak, tomateak eta piperrak ditu; gainera gatz zuriz hautseztatuta dago, baina azukrea irudituko zaizu gozoa baita itxuraz. Badaude oilaskoak jakina, baina hezur eta axal daude denak. Valldemossan, haiek gizentzeko ale bakoitza erreal batean salduko ziguten, seguru asko. Itsasotik ekartzen ziguten arraina oilaskoak bezain zapala eta lehorra zen.

Behin, txipiroi handi bat erosi genuen, haren azterketa egiteko gogoz. Ez dut sekula hura baino animalia izugarriagorik ikusi: gorputza indioilar batek bezain lodia zuen, begiak laranja bezain handiak, eta garroak berriz meheak eta higuingarriak, luzetxoak, lauzpabost oin luzeak. Arrantzaleek jaki bikaina zela esan ziguten. Baina animalia haren itxura ez zitzaigun batere

gustatu, eta Maria Antoniari eman genion; hark oso gustura prestatu eta jan zuen.

Txipiroi harenganako gure mirespenak jendearen barrea eragin zuen, baina handik egun batzuetara etorri zitzaigun guri txanda. Mendian behera gindoazela *pagèsak* ikusi genituen beren lanak bere horretan utzi eta bide bazterrean geldi zegoen jende multzoarengana hurbiltzen korrika; bide bazterrean zeudenek bi hegazti zoragarri, izugarri, ikusgarri, harrigarri zeramatzaten otarre batean. Mendialdeko biztanle guztiak asaldaturik zeuden hegazti ezezagun haiekin. «Zer jaten du?» galdetzen zuten batzuek animaliei begira. Eta beste batzuek horrela erantzuten zuten: «Baliteke ezer ere ez jatea! —Non bizi dira, lurrean ala itsasoan? —Seguru asko, airean biziko dira beti». Bi txori haiek jendearen harridurak itota hiltzeko zorian egon ziren; ez ziren ez kondorrak, ez fenixak, ez hipogrifoak, oilategiko bi antzara eder baizik, jaun dirudun batek bere lagun bati opari bidaliak.

Mallorcan, Venezian bezalaxe, ugariak eta gozoak dira likoreak. Moskatel bat hartu ohi genuen, Adriatiko itsaso bazterrean edaten den

Zipreko ardoa bezain gozoa eta merkea. Mallorcarrek ez dute ezagutzen ardo beltzak egiteko artea, eta ardo latz, ilun, mindu, alkohol askokoa egiten dituzte, eta Frantziako ardorik arrunte-na baino askoz ere garestiagoak, gainera. Ardo bero eta hordigarri horiek guztiak kaltegarriak ziren gure gaixoarentzat eta baita gainerakoentzat ere; hain ziren kaltegarri, ezen ia beti ura edaten genuen, bertako ur zoragarria. Iturri hartako uraren garbitasuna zen, beharbada, iritsi eta berehala nabaritu genuen gertaera baten arrazoia: hortzak zuri-zuri jarri zitzaizkigun, lurringile finenaren arteak ere ez zien paristarrei halako zurtasunik emango. Dena dela, gure derrigorrezko jate urria izango zen agian benetako arrazoia. Gurinik ez genuenez, eta ezin jasan genituenez bertako sukaldaritzan erabiltzen ziren gantza, olio nazkagarria eta jakiak kiskaltzeko zuten ohitura, ez genuen haragi xerra meheak, arraina eta barazkiak besterik jaten, eta horri guztiari uharreko ura botatzen genion saltsa modura; zenbaitetan, jatekoa gozatzeko, gure lorategi txiki hartan bildutako laranja baten zukua eransten genion urari. Postreak, aldiz,

ezin hobeak ziren: Malagako batatak eta Valen-
tziako kuia azukreztatuak, eta mahats mordoak,
Kanaango mahatsa bezain bikainak. Mahats
luzaxka da, kolorez zuria edo gorria, eta azal lodi
batean bildua; azal horri esker irauten zuen fres-
ko urte osoan zehar. Zoragarria zen, eta nahi
adina jan zitekeen, ez baitzuen gure mahatsak
ematen duen sabel astuntasunik eragiten. Fon-
tainebleauko mahatsa urtsua eta freskoa da;
Mallorcakoa, berriz, azukretsua eta mamitsua.
Batek badu zer jan, besteak badu zer edan. Bazi-
ren hogeit eta hogeita bost libra bitarteko mordo-
ak; pintorearen mirespena sortuko zuketena.
Huraxe izaten genuen irtenbide bakarra urritasun
garaian. Nekazariak mahatsa garesti saltzen
zigutelakoan zeuden, prezioa lau halakotu baitzi-
guten; haiek ez zekiten, ordea, gure herrian
ordaintzen genuenaren ondoan, prezio merkea
zela hura guretzat; horrela izan genuen elkarri
iseka egiteko aukera. Indipikuei dagokionez, bat
etorri ginen guztiak: ezagutzen dudana fruiturik
higuingarriena da askogatik.

Bizimodu gartxu horren baldintzak, behin eta
berriz diot, ez balira izan hain kaltegarriak eta

are galgarriak gutako batentzat, gainerakoei nahiko egokia irudituko zitzaigukeen berez hango bizimodua. Mallorcan ere lortu genuen nolabaiteko ongizatea, kartuja abandonatu batean, munduko nekazari maltzurrenekin hainbeste istilu izanda ere. Bagenituen leihoak, atea eta baita berogailu bat ere, parerik gabea gainera: Palmako errementari batek egin zuen guretzat bereziki; ehun libera ordaindu genituen harengatik. Burdinazko zilindro batez eta leihotik irteten zen hodi batez osatua zen. Ordubete behar izaten genuen berogailua pizteko, eta behin piztuta zegoenean, gori-gori jartzen zen; hortaz, kea ateratzeko atea denbora askoan zabalik eduki ondoren, berehala ireki behar izaten genituen berriro, beroa ateratzeko. Bestalde, bere burua labegiletzat zuenak orez estali zuen berogailua barrutik, indiarrek debozioz —jakina denez behia animalia sakratutzat dute indiarrek— beren etxeak eta beren buruak biltzeko erabiltzen duten antzeko ore batez. Usain santu hori arimaren garbitzaile bada ere, zin dagit ez dela zentzumenen gozagarri. Oreak lehortzeko behar izan zuen hilabetea Dantek lausengariak

ikuski uste izandako infernuko zirkulu haietako batean sartuta bageunde bezala igaro genuen. Alferrik bilatzen nuen neure gogoan zein akats egin nuen halako oinazea merezi izateko, zein botere intsentsatu nuen, zein aita santu edo zein errege adoretu nuen bere okerrean nire gorespenekin; ez neukan kontzientzian ez ganbarako mandataririk ez giltzaririk, ezta jendarme edo kazetari bati egindako gurrik ere!

Zorionez, kartujo botikariak benjui zoragarri bat saldu zigun, komentuko elizan Jainkotasunaren irudia intsentsatzeko erabiltzen zen lurrin horniduran soberakin gelditutakoa; eta jario zerutiar horrek gainditzen zituen gure gelan infernuko zortzigarren hobiko lurrinak.

Altzari zoragarriak genituen: uhalezko ohe akats gabeak; lastaira gogor samarrak, Parisen baino garestiagoak, baina berriak eta garbiak; eta uataz estalitako indiar oihal zulodunezko ohe estalki handiak, juduek Palman modu onean saltzen dituzten horietakoak. Uhartean bizi zen emakume frantses batek Marseillatik berarentzat bereziki ekarritako zenbait luma libra eman zizkigun; luma haiekin bi buruko egin genizkion

gure gaixoari. Luxu handia zen hura lurralde hartarako, non antzarak izaki liluragarritzat dituzten, eta oilaskoek, gerrenetik irten ondoren ere, oraindik hazkura duten.

Bagenituen mahai ugari, lastozko aulki batzuk, gure nekazarien txaboletan izaten direnen antzekoak, eta zur zuriko sofa lohi bat, lastaira oihalezko burukoak, artilez beteak zituena. Gelako zorua, gorabehera askokoa eta hautsez betea, lasto luzez egindako Valentziako tapizez —eguzkiak horitutako soro bat ematen zuten—, eta ile luzeko arkume larruez, Mallorcan bikain ontzen dituzten oso larru fin eta zuriez, estalita zegoen.

Afrikan eta Ekialdean bezalaxe, Mallorcako etxe zaharrenetan ere ez da armairurik izaten, eta are gutxiago, kartujako geletan. Norberaren gauzak zur zuriko kutxa handietan gordetzen dira. Gure larruzko maleta hori handia altzari dotoretzat har zitekeen Mallorcan. Bidaian erabili genuen koloretako alfonbra handi bat, ohe errezel bikain bihurtu zen, eta Felanitx-eko buz-tinezko ontzi xarmant batekin —arabiar estilo

garbiko forma eta irudiekikoa— apaindu zuen nire semeak berogailua.

Felanitx Mallorcako herri bat da, eta bertako ontziak Europa osora eramateko mailakoak dira: ontzi arinak dira, hain arinak, ezen kortxozkoak direla esan zitekeen, eta hain ore finekoak dira, ezen buztinezkoak bainoago gai preziatu batez eginak direla pentsa litekeen. Pitxar gisa erabiltzen diren pegar txiki zoragarriak egiten dituzte han, ura fresko-fresko gordetzen dutenak. Buztina porotsua da, hain porotsua ezen ura zuloetatik kanpora isurtzen baita, eta eguerdirako huts-hutsik gelditzen baita ontzia. Ezer ez dakit fisikaz, eta agian, azalpen inozo baino inozoagoa egingo nuen; baina niri zoragarria iruditzen zait, eta buztinezko nire ontzia miragarria iruditzen zitzaidan askotan: ontzia urez bete eta berogailuaren gainean uzten genuen, berogailuaren gaineko burdinazko xafla gori-gori egon arren, eta behin baino gehiagotan gertatu zen ura ontziaren zuloetatik irten eta ontzia xafla kiskalgarri haren gainean erabat lehorturik ere, han ez zela ontzirik puskatu. Ontzian ur tanta bakar bat bazegoen, izotzak bezain hotz irauten zuen,

nahiz eta berogailuaren beroak erabat belzten zituen gainean jarritako egur puska guztiak.

Kanpoko hormatik hartutako huntz zerrenda batez apaindutako ontzi eder hura gaur egungo gure Sèvresko ontzi urreztatua baino gozagarriagoa zitzaion artistaren begiari. Hiru astetan eztabaidan aritu ondoren, eta behin laurehun libera ordaindu genituenean, berreskuratu genuen mugazainen eskuetatik Pleyelen pianinoa, zeinaren doinu zoragarriak betetzen zuen gelako ganga garaia eta oihartzun handikoa. Azkenik, sakristauak baimena eman zigun Kartujako kapera zaharrearantz arratoiek eta harrek karraskatzen ari ziren haritzeko aulki landu gotiko eder bat gure gelara eramateko; liburutegi gisa erabiltzen genuen aulki hura, eta aulkiaren irudi zizelatu arinek eta ziri zorrotzek, lanpara beltz ederraren argitan bere irtenune beltz ederren eta orratzen itzala horman handitua islatzen zutelarik, nabarmendu egiten zuten gela hura oso antzinakoa eta monasterio bateko atala zela.

Gomez jaunak —*Son Vent*-eko jabe ohia, etxea ezkutuan alokatu ziguna gaizki ematen

zuelako Mallorcako hiritar bat bere ondasunekin salerosian aritzeak— izugarrizkoak bota zizkigun eta auzitara eramango gintuela mehatxu ere egin zigun buztinezko zenbait plater puskatu (*estropeado*) genizkiolako, eta Txinako portzelanaren prezioan ordaindu behar izan genituen. Horrez gainera, etxe osoaren *zuritze* eta *eraberitze* lanak ordainarazi zizkigun (mehatxupean betiere), marranta hartu zuenaren kutsua kentzeko. Dena dela, onurarik gabeko gaitzik ez da, eta alokairuan utzitako etxean zegoen arropa guztia saldu zigun, baina guk ukitutako gauza guztietatik aldentzeko presa bazuen ere, ondo gogoratu zen bere arropa zaharra arropa berriaren prezioan erosi genion arte tratuan aritzeaz. Hari esker, ez genuen lihoa erein behar izango mihiseak eta mantelak nahi bagenituen, bere morroiei alkandorak ematen zizkien italiar jaun harekin bezala.

Ez dezala inork salatu gorabehera horiek guztiak salatuz umekeriaz jokatu dudarik, haiek ez baitirate eman, bene-benetan, nire zakuari eragin zioten galera txikia baino atsekabe handia-gorik; baina inork ere ez dit ukatuko gizakiak

direla norberarena ez den herri batean azter dai-
tekeen gauzarik interesgarriena, eta esaten
dudanean mallorcarrekin izandako diru tratu
guzti-guztietan, baita txikienean ere, haiengan-
dik asmo txar lotsagabea eta diruzalekeria tras-
kaila jaso nuela trukean, eta horri eransten dio-
danean gure fede ezagatik gurekin haserre zeu-
dela itxura eginez erakusten zigutela beren
debozioa, hori guztia esaten dudanean onartuko
zait arima xumeen errukia —gure garaiko kon-
tserbadore batzuek hain goretsia— ez dela beti
munduko gauzarik onuragarriena eta zuzenena,
eta Jainkoa ulertzeko eta gorestekeo beste era
batzuk izan nahia opa behar dugula. Niri dagoki-
danez, egia orokor horiek behin eta berriro
entzuteaz nazkatuta nago: krimena dela eta
arriskutsua dela fede ustel eta okerrenari ere
kontra egitea, ez baitago fede horren ordezkorik;
azterketa filosofikoak eta iraultzaren zoramenak
kutsatu gabeko herriak bakarrik direla garbiak,
txeratsuak eta zintzoak; horiek bakarrik gorde-
tzen dituztela poesia, handitasuna eta antzinako
bertuteak, etab. eta beste leku batzuetan baino
barre apur bat gehiago egin dudala Mallorcan

aitzakia larri horiekin. Ikusten nuenean filosofia-
ren higuinean heziak ziren nire seme-alabatxoek
pozik laguntzen eta zaintzen zutela gaixorik
zegoen lagun bat, beraiek bakarrik, ehun eta
hirurogei mila mallorcarren artean, kutsatzaile-
tzat hartzen zen gaixotasunari ankerkeria han-
dienaz, izu nagienaz, bizkar emango lioketen
mallorcar haien artean: hura guztia ikusten nue-
nean, deabru txiki haiek santu eta apostolu guz-
tiek baino arrazoi eta karitate handiagoa zutela
esaten nion nere buruari.

Jainkoaren zerbitzari errukitsu haiek guztiek
esaten zidaten oker handia nuela nire seme ala-
bak kutsatzeko arriskuan jartzea, eta gaixotasun
hori bera bidaliko ziela zeruak nire itsutasuna
zigortzeko. Nik erantzuten nien, nire familian,
senideren batek izurria hartuko balu, gainerako
senideak ez liratekela haren ohe albotik urrundu-
ko; erantzuten nien Frantzian ez genuela gaixo-
ak abandonatzeko ohitura, ez iraultzaren aurre-
tik, ez haren ondoren; erantzuten nien espainiar
presoek, eritasun larriagoekin eta kaltegarriago-
ekin zeharkatu zituztela gure soroak Napoleonen
gerren garaian, eta gure nekazariak espainiarrei

beren katilua eta arropa utzi ondoren, ohea ere eman zietela eta haien alboan gelditu zirela gainera; erantzuten nien zaindari egoteagatik gaitzak hartu zituela nekazari haietako asko eta asko eta kutsatuta hil zirela, eta bizirik iraun zutenek abegi onez eta kupidaz jokatu zutela halere: mallorcarrek burua astindu eta irribarre egiten zuten errukiz. Lagun hurkoari laguntza ematearen printzipioa ezin barneratu zuten, eta ezin barneratu zuten orobat atzerritarrarekin zintzo eta adeitsu izatekoa ere.

Dena dela, uhartearen barrualdera joan diren bidaiari guztiak harriturik gelditu dira mallorcar nekazariak egin dieten harrera onagatik eta haien eskuzabaltasunagatik. Mirespenez idatzi dute ostaturik egon ez arren, erraza eta atsegingarria zela soroetan barrena ibiltzea, eta *gomen-diozko gutun* batekin beren etxean hartzen zintuztela, ostatu ematen eta ongi etorri beroa egiten zizutela, doan. Gomendiozko gutun soil hori garrantzi handikoa da, nire ustetan. Baina, bidaiari horiei ahaztu egin zaie esatea Mallorcarako kasta guztiak, eta beraz biztanle guztiak, interesezko elkartasunean bizi direla, eta elkartasun

horrek harreman onak eta errazak sortzen dituela haien artean, baina harreman horietan ez dela sartzen ez erlijiozko errukia ez gizarte kidetasuna. Hitz gutxitan azal daiteke ondasun egoera hori zertan den.

Mallorcako nobleak aberatsak dira oinarrizko ondasunetan, behartsuak mozkinetan, eta mailaguen ondorioz pobreak. Judu asko dago eta dirutan aberatsak dira; beren zorroan dituzte zaldunen lur guztiak, eta uharte osoa beraiena dela esan daiteke. Zaldunak ordezkari ospetsuak besterik ez dira, eta beren zeregin bakarra da batzuek besteei, eta uhartera iristen diren bisitari apurrei, beren ondasunen eta jauregien ohoreak eskaintzea. Goren mailako zeregin horiek behar bezala betetzeko, juduen zorrora jotzen dute urtero, eta urtetik urtera arazoa larriagotu egiten da. Lehen ere esan dut lur haien irabaziak ez aurrera ez atzera zeudela, ez baitago ez salerosketarik ez industriarik. Dena dela, badute zaldun pobre horiek guztiek ohore puntu bat: hondamenera poliki-poliki eta bakean iristea, luxuari, edo hobeki esan, beren arbasoen oparotasun pobreaki muzin egin gabe. Tratulariek, hortaz,

interesean oinarrituriko harremana dute nekazari-ekin: nekazariak uztaren parte bat ematen diote tratulariari, eta hark eskubide batzuk ematen dizkie horren truke.

Nekazariak onura ateratzen dio bere zorraren zatiketa horri, eta hala, ahal duen gutxiena ordaintzen dio bere jaunari, eta bankuari berriz, ahal duen gehiena. Jauna ahula da eta etsipenak jota dago; judua, aldiz, errukigabea da, baina eraman handikoa. Eskubideak ematen ditu, eskuzabala da, eta luzera begira aritzen da, deabruak bere helburuaren alde egiten duen bezala: behin atzaparrak ondasun baten gainean jarri dituenean, den-dena bereganatzen du pixkanaka, eta bere burua ezinbesteko bihurtzea du helburu, harik eta zorrek kapitalaren balioa iristen duten arte. Hemendik hogeitaz urtera Mallorcan ez da jaurerririk izango. Juduek beren estatu ahal-duna eratuko dute han, gure herrialdean egin duten bezala, eta burua altxako dute; gaur egun burumakur eta lotsatuta daude oraindik nobleek agerian utzitako erdeinuaren eta proletarioek duten izu funtsik gabearen eta ahalgabearen aurrean. Bien bitartean, juduak dira lurraren

benetako jabeak, eta nekazariak izutu egiten dira haien aurrean. Antzinako jabeak begiratzen diote saminez, eta bihozberatasunez negar eginez, beretzat hartzen dituzte ondasunaren azken puskak. Nekazariak, beraz, bi nagusien gurariak bete nahi dituzte, ez ditzaten batzuen eta besteen artean zapaldu.

Izan zaitezte, beraz, *pagès* bati gomendatuak, bai noble baten aldetik, bai aberats baten aldetik (noren aldetik bestela? ez baitago tartekorik), eta berehala zabalduko dizuete ate bat. Baina saia zaitezte gomendio gutunik gabe baso bat ur eskatzen, eta ikusiko duzue!

Eta hala eta guztiz ere, mallorcar nekazari hori gozoa da, eskuzabala, bakezko ohiturak ditu, eta izaeraz barea eta lasaia da. Ez du gaiztakeria atsegin, ez du, ordea, ongia ezagutzen. Bere bekatuak aitortzen ditu, otoitz egiten du, eta paradisura iristearekin egiten du amets, baina ez daki zein diren gizadiaren benetako eginbeharrak. Ez da idi bat edo ahari bat baino gorrotagarriagoa, ez baita, era berean, basatiaren lañotasunean lo dauden izakiak baino gizonagoa. Otoitz egiten du, basati bat bezain sines-

bera da, baina kide bat jango luke, batere barne zimikorik gabe, baldin eta hori balitz bere herriko ohitura eta ez balego zerrikirik. Iruzur egiten du, lapurretan aritzen da, gezurak esaten ditu, irain egiten du eta edozein larrutzen du, kontzientziako kezkarik gabe. Haren iritziz, atzerritarak ez dira gizonak. Herrikide bati ez dio inoiz oliba bat kenduko, baina Jainkoaren gogoan ez dago gizakirik itsasoz haraindi, mallorcarren onurarako ez bada.

Mallorcari *Ziminoen uhartea* esaten genion; animalia zakar, lapur baina, hala ere, kalte gabekoak zirela ikusirik, haietatik babesten ikasi genuen, gorrotorik eta haserrerik gabe; ez, behintzat, indiarrei jockoek eta orangutan jostalari eta iheslariek sortzen dieten gorroto eta haserre gehiagorekin.

Dena dela, bat ez da ohitzen gizakiz jantzita eta jainkozko zigiluarekin markatuta dauden izaki haiek gaur egungo gizakiaren esferatik kanpo bizitzen ikustera, ez tristurarik sentitu gabe bederen. Bistan da izaki ez perfektu horrek baduela adimenik, haren arraza hobe daitekeela, haren etorkizuna arraza aurreratuenen etorki-

zuna dela eta denbora kontua besterik ez dela, denbora bitarte handiegia guretzat, baina ia ikusezina betikotasunaren leizean. Baina zenbat eta argiago ikusi izaki hori hobetu daitekeela, orduan eta etsipen handiagoa ematen digu antzinako kateetara loturik dagoela ikusteak. Itxaronaldi horrek, Probidentzia apenas larritzen duen horrek, egun bakarreko gure existentzia izutzen eta tristetzen du. Bihotzarekin, izpiritua-rekin, erraiekin sentitzen dugu gainerakoen bizitza gure bizitzari lotuta dagoela, ezin garela bizi maitatu gabe edo maitatuak izan gabe, ulertu gabe edo ulertuak izan gabe, lagundu edo lagunduak izan gabe. Moralari eta jakintzari dagokionez, besteekiko nagusitasunak ez du harroputzen bihotza beste inorena gogobetetzen. Pentsatzen dut bihotz guztiek nahiko luketela mailaz jaitsi gabe guztiak berdindu, beren azpitik dagoen guztia beren mailara igo, begi keinu bakar batean, anaitasunezko, adiskidetasunezko, berdintasunezko eta elkartasunezko bizitza bizi, hori baita giza kontzientziaren erlijiozko xedea.

Seguru nago bihotz guztietan dagoela behar hori, eta seguru nago horren kontra egiten dute-

nek eta behar hori sofisma bidez itotzen saiatzen direnek ezin izenda dezaketen sofrimendu berezi eta garratz bat sentitzen dutela. Azpian dauden gizakiak ahitu eta desagertu egiten dira ezin igo direnean; goiko aldekoak haserretu eta tristetu egiten dira behekoiei eskua alferrik ematen dietenean; eta inori lagundu nahi ez diotenak, berriz, higuinak eta bakardadearen izuak harra-patzen ditu, eta azkenean, basakerian murgiltzen dira, eta horrek lehenengo gizakien mailatik behera jaitsiarazten ditu.

IV. kapitulua

Bakarrik geunden, beraz, Mallorcan, basamortuan bezain bakarrik; eta *ziminoekiko* gerraren bidez eguneroko bizibidea lortuta zegoelarik familiartean esertzen ginen, sutontziaren inguruan, haien lepotik barre egitera. Baina negua aurrera zihoan heinean, tristurak eteten zituen nire baitan pozaren eta lasaitasunaren aldeko ahaleginak. Gure eriaeren osasuna okerretik okerragora zihoan; haizeak negar egiten zuen uharrean, euriak gure leihoak jotzen zituen, hormetan zehar sartzen zen trumoiaren ahotsa eta haurren barrearen eta jolasen artean jartzen zuen bere doinu goibela. Arranoak eta putreak, lanbroarekin harrotuta, nire leihoa mukuru betetzen zuen mingranondoraino jaisten ziren gure txoritxoak jatera. Itsaso haserreak kaietatik ezin irtenik zeuzkan itsasontziak; atxilo bezala sentitzen ginen, laguntza argitsu eta adeitasun eraginkor orotik urrun. Heriotza gure buruen inguruan biraka zebilela ematen zuen, gutako norbait noiz harrapatuko, eta gu geu ginen hari

harrapakina kentzeko lehian ari ginen bakarrak. Gure inguruan ez zegoen gizaki bakar bat ere gure eria hilobira eramanez nahi izango ez zukeenik haren hurbiltasunaren arriskua desagerraraztearren. Etsaitasunezko pentsamendu hori izugarri tristea zen. Aski indartsu sentitzen ginen besteek ukatu ziguten laguntza eta adeitasuna geuk emateko besteen ordeztan, zainketan eta eskaintzaren bidez; are gehiago, halako egoera zailtan bihotza handiagotzen eta maitasuna biziagotzen direla uste dut giza elkartasunaren sentimenduak ematen dien indarrarekin. Baina gure arimetan pairamen handia genuen, sentimendu hura ulertzen ez zuten izakien artean harrapatuta baikenuden eta izaki haien usteztan hartu behar baikenuden beraiengatik damurik minena haiek gutaz errukitu ordeztan.

Ni zeharo harrirituta nengoen gainera. Ez dut inolako ezaguera zientifikorik, eta sendagilea izan beharko nintzatekeen, sendagile handia, erantzule bakarra nire bihotza zuen eritasun bat sendatzeko.

Bisitan etorri ohi zitzaigun sendagilea, zeinaren arreta eta talentua ez baitut zalantzan jar-

tzen, oker zebilen, sendagile guztiak, baita ospetsuenak ere, ibil daitezkeen bezala, eta bere aitopenen arabera, jakintsu zintzo oro sarritan tronpatzen den bezala. Bronkitisaren ondoren, laringeko hetikari dagozkion gertaera batzuk eragiten zituen urduritasun bitxi bat etorri zen.

Gertaera horiek ikusita zegoen sendagilea tarteka, eta niretzat begibistakoak ziren arren berak kontrako sintomarik ikusten ez zuenez, hetikak jotakoei komeni zaien osabidea ezarri zion: odol ateratzea, dieta, esnekiak. Neurri horiek guztiak kaltegarriak ziren, eta odol ateratzeak heriotza ekarriko ziokeen. Eriari bere senak esaten zion hala gertatuko zela eta nik ere, sendagile ez naizen arren gaixo asko zainduta nagoenez, susmo berbera nuen. Baina dardara eragiten zidan huts egin zezakeen sen horri jarraitzeak eta sendagile trebe baten esana ez betetzeak; eta eriaren egoerak okerrera egiten zuela ikusirik, izugarrizko estuasuna sentitzen nuen, edonork pentsa lezakeen bezala. Odol ateratze batek salbatuko du, esaten zidaten, eta ezezkoa ematen baduzu, hil egingo da. Eta hala

ere, baten beste ahots bat, ametsetan ere hitz egiten zidan ahots bat: odol ateratze batek hil egingo du, eta ebaketatik babesten baduzu, onik aterako da. Ziur nago Probidentziaren ahotsa zela, eta gaur egun, gure adiskidea, mallorcarrren etsaia, nik baino hetika larriagorik ez duela begi bistakoa den honetan, Jainkoari eskerrak ematen dizkiot salbazioa ekarri zigun adorea galarazi ez zidalako.

Dietari dagokionez, oso zen kaltegarria. Haren ondorio txarrez jabetu ginenean ahal bezain jaramon gutxi egin genion, baina zoritxarrez ez zegoen aukera handirik bertako bizigarri minen eta jatenik urrienaren artean. Esnekien kalteaz gerora jabetu ginen; izan ere, hain ziren urriak Mallorcan, ezen ez baitziguten batere kalterik ekarri. Garai hartan esneak mirariak egingo zituela uste genuen oraindik, eta izugarrizko atsekabeak izan genituen esnea lortzeko. Mendi haietan ez dago behirik, eta saltzen ziguten ahuntz esnea bidean edaten zuten haurrek, esne bila joaten zitzaizkigunean; horrek, halere, ez zuen galarazten txarroa irten zenean baino beteago itzultzea gurera. Goizero gertatzen zen

mirari hura, mezularia kartujako patioan, iturri alboan, otoitz egiten saiatzen zenean. Halako miraririk gehiago gerta ez zedin ahuntz bat esku-ratu genuen. Zalantzarik gabe, munduko pertsonarik gozo eta adeitsuena zen Afrikako ahuntz txiki hura; sarrioaren koloreko ile laburra zuen, burua adarrik gabea, sudurra zapala eta zintzilik belarriak. Hangoak gureen oso bestelakoak dira. Orkatz larrua dute eta arkume tankera, baina ez dute gure antxume alaien tankera bihurri eta bizia. Aitzitik, malenkoniak hartuta daudela dirudi. Ahuntz horiek bestelakoak dira, orobat, erro txikiak dituztelako eta esne gutxi ematen dutelako. Beren onenean zapore zakar eta basatiko esnea ematen dute, eta mallorcarrek asko goستن duten arren, nazkagarria iruditu zitzai-gun guri.

Kartujako gure adiskideak lehenengo umaldia zuen; ez zituen bi urte ere eta oso esne gozoa ematen zuen; ez zuen oparo ematen ordea; batez ere, garai batean mendi gailurretan berarekin jauzika ez (serioegia, mallorcarregia baitzen bera horretarako) baina ametsetan ibili ohi zen taldetik bereizi zutelarik gurearen modu-

ko malenkonia batean murgilduta gelditu zenez gero. Eta hala ere, oso belar onak zeuden patioan, eta belar usaintsuak, kartujoek denbora gutxi zela landatu eta oraindik gure lore saileko lubakietan hazten ziren belarrak; alferrik ordea, ezerk ez zuela arinduko haren gatibualdia. Klaustroetan noraezean ibiltzen zen, lurjota eta erabat atsekabetuta, harriak pitzatzeko moduko intziriak boteaz. Ardi handi bat jarri genion lagun, artile zuri eta sei hazbete luzekoa, gurean jostailu dendetako erakus-mahaietan eta gure amonen haizemailetan bakarrik ikusten diren ardi horietako bat. Adiskide zoragarri hark lasaitasun pixka bat eman zion, eta esne gurintsua eman zigun. Baina bien artean, eta ondo bazkatzzen ziren arren, hain gutxi ematen ziguten, ezen susmo txarra hartu baikenien Maria Antoniak, *niñak* eta Katalinak gure abereei egiten zizkieten bisita sarriei. Horrela bada, kanpandorrearen azpiko patio txiki batean giltzapetu genituen ardia eta ahuntza, eta geuk hartu genuen haiek jezteko ardura. Oso esne mehea ematen zuten, baina semeak eta nik txandaka txikitzen genituen almendren esnearekin nahastuta

edabe nahiko osasungarria eta atsegina gelditzen zen. Ez genuen bestelakorik lortzeko aukera handirik ere. Palmako droga guztiak zikintasun jasangaitzekoak ziren. Espainiatik eramaten duten azukre findu gabea beltza da, koipetsua, eta eragin libragarria du hartara ohituta ez daudenentzat.

Egun batean gure salbazioa aurkitu uste izan genuen abeltzain aberats baten lorategian bioleta batzuk ikusi genituelarik. Infusio bat egiteko bioletak hartzeko baimena eman zigun, eta gure fardeltxo osatua genuelarik, bioleta bakoitzeko txanpon bana ordainarazi zigun: txanpon mallorcar bat, Frantziako hiru txanponen balioa duena.

Etxeko zainketa horiez gainera, logeletan erratza pasa eta ohea egin behar izaten genuen gauean lotarakoan; neskame mallorcarrak ohea ukitu orduko joritasun handiz kutsatzen zizkigun nire seme-alabak oilasko erre baten bizkarrean ikusi eta hainbeste dibertitu zituen tasunak. Ordu batzuk baino ez zitzaizkigun gelditzen lanerako eta paseoan ibiltzeko, eta ondo erabiltzen genuen denbora hura. Haurrak ikasten aritzen ziren, eta ondoren gure muturrak gure ezkutale-

kutik atera besterik ez genuen paisaje askotari-ko eta zoragarrienetan sartzeko. Mendien ikus-
mira zabal hartan urrats bat eman orduko ikus-
ten zen gertaera bitxi bat, kapera bat harkaitz
malkartsu baten gainean, gurbitzezko basotxo
bat malda pitzatu batean, baseliza bat kanabera
handiz betetako iturri baten ondoan, zuhaizti
sarri bat goroldioak estalitako eta zuntzez broda-
turiko harkaitz puska handien gainean. Eguzkiak
une batez agertzea erabakitzen zuenean landa-
re haiek guztiek, harri haiek guztiek eta euriak
arazturiko lur haiek guztiek kolore liluragarria
eta distira izugarri bizia hartzen zuten.

Bi ibilaldi egin genituen bereziki aipagarriak.
Ez dut lehenengoaren oroitzapen onik, nahiz eta
une zoragarriak izan ziren. Gure eria, osasuntsu
artean (Mallorcako gure egonaldiaren hasieran
izan baitzen), gurekin etorri zen, eta orduan
jasan zuen gerora bere eritasunaren eraso eka-
rriko zuen itomen larria.

Itsasertzean zegoen baseliza batera iristea
zen gure helburua; kartujatik hiru miliara zego-
en. Mendikatearen eskuineko adarrari jarraitu
genion eta muinoz muino igo ginen uhartearen

iparraldeko kostalderaino, oinak birrintzen zizki-
gun bide harritsu batean gora. Bidexkaren bihur-
gune guztietatik ikusten genuen itsasoaren ikus-
kizun handia, han hondoan, landare ederren
artean. Lehenengo aldia zen itsasertz emanko-
rrak ikusten nituena, lehenengo olaturaino
zuhaitzez beteriko itsasertz berdeak ikusten
nituena, amildegi zurbilik gabe, hareatza mortu-
rik gabe eta hondartza buztintsurik gabe. Fran-
tziako kostaldetik ikusi dudan guztian, itsasoa
beti iruditu izan zait zikin edo nardagarriegia
hartara hurbiltzeko, are Port Vendresko kostal-
dean ere, non agertu zitzaidan azkenik bere
edertasun betean. Hain miretsia den Veneziako
Lidok harea izugarri biluziak ditu zure oinetara
saldoka joan eta amesgaizto batean bezala gero
eta talde handiagoan jarraitzen dizuten musker
handiez beteta dago. Royanten, Marseillan, eta
uste dut gure itsasertzeko bazter guztietan ia,
itsasbelar likatsuzko eraztun batek eta harea
antzuak itsusten dute itsasbazterra. Mallorcan
ikusi nuen, azkenik, ametsetan agertu ohi zitzai-
dan bezalaxe, aratza eta zerua bezain urdina,
uhin leunekikoa, garaiera jakin batetik begiratu-

ta mugikortasunik apenas sumatzen zaien ildoetan erregulariki landutako zafirozko zabaldi bat bezala, eta baso berde ilunez inguratua. Mendi makur hartan urrats bat egin orduko ikusmira berria agertzen zitzaigun begi bistan, aurrekoa baino are ikusmira bikainagoa. Hala ere, ermitarra iristeko oso behera jaitsi behar izan genuenez, itsasertza ez zitzaidan hilabete batzuk geroago kostalde hartako beste gune batean ikusi nuen bezain eder agertu, nahiz eta han ere ederra zen benetan.

Han bizi diren eremutarrek —lauzpabost dira— ez zuten inongo poesiarik. Haien bizitokia beren bizibideak aditzera ematen zuen bezain miserablea eta basatia zen; eta mailetan antolatutako beren baratzean, zeinetan aurkitu baike nituen aitzurrean, itsasoaren bakartasuna agertzen zaie begien aurrean bete-betean. Baina munduko izakirik ergelenak iruditu zitzaizkigun. Ez zuten inolako eliz jantziren arrastorik. Fraide nagusiak aitzurra utzi zuen eta guregana etorri zen artile beigeko bere jaka biribilarekin; haren ile motzak eta bizar zikinak ez zion batere itxura erakargarria ematen. Bere bizitzako nekaldiez

hitz egin zigun, eta batez ere, inguru hartan egiten zuen hotz jasanezinaz; baina sekula izotzik egiten ote zuen galdetu genionean, ezin izan genion ulertarazi izotza zer den. Ez zuen hitz hori inongo hizkuntzatan ezagutzen, eta sekula ez zuen Mallorca baino herrialde hotzagoen berririk izan. Hala ere, bazuen Frantziaren entzutea, 1830ean Argel konkistatzera zihoan ontzidia ikusi baitzuen handik igarotzen; hori izan zen bere bizitzako ikuskizunik ederrena, harrigarriena, bakarra agian. Frantsesek Argel hartzerik lortu al zuten galdetu zigun; eta Constantina hartu berri zutela esan genionean begiak zabalzabal egin eta esan zigun frantsesak herri handia zirela.

Gelaxka zikin batera igo gintuen, eta han ikusi genuen ermitauen burua. Ehun urtetik gora izango zituela iruditu zitzaigun, eta harri eta zur gelditu ginen laurogehi besterik ez zituela jakin genuenean. Gizon hura ergeltasun egoera betebetean zegoen, baina oraindik lanean aritzen zen oharkabean, zurezko goilareak egiten esku lokaztu eta dardaratiekin. Ez zigun jaramonik egin, nahiz eta ez zen gorra; eta abade nagusiak

deitu zionean, bere buru handia altxa (argizarizkoa zela esan zitekeen) eta piztia aurpegi izugarri bat erakutsi zigun. Gutxiespen intelektualezko bizitza oso baten aztarna ageri zen aurpegi eragabe hartan; begiak berehala apartatu nituen harengandik, munduko gauzarik izugarriena eta penagarriena ikusi banu bezala. Limosna eman genien, eskeko ordena bat baitzen, eta nekazariak oraindik haienganako jaiera handia dutenez, ez baitute uzten ezeren beharrearik egon daitezkeen.

Kartujarako itzuleran haize zakarra aterazuen bat-batean; behin baino gehiagotan bota gintuen lurrera eta hainbeste zaildu zigun bidea ezen zeharo abailduta gelditu baitzen gure eria.

Bigarren ibilaldi aipagarria Mallorcatik alde egin baino egun batzuk lehenago egin genuen, eta bizi guztian ahaztuko ez dudan bihotz-ikara eragin zidan. Izadiaren ikuskizuna sekula ez zitzaidan hain erakargarri agertu, eta jakin badaikit hiruzpalau aldi baino gehiagotan liluratu nauela bizitzan zehar.

Euria atertu zuen azkenik, eta udaberria hasi zen bat-batean. Otsailean geunden; almendron-

do guztiak loretan ziren, eta larreak ihi usain-
tsuez betetzen ari ziren. Hori zen, zeruaren kolo-
reaz eta paisajearen tonuen bizitasunaz gainera,
bi urte sasoiaren artean begiak suma zezakeen
desberdintasun bakarra; izan ere, eskualde
horretako zuhaitzak hosto iraunkorrekoak dira
gehienak. Hostoak goiz irteten zaizkien zuhai-
tzek ez dute izoztearen kaltea jasaten; belarrak
fresko irauten du eta loreek aski dute goiz eguz-
kitsu bat muturra haizeari erakusteko. Gure lora-
tegiak oin erdi elur zuenean, ekaitzak larrosatxo
igokari ederrak kulunkarazten zituen gure
hesian eta zurbil samar egonagatik ere, ez zuen
ematen oso aldarte txarrean zeudenik.

Iparraldetik komentuko atetik begiratzen
nuenez itsasoa, gure eria bizpahiru orduz lagun-
tza gabe moldatzeko moduan zegoen egun
batean abiatu ginen, azkenik, ni eta nire seme-
alabak, alde hartako hondartza ikustera. Ordu
arte ez nuen batere jakinminik izan, nahiz eta
seme-alabek —sarrionak bezala ibiltzen baitziren
atzera eta aurrera— esan zidaten munduko leku-
rik ederrena zela. Dela baselizara egindako bisitak
—zeina izan baitzen gure saminaren lehe-

nengo arrazoiak— gorroto nahikoa arrazoitua eragin zidalako, dela zabaldi hartatik ikusiko nuen itsasoaren ikuspegia mendi gaineratik ikusi nuena bezain ederra izango zen itxaropenik ez nuelako, kontua da ez nuela Valldemossako bailara meharretik ateratzeko tentaziorik izan.

Lehen ere esan dut, kartuja dagoen lekuan mendikatea ireki egiten dela eta zabaldi makur samar bat dagoela, haren beso elkarretatik aldenduen artean igotzen dena itsasoraino. Bada, eguna joan eguna etorri, zabaldi horren gaineratik itsasoa odaiertzean ikusten nuenean, akats xelege bat egiten zuten nire ikusmenak eta arrazoiak: zabaldiak gora egiten zuela eta bat-batean nire aurrean eteten zela uste izan ordez, maldan beheara jaisten zela eta itsasertza handik sei zazpi legoara zegoela pentsatzen nuen. Nola azaldu, izan ere, itsasoa, zeina iruditzen baitzitzaidan kartujaren maila berean egon behar zuela, bi edo hiru mila oin beherago zegoela? Batzuetan harritu egiten ninduen hain ozen entzutea nik uste bezala hain urrun egonik; ez nintzen jabetzen gertaera horretaz, eta ez dakit batzuetan zergatik egiten dudan Parisko burge-

sengatik barre, neroni inozo baino inozoagoa bainintzen neure arrazoibideetan. Ez zitzaidan iruditzen nire begiradaren pasealeku nuen itsas odaiertz hura kostaldetik hamabost hogei legoara egon behar zuenik, eta, aldiz, itsasoak kartujatik ordu Erdiko bidean jotzen zuen uhartearen oinarria. Hori dela eta, seme-alabek itsasoa handik bi urratsera zegoelakoan hara joateko eta joateko esaten zidatenean ez nuen sekula ikusten une egokirik, itsasoa haurren bi urratsera, hau da, erraldoi baten bi urratsera zegoela uste bainuen; izan ere, gauza jakina da haurrak buruarekin ibiltzen direla, oinak ere badituztela gogoratu gabe, eta Erpurutxoren zazpi legoako botak haurrek oharkabean munduari buelta emango lioketela adierazten duen mito bat direla.

Amor eman nien, azkenik, baina jakinik hain urrutikoa iruditzen zitzaidan itsasertz liluragarri hartara ez ginela sekula iritsiko. Nire semeak bidea ezagutzen zuela erakutsi nahi zuen; baina, zazpi legoako botekin edozer gauza denez bide, eta ni aspaldian txinalekin bakarrik ibiltzen naitenez hor zehar, esan nion ezin nintzela berak

eta bere arrebak bezala ibili lubakien, sasién eta uharren gainetik jauzika. Ordu laurdena bazen itsasaldera jaisten ari ez ginela konturatuta nengoela; izan ere, uharren ibilbidea bizkor zetorren gugana, eta zenbat eta aurrerago, orduan eta bizkorrago hondoratzen eta murgiltzen zen itsasoan odaiertzean. Atzean utzi genuela iruditu zitzaidan azkenik, eta hala erabaki nuen han inguruan ikusten nuen lehen nekazariari itsasoan aurkitzerik ba ote genuen galdetzea.

Sahasti sarri baten azpian, lokatzez beteriko lubaki batean, hiru artzaintsa txiki zeuden, hiru maitagarri moxorrotu agian; palaz buztina nahasten ari ziren, auskalo zein kutunen edo gatzozpinen bila. Lehenak hortz bakarra zuen; Hortzbakar maitagarria izango zen seguruenik, bere hortz bakar nazkagarriarekin eltze batean bere sorginkeriak nahasten dituen hura bera. Bigarren atsoa Urubi zen itxura batean, ortopediako arau guztien etsaia. Keinu ikaragarria egin ziguten biek. Lehenak bere hortz bakar izugarria nire alabarengana hurbildu zuen, haren guritasunak gosea piztu baitzion. Bigarrenak burua astindu eta bere makulua hartu zuen nire

semeari jipoia emateko, haren gerri zuzen lirainak lastu egiten baitzuen. Baina hirugarrena, gazte eta ederra, lubakitik kanpora atera zen arin-arin, bere kapa bizkar gainean jarri zuen, eskuaz keinu egin zigun eta bidea zabaldu zuen. Maitagarri zintzo txiki bat zen, baina menditar tankeran jantzita zegoenean *Périca de Pier Bruno* izena hartzen zuen.

Périca da Mallorcan aurkitu nuen izakirik adeitsuena. Bera eta nire ahuntza dira nire bihotzaren zatitxo bat gorde duten Valldemossako izaki bakarrak. Gaztetxoa hain zegoen lokatzez zikin, ezen ahuntza bera ere lotsatu egingo zatekeen hura bezain zikin ibiliaz; baina, belar hezetan pixka batean ibili ondoren, haren oin biluziak ez zuri baina bai andaluziar batenak bezain politikusi ziren, eta haren irribarre ederra, haren jario fidakor eta bitxia, haren adeitasun tolesgabea medio perla fin bat bezala ikusi genuen. Hama sei urte zituen eta oso fina zuen aurpegiera, aurpegi biribil eta leuna, mertxika bat bezalakoa. Greziako estatuen lerro erregulatasun berbera eta haiek bezain plano ederrak zituen. Gerria zuen ihia bezain malgua, eta bere beso biluziak

beltzaranak ziren. Oihal lodiko rebozilloaren azpian adatsa aske zeraman, mando gaztearen isatsa bezala nahasturik. Zelaiaren muturreraino eramán gintuen eta ondoren larre landatu eta zuhaitzez eta harrizko bloke handiez inguraturiko batetik igaroarazi gintuen; itsasoaren arrastorik ere ikusten ez nuenez, mendian barrena sartu ginela iruditu zitzaidan eta Périca maltzura gutaz trufatzen ari zela pentsatu nuen.

Baina halako batean larrea ixten zuen hesi bat zabaldu zigun eta bidexka bat ikusi genuen azukre tontor baten tankerako harkaitz handi baten inguruan. Bidexkari jarraituz bira egin genuen, eta mirariz bezala, itsasoaren gain-gainean aurkitu ginen, mugagabetasunaren gainean; gure oinen azpian beste itsasertz bat zegoen handik legoa batera. Ikuskizun ustegabe-ko haren lehenengo ondorioa bertigoa izan zen, eta eseri egin nintzen lehenik. Pixkanaka konfiantza hartu nuen, ordea, eta bidexkan behera jaisteko kemena bildu nuen, nahiz eta bidexka hura ez zegoen giza oinek ibiltzeko egina, ahuntz hankentzat egina baizik. Hain zen ederra begi bistan nuena, ezen orain nik nituen ez zazpi

legoako botak, baizik eta enara hegoak buruan; eta hala, biraka hasi nintzen kostaldeko hormetan zehar ehun oin luzeko erraldoiak bezala altxatzen ziren kareharrizko orratz handien inguruan, nire eskuinean lurrian sartzen zen eta arrantzaleen ontziak euliak bezain handi ikusten ziren badia baten hondoa ikusteko irrikitan.

Bat-batean ez nuen nire aurrean eta nire azpian itsaso urdin-urdina besterik ikusten. Bidexka beste alde batetik joan zen ez dakit nora: Péricak oihu egin zuen nire buru gainetik eta haurrek, lauhankan nire atzetik zetozela, garrasika hasi ziren. Atzera begiratu eta negar batean ikusi nuen nire alaba. Atzerantz egin nuen, zer zuen galdetu nion, eta egoera hartaz jabetu nintzenean haur haien beldurra eta etsipena hain funtsgabeak ere ez zirela ohartu nintzen. Beste urrats bat eta komeni zena baino askoz ere bizkorrago jaitsiko nintzatekeen, baldin eta euli batek sabaian egiten duen bezala hankaz gora ibiltzen asmatu ez banu behintzat; izan ere, golko txikiaren gainean zintzilik zeuden nire oin azpiko harkaitzak, eta uhartearen oinarria zeharo janda zegoen behealdetik. Seme-ala-

bak nolako arriskuan jarri nituen jabetu nintze-
nean izugarrizko beldurra sentitu nuen eta atze-
ra haiengana igo nintzen lasterka; baina, azukre
tontor handi batzuen atzean arriskutik kanpo
utzi nituelarik, berriro hartu ninduen badiaren
hondoa eta osinaren beheko aldea ikusteko gri-
nak.

Sekula ez nuen ikusi han zegoenaren antze-
ko ezer, eta nire irudimena trosta eroan zebilen.
Beste bidexka batetik jaitsi nintzen, sasiei heldu-
ta eta harrizko orratzak besarkatuz; orratz bakoit-
zaren ondoren beste jauzi bat egiten zuen
bideak. Azkenik, olatuak harmonia bitxian leher-
tzen ziren sakonunearen aho izugarria ikusi
nuen. Ez dakit nolako akorde magiko batzuk
entzun uste izan nituen, ez dakit nongo mundu
ezezaguna aurkitu izanaz harro nengoen, nire
semeak, beldurtuta eta haserre samar, indarrez
atzerantz tira zidanean. Ez nuen izan munduko
erarik baldarreanean erori beste erremediorik, ez
aurrerantz, nire abenturaren eta neronen amaia
izango baitzen hori, baizik eta eserita, pertsona
zuhurrak bezala. Haurrak halako errieta eman
zidan ezen bertan behera utzi bainuen nire

asmaoa, baina oraindik gainditu ez dudan atseka-beaz; izan ere, nire txinalek pisu handiagoa dute urtetik urtera eta ez dut uste egun hartan izan nituen hegoak sekula gehiago etorriko zaizkidanik hura bezalako beste itsasertz batzuetara eramatera.

Egia da, dena den, ikusten dena ez dela beti amets egiten dena bezain balitotsua, eta edonork bezain ongi dakit nik ere hori. Baina hori artean eta giza sormenean bakarrik da egia biribila. Niri dagokidanez, edo irudimen alferra dudalako, edo Jainkoak nik baino talentu handiagoa duelako (eta hori ez da guztiz ezinezkoa), gehienetan nik uste baino askoz ere ederragoa aurkitu izan dut izadia, eta ez dut oroitzen sekula ezatsegina ikusi izana, salbu ni ere horrelaxe egon naizenetan.

Beraz, ez naiz sekula kontsolatuko harkaitzaren inguruan bira ez emanaz. Anfitrite ikusi ahal izango nuen han, nakarezko ganga baten azpian, kopeta itsasbelarrez koroatuta zuela. Horren orde ez nituen ikusi kararrizko harri orratz batzuk besterik, zutabeak bezala amildegian gora igotzen, estalaktitak haitzuloz haitzulo

bezala, forma bitxi eta egokera fantastikokoak guztiak. Zuhaitz izugarri sendoak baina haizeak makurtuak eta errotik atereak ia, amiltzen ziren osinean behera, eta osin haren hondotik beste mendi bat igotzen zen zeruraino, beirazko, diamantezko eta zafirozko beste mendi bat. Ilusio horixe sortu ohi du itsasoak, leku garai batetik begiratzen denean; plano bertikala ematen du, edonork dakien bezala. Azal beza nahi duenak.

Nire seme-alabek landareak biltzen hasi nahi zuten. Harkaitz haietan sortzen dira munduko liliazeorik ederrenak. Hiruren artean amaryllis tipula gorrixka bat atera ahal izan genuen, baina hain zen pisua ezen azkenean ez genuen kartujaraino eramán. Nire semeak zatitu egin zuen gure eriarri eramateko landare zoragarri haren puska bat, bere burua bezain handia. Péricak, bidean bildutako sorta egur bat harturik bere mugimendu bortitz eta bizkorrez behin eta berriro sudurretan jotzen zigula, herriaren sarreraraino eramán gintuen. Kartujara etorrarazi nuen oparitxo bat emateko; izugarri kostatu zitzaidan hark nire oparia onartzea. Péricatxo gaixoa, sekula ez duzu jakingo zenbat on egin zenidan

ziminoen artean gizaki gozo, zoragarri eta adeitsu bat, gibel asmorik gabekoa, bazela erakutsiarekin! Gauean oso pozik geunden izaki maitagarri bat ezagutu gabe Valldemossatik ez genuela alde egingo eta.

V. kapitulua

Bi ibilaldi horien artean, Mallorcan egin genituen lehenengo ibilaldiaren eta azkenaren artean alegia, beste hainbat ere egin genituen, baina ez ditut hemen gogoratuko, irakurleari ez erakustearren alde guztietan ederra eta alde guztietan etxe ezin pintoreskoagoez, txabolez, jauregiez, elizez eta monasterioez betea zen izadi harenganako lilura monotonoa. Gure paisajista handietako batek inoiz Mallorcara joatea erabakiko balu, biziki gomendatzen diot Granja de Fortuñyko landetxea, marmolezko zutabeen aurrean zabaltzen den garraiskazko haran txikiarekin eta hara iristeko bidearekin. Baina haraino iritsi gabe ere ezin izango du uharte miragarri hartan hamar urrats egin bide ertzean gelditu gabe, orain palmondo arteko biltegi arabiarraren aurrean, gero XV. mendeko harrizko gurutze finaren aurrean edo olibondoeko sail baten mugan.

Ezer ez dago olibondoan, hau da Mallorcaren gurasorde antzinakoen, indarra eta forma bitxia

berdin dezakeenik. Mallorcarrek berriki en landa-
tutako olibondoak uhartera erromatarren esku
egon zen garaikoak direla diote. Ez diet ezetzik
esango, hala egin nahi izanez gero ez bainuke
jakingo kontrakoa frogatzeko biderik ba ote den,
eta aitortu behar dut ez dudala, gainera, hori
egiteko inolako asmorik. Zuhaitz misterioitsu
horien itxura osasuntsua, lodiera neurritz gandi-
koa eta jarrera suminkorra direla medio, nire iru-
dimenak aise onartu zituen Anibalen garaikide-
tzat. Arratsean olibondo artean ibiltzen gare-
nean zuhaitzak direla ekarri behar izaten dugu
gogora, gure begiei edo irudimenari bakarrik
jaramon eginez gero izuak hartuko baikintuzke
munstro fantastiko haien artean; batzuk heren-
suge izugarriak bezala makurtzen dira gure gai-
nera, ahoa zabalik eta hegalak hedaturik, beren
gorputzaren gainean makurtzen dira besteak
boa lotiak balira bezala, eta borrokalari erral-
doiak bezala elkar besarkatzen dute beste
batzuk. Zentauro bat doa hemen, trostan, ez
dakit zein zimino eme izugarri daramala bizkar
gainean, izen gabeko narrasti bat ari da han
orein pilpirati bat jaten, satiro bat dantzan ari da

harantzago, bera baino ederragoa den aker batekin; eta askotan hamar zuhaitz desberdineko taldeztat hartzen dugu zuhaitz barne-huts bakar bat, adabegiz beteriko zuhaitz bat, makurra eta konkorduna, eta zuhaitz bakar hori da munstro horiek guztiak irudikatu eta buru bakar batean biltzen dena azkenik, Indiako fetitxeak bezain buru itsusi baten gisara, adar berde bakar-rak buru ematen diola. Laurens jaunaren irudiei begiratu bat egiten dioten jende ikusnahiek ez bezate pentsa irudi horietan marraztu dituen oli-bondoen fisonomia dena baino beldurgarriagoa irudikatu duenik berak. Are eta adibide izugarriagoak ere hauta zitzakeen, eta itxaropena dut *Magasin pittoresque* artearen eta izadiaren mirarien plazaratzaile nekaezin eta dibertigarri hori egunen batean jarriko dela erakusgarri bikainek guri eskaintzeko bidean.

Hala ere, zuhaitz sakratu haiek, zeinetatik bai baitirudi ahots igarleak atera behar dutela, eta haien isla zakarra garbi-garbi ebakitzen duen zeru itsugarri hori irudikatzeko Rousseuren pintzel ausart eta handia beharko litzateke, ez gehiago ez gutxiago. Anbuluak eta mirtoak isla-

tzen diren urek Dupreren beharra lukete. Beste atal txukunago batzuek, izadiak, aske izan arren, arazeria gehiegiaz aire klasiko eta harroa hartzen duten beste atal batzuek, ongi hartuko lukete Corot zorrotza. Hala ere, Hueten ziria izan nahiko nukeen nik eskura, patrikan neramakeen makila magiko baten modura, hango nahas-mahas miresgarria adierazteko, zikoina bere zango luzeak bustitzera hurbiltzen den iturri miteriotsu horren beraren gainera makurtzen den lastodunez, basaloreez, enbor zaharrez eta girlanda saminduez beteriko mundu hori adierazteko.

Zenbat aldiz ez ote nintzen Decampsekin oroitu mallorcar zaldun zaharra bere jauregi horitu eta erdi hondatuaren atarian ikusirik! Zenbat aldiz ez ote nintzen oroitu karikatura larri eta pintura historikoaren mailara jasotakoaren maisu handiaz, hornei ere izpiritua, poza eta poesia, hitz batean bizitza, ematen dakien gizon burutsu hortaz! Gure klaustroan fraide jantzian jolasean aritzen ziren haur beltzaran ederrak dibertigarriak irudituko zitzaizkion hari. Nahi adina zimino izango zituen han, eta aingeruak

ziminoen alboan, giza aurpegiko zerriak, eta gero kerubinak zerriekin nahasturik eta ez hauek baino garbiago gainera; Perica, Galatea bezain ederra, ur zakur bat bezala buztinez lohi eta Eguzkiari barrezka, Lurrean eder den oro bezala.

Baina zeu zara, Eugenio, nire adiskide zaharra, nire artista maitea, gauez mendira eramanez nahi izango nukeena, ilargiak uholde ubela argitzen zuenean.

Ekinaldi ederra izan zen; hamalau urteko semearekin itotzeko arriskuan egon nintzen arren, semeak ez zuen une batez ere kemena galdu eta nik ez nuen galdu gau hartan izadia erromantiko okitua, ero okitua eta eder okitua bihurtu zela ikusteko ahalmena ere. Neguko euritan abiatu ginen Valldemossatik haurra eta biak, Palmako aduanazain maltzurrei Pleyel pianinoa kentzera. Goiz oskarbi samarra genuen eta bideak zabalik ziren; baina hirian hara-hona genbiltzanean, goian behean hasi zuen euria. Hemen euriaz kexu izaten gara, baina ez dakigu euria benetan zer den: gure eurite luzeenek ez dute bi ordu irauten; hodeiak bata bestearen atzetik igarotzen dira, eta bataren eta hurrengo-

aren artean tarte txiki bat izaten da beti. Mallorcan, aldiz, hodei iraunkor batek estaltzen du uharte guztia eta hantxe gelditzen da harik eta erabat agortzen den arte; berrogei edo berrogeita hamar orduko tarte izaten da, are lau edo bost egunekoa ere, eta inolako etenik gabe eta beti gogortasun berberaz aritzen du euria.

Arratsean hartu genuen berriro *birlochoa*, kartujara hiru ordutan iritsiko ginelakoan. Zazpi behar izan genituen eta ustekabeko aintzira batean igelekin etzateko zorian egon ginen. *Birlochoaren* gidaria sutan zegoen; mila oztopo jarri zizkigun bidaiari ez abiatzarren: zaldia ferratu gabe zuela, mandoa herren zegoela, ardatza hautsi zitzaiola, nik al dakit! Ordurako, baina, nahiko ongi ezagutzen genituen mallorcarrak haren jardunaren aurrean amore emateko, eta azkenean bere eserlekura igotzera behartu genuen; lehenengo orduetan kopetilun joan zen. Ez zuen kantatzen, ez zituen guk eskainitako zigarroak onartzen; ez zion mandoari biraorik ere egiten, eta hori oso seinale txarra zen; heriotza zeraman ariman. Ezagutzen zituen zazpi bideetan okerrena hartu zuen hasteko, beldurtu

egino ginelakoan. Bide hori gero eta gehiago hondoratzen zenez, berehala aurkitu genuen uharra, eta berehala sartu ginen bertan, baina ez ginen gehiago atera. Uhar zintzoa, bere ibilguan gustura ez nonbait eta bidera atera zen; jadanik ez zen biderik, baizik eta ibai bat, eta ibai hartako ur uherrak aurrez-aurre zetozkigun zarata handia atereaz eta trumilka.

Birlocho maltzurak txepel inozo batzuk gine-la uste izan zuen, baina erabakia hartuta gurela ikusi zuenean, odol hotza berotu zitzaion eta zeruko ganga dardarazteko moduko biraoak eta hitz gorriak esaten hasi zen. Iturburuetako hura hiriraino eramaten duten harlanduzko ubideak hain zihoazen urez gainezka, ezen alegiako igela bezala lehertu baitziren halako batean. Gero, noraezean ibiliaren poderioz, putzuak eratu zituzten, eta padurak ondoren, eta aintzirak geroago eta azkenik, ibaiadarrak landa guztian zehar. Handik gutxira, gidariak ez zekien ez zein santuri erregutu ez zein deabruri amore eman. Zangoak busti zituen, ongi merezitako bustialdian, eta ez gintuen hari errukirik izateko tenorean aurkitu. Gurdia oso ongi itxita zegoen, eta

gu lehor ginen artean; baina unetik unera, *itsasgora* zetorren, nire semearen hitzetan, noraezean gindoazen, izugarrizko astinaldiak hartuz, eta zuloetan sartuz etengabe; azken zuloa hilobi izango genuela iruditzen zitzaigun beti. Azkenik, hainbeste okertu ginen, ezen mandoa gelditu egin baitzen, arima utzi aurretik bere baitara biltzeko bezala; gurdizaina zutitu egin zen eta bideko ezpondara igotzen tematu zen, baina ezponda buruaren parean zuen; bere asmoa bertan behera utzi zuen ilunabarreko argitan ikusi zuelarik ezponda hura Valldemossako ubidea bera zela, baina ibai bihurtuta, eta tarteka gure bidexkara —hau ere ibai bihurtuta, apalagoko maila batean— jauzika erortzen zela.

Une tragikomikoa izan zen benetan. Beldur pixka bat banuen neuregatik, eta izugarrizko beldurra nire semeagatik. Begiratu egin nion; gurdizainaren itxuragatik barrez ari zen. Gurdizaina zutik zegoen, oinak bere eserlekuaren alde banatara jarrita, eta amildegia neurtzen ari zen, gure kontura batere dibertitzeko asmorik gabe. Nire semea hain lasai eta pozik ikusi nuenean Jainkoaganako konfiantza berreskuratu nuen.

Bere patuaren sena bere baitan zeramala sentitu nuen eta hurrek ezin adierazi duten baina beren kopetan hodei bat edo eguzki izpi bat bezala hedatzen den bihozkada hari lotu nintzaion.

Gurdizaina, ordurako gure patu tristearen esku uzterik ez zuela izango konturatuta, berak ere gure patuarekin bat egin zuen, eta bat-batean itzaltsu bihurturik, esan zuen: «Egon lasai, umeak!», esan zigun aitak erabili ohi duen doinuan. Gero oihu ozen bat bota eta mandoa zigortu zuen; mandoak estropozo egin, irristatu, berriro zutitu, atzera estropozo egin eta erdi itota altxa zen azkenik. Gurdia hondoratu egin zen alde batetik: «Hara!», eta bestetik hondoratu zen gero: «Tira, goazen berriro ere!». Karraska misteriotsuak atera zituen, jauzi miresgarriak egin zituen, eta azkenik garaile atera zen froga hartatik, kroskoa hautsi gabe harkaitzak ukitu dituen ontzi bat bailitzan.

Salbatuta geunden, lehor geunden; baina mendira iritsi aurretik dozena bat bider ekin behar izan genion berriro gurdi bidezko itsas bidaldi moduko hari. Behingoan iritsi ginen mal-

dara; baina mandoa amildegian atzera egiten hasi zen han, leher eginda baitzegoen, batetik, eta beldurrak airean baitzen, bestetik, uharraren eta mendian zebilen haizearen zarata zela eta. Gurditik jaitsi egin ginen, bakoitzak gurpil bate-tik bultza egiteko; gurdizainak *maisú Oliboroni* belarrietatik tira egiten zion bitartean. Horrela jaitsi ginen gurditik ez dakit zenbat aldiz; eta legoa erdia ere bete gabe bidean gora bi ordu egin ondoren, mandoa dardar batean zubiaren bazter batean gelditu zen tokian erabaki genuen gizona, gurdia eta piztia hantxe utzi eta kartujaraino oinez igoko ginela.

Ez zen lan erraza. Bidexka bizkorra izanda-koa ur uhar indar handikoa zen, eta zangoetako indar guztiaz egin behar zitzaion aurre uraren indarrari. Beste uhar batzuk, txikiagoak, bat-batekoak, harkaitz artean jausten ziren zarata handiz eta gure eskuinean hustutzen ziren uste-kabeen, eta sarritan beste aldera jo behar izaten genuen uharretara iritsi aurretik edo arrisku handiz gurutzatu behar izaten genituen, edozein unetan haietan aurrera ezin egingo genuen bel-dur. Uholdeka ari zuen euria, tinta baino hodei

beltzagoek estaltzen zuten noiznahi ilargiaren aurpegia eta, orduan, lanbro gris ezin iragankorrez inguratuta, haize indartsuak makurtuta, pinuen karraska hotsa eta gure inguruan harrien talkak entzunez, zain gelditu behar izaten genuen, olerkari isekari batek zioen bezala, Jupiterrek kandelari mukia kendu artean.

Argi eta ilunezko tarte haietan, Eugenio, zeru lurrak diren dizdira eta itzal misteriotso eta bitxienez zurbiltzen eta berriro argitzen ikusiko zenituen etengabe. Ilargiak bere distira berreskuratu eta haizeak haren aurrean garbituriko zeru tarte batean nagusi izan nahi zuela agertu orduko, han iristen ziren hodei ilunak, ilargia beren mantuen tolesetan estaltzeko irrikitan dauden mamu gaizki nahiak balira bezala. Haren gainetik igarotzen ziren eta batzuetan urratu egiten ziren, Ilargia are eta ederragoa eta errukitsuagoa erakutsi nahiko baligute bezala. Orduan mendiak, urjauziz blai, eta ekaitzek errotik ateratako zuhaitzek kaosaren irudia ematen ziguten. Ez dakit zein ametsetan ikusi eta Flegetongo eta Ereboko uhin gorri-urdinetan bustitako ez dakit zein pintzelekin margotu zenuen akelarre hartan

pentsatu genuen. Eta gure aurrean errealitatea balitz bezala agertzen zen infernuko koadro hori ikusi orduko, han desagertzen zen Ilargia, aireko munstroek irentsita, eta oinak non jartzen genituen ere ikusi ezin genuenez, gu geu hodeiak bagina bezala erabiltzen gintuzten linbo urdinxketan uzten gintuen.

Iritsi genuen noizbait azken mendiko harrizko bidea eta arriskutik kanpo gelditu ginen ur ibilgutik aldendu ginenean. Nekeak akituta geunden, oinutsik, edo hala bageunde bezalaxe; hiru ordu behar izan genituen azkeneko legoa hura egiteko.

Baina eguraldi ona etorri zen berriro, eta lurrunontzi mallorcarra Bartzelonarako asteroko bidaia egiten hasi zen atzera. Gure gaixoak ezin jasango zuen bidaldi hura, baina Mallorcan aste bat gehiago igarotzea are jasanezinagoa zitzaion. Egoera tamalgarria zen hura; batzuetan itxaropen eta kemen guztia galtzen nuen. Gure samina arintzeko Maria Antoniak eta bere solaskideek etorkizuneko bizitzari buruzko hitzaldirik onbidetsuenak esaten zituzten denek batera. «Hetiko hau, zioten, infernura joango da, hetikak

jota dagoelako eta konfesatzen ez delako. — Horrela gertatzen bada, hil ondoren ez dugu lur santuan lurperatuko, eta inork lur eman nahiko ez dionez, hor konpon bere lagunak. Ikusiko dugu nola irteten diren trantze horretatik; niri dagokidanez, ez dut ezer egiteko asmorik. — Ezta neuk ere. —Ezta neuk ere; eta *amen!*»

Azkenean alde egin genuen, eta lehenago ere esan dut nolako konpainia eta adeitasuna aurkitu genuen ontzi mallorcar hartan.

Bartzelonan sartu ginenean, halako presa genuen arraza anker harekikoak behin betiko amaitzeko, ezen ez bainuen izan lurra hartzea amaitu arte itxaroteko egonarririk. Ohar bat idatzi nion estazioko komandanteari, Belvès jaunari, eta txalupa batean bidali nuen. Handik gutxira etorri zen gure bila bere txanelean eta *Méléagre* ontzira igo ginen.

Gerrako brick eder hura saloi bat bezain txukun eta dotore zegoen, eta oina han jarri orduko, aurpegi zoli eta adeitsuez inguratuta aurkitu ginen; komandateak, medikuak, ofizialek eta eskifaia guztiak bere laguntasun eskuzabal eta adikorra eskaini zigun; Gautier d'Arc Frantziako

kontsul bikain eta espiritualari eskua eman genion eta zubian pozez saltoka hasi ginen, barru-barrutik oihukatuz: «Vive la France!».

Munduari bira eman eta Polinesiako basatiak utzita berriro zibilizazioan sartu bagina bezala sentitzen ginen.

Eta kontakizun honen irakaspena da, xumea agian baina bene-benetakoa, gizona ez dela zuhaitzekin, harriekin, zeru garbiarekin, itsaso urdinarekin, lore eta mendiekin bizitzeko sortu, baizik eta gizakiekin, hau da bere kidekoekin, bizitzeko.

Gaztaroko egun nahasietan bakardadea hartzen dugu erasoen kontrako babeslekutzat, borrokan harturiko zaurien kontrako erremedio-tzat; baina akats handia da hori, eta bizitzaren esperientziak erakusten digu gure kidekoekin bakean ezin bizi garenean ez dagoela ez lilura poetikorik, ez atsegin artistikorik, arimaren barruan sortzen den arrakala beteko duenik.

Nik beti amets egin nuen basamortuko bizitzarekin, eta ameslari orok aitortuko du fantasia hori bera izana inoiz. Baina sinetsidazue, anaiak, gure bihotza maitatzen ohituta dago, hain ohitu-

ta ere ezen ezin baikara batzuk besteak gabe bizi; eta egin dezakegun gauzarik onena elkar eramatea dugu; izan ere, bular beretik edoskitzen duten haurrak bezalakoak gara: elkarri traba egin, elkarrekin borrokatu eta are elkar joarren, ezin sekula elkarrengandik aldentu.

AMAIERA